

Ebaristo Bustintza

Kirikiño

BIZKAIA BEGIETAN


(1913-1928)

Testu-aukeraketa:

Javier Perea

Sarrera eta edizinoa:

Miren Atutxa



SUTONDOAN SORTA

LABAYRU IKASTEGIA

BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA

Ebaristo Bustintza *Kirikiño* XX. mende hasierako idazlerik oparoenetakoa dogu. Ez eban sorkuntzalanik argitaratu, baina aldizkarietan idatzitako artikuluak danak batu ezkeru, pilo ederra osotuten da.

Sutondoan bilduma honetan gai jakin baten ganean idatzitako artikuluakaz osotutako sortak argitaratu izan dira lehenago be: *Egunekoa* (1981), *Edo geuk edo inok ez. Euskerearen alde* (1984), *Guda Nagusia 1914-1918* (1989), *Abarrak* (2005), *Aberriaren alde. Artikulu politikoak* (2005).

Bai aurreko guztiak bai oraingo hau, Javier Pereak aukeratutako artikuluena bildumak dira. Pereak Kirikiñok *Euzkadi* egunkarian argitaratutako artikulu guztiak batu ebazan, eta horreetatik sailkapen bat egin eban, gaika gitxi gorabehera.

Liburu honetan gai askotako artikuluak batzen dira: ohiturak, kirolak, arte erakusketak, eztabaidagaiak. Artikuluok ez dagoz gai bakar baten inguruan lotuta, baina danak dira aktualidadekoak idatzi ziran garaiari begira.

Kirikiñoren zaletasunak, pentsakera eta baloreak ezagutzeko aproposak izateaz ganera, idazten harek eukan bizitasuna agirian ixten dabe testuok.

EBARISTO BUSTINTZA KIRIKIÑO

Bizkaia begietan
(1913-1928)



EBARISTO BUSTINTZA *KIRIKIÑO*

Bizkaia begietan
(1913-1928)

Testu-aukeraketa: Javier Perea
Sarrera eta edizinoa: Miren Atutxa

LABAYRU IKASTEGIA
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA
BILBAO
2007

Argitalpen honen moldaketak eta prestakuntzak Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza izan dau

© *Argitaraldi honena*: Labayru Ikastegia - Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa
Aretxabaleta, 1-1.a
48010 BILBAO
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58
Posta elektronikoa: labayru@labayru.org

Diseinua: Ikeder, S. L.
Fotokonposizioa: Ikur, S. A.
Silutegia: Baster S. L. L.

Lege Gordailua: BI-2373-07
ISBN: 978-84-89816-90-9

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburu hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoa edo mekanikoa, fotokimikoa, magnetikoa, elektrooptikoa, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz beraz transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright* jabearen aurretiazko idatzizko baimen barik.

AURKIBIDEA

Kirikiñoren idaztiak Javier Perearen eskutik 11

Sarrera. *Miren Atutxa* 15

BIZKAIA BEGIETAN (1913-1928)

Ezetara be ezin ikusi 37

Ostiko-pelotea eta zezenketak 39

Udabarria 41

Irundarrak eta bilbotarrak parra gelditu 42

Futbola zelan jokatu 44

Udabariaren gorabeherak 47

Elantxobera joan-etorria 49

Piperrautsa begietara 53

Gaur da urtebete 55

¡Vivan las cadenas! 57

Ostiko-pelota 59

Ez gara arrano jaio 61

Arrautzopila. Gomutapena 63

Arto-ereintza 66

Sport edo kirol barri bat 68

Idi-indarketak eta zezen-hilketak. Jokoa eta jokoa 71

Berriztik 73

Bildurrak ez gaizan zoratu eta galdu 76

Margo-ertia 78

Amerikako izpar batzuk	80
Eguraldiaren zorakeriak	84
Gurasoak, zuhur egon zaitkeze!	86
Atso batzuei	89
Gaur deun Balasi	92
Alde guztietan... ..	94
Deun Agate	96
Andera Miren epaileko	99
Arrentzeak	101
Erti-lan eder bat	103
Basurtuko feriara abercak sartzearren zer ordaindu?	106
Savona (Italia)	108
Erti-lan ederra	111
Eresi-hitzegikizuna bart. Donostiatar Joseba Andoni abak	114
Gogoketa	116
Hareek dira mutilak, hareek!	118
Bihar oporra	120
Egutegien alde. Gureagaz 13 egun atzerago zergaitik <i>cismaticoak</i> ?	122
Cabanas Oteiza. Margo-erki erakusketa	126
Getxoko idazkun batez	129
Deun Iñaki	130
“Balbino Sanz Pasalodos”	132
Eup, bermeotarrak!	133
Atzoko eguna Bilbon	136
Baionako gotzaina hilzorian	139
Hor dozue, ba, erdera hori!	141
Urun-auzia	143
Beldua da, ez gudaria	145
Cabanas Oteizaren margerkiak	148
Oñak izan zaitzeze... Neuk moztu zagiedazan	150
Doixtar-zaleak diralako	152
Gauzak bere lekuan	154
Zelan bizi gara?	156
Oporketa	158

Amaia	160
Harrikatzen gardena gure injineruentzat	162
Zer ete da?	165
Gure dirudunci	167
Nortzuk kanpotarrak?	170
Euskalduna-ko langile batzuei	172
Amerikara... Zetako?	174
Irlandar gogorak!	177
BIHOTZA ETA bihotza	179
Edarikoia	181
Agintedunak	183
Bildurra	185
Asele polit bat	187
Louvaingo liburutegi barria	190
Txarri-belarria	192
Berriotxoaren heriotza	193
Frantzeska Xabier deuna	196
Irlanda eta Ingalaterra	199
Lan handia	201
San Tomas atzo	203
Jai guztiz ederra	206
Egun bat atzerago	208
Astoak hegaz	211
Durangoako astakeria	213
Begiak lehor	215
Hizketa polit bat	217
Kaperotxipi Bilbon	219
Txoriak	221
Bilboko jeltzale gaztediarena	223
Eleizaldetarako Koldobika. Gorpua croatea	226
Gizon handiak goralduta gotzain baten oroiz	229
Pelota txapelketa Bilboko jeltzale gaztediarena	231
Lurrikarea, sua eta ura	234
Deun Inakiren mirari batzuk	236

<i>Txolen</i>	238
“Hor konpon” berrehun dukat	239
Eleizeak zer egiten dau?	241
Hainbeste sagu?	244
Ez ei dago zergaitik bildurtu	246
Erkiziatar Domingo agurgarria	248
Gure itsasgizon gurenak	250
Gure itsasgizon gurenak Uribarritar Batista	253
Gaur datoz, gaur!!	255
<i>Italia</i> haizeontziaren hondamena	257

KIRIKIÑOREN IDAZTIAK JAVIER PEREAREN ESKUTIK

Javier Perea Txabarri Bilbon jaio zan 1927an, Abandon zehatzago esanda. Aita, Pascual Perea, udaleko arkitektoa eban. Euskaldunen artean hazi ez eta, ez eban euskerea berez-berez ikasi, baina euskaldunbarrietan goiztarra dogu guztiz. Gasteizko Seminarioan abade-ikasketak egiten egoala, 1950ean, inok euskerarik ikasten ez ebanean, argi ikusi eban berak leku euskaldunera joan behar izan ezkeru euskeraz egin beharko ebala predikazinoa. Hori izan eban akulua une horretan euskera ikasten buru-belarri jartzeko. Ikasteko prozesu horretan udaldi bi osoak Zeanurin emon ebazan, 1949 eta 1950ko udak, hango familia bategaz euskerara belarria ohitu eta berbazko jariora hobetzeko.

Abade barri zala, Orozkora bialdu eben, Urigoitiko parrokiara. Sei urte emon ebazan han (1951-1957), hitzaldiak euskeraz txukun-txukun idatziz prestatzen zituala. Herri euskalduna suertau jakon, hatan be, berak aurreikusitako aukerea, baina horretara egokitze bidea eginda eukan, aurretiaz hasi zalako prestetan.

Hurrengo hamalau urteak Ekuadorren emon ebazan misiolari (1957-1971), Chilla izeneko leku bakarti eta bakartuan, besteak beste. Handik itzulita koan Mañarira joan zan abade, eta han egon zan 1971 eta 1981 bitartean.

Harrezkero Labayru Ikastegian jardun eban Euskal Bibliotekan katalogazinoan, 1996an jubilau zan arte.

Mañarin, Kirikiñoren herrian, abade egoala, Inaki Goikoetxeak aitatu eutsan ia zergaitik ez eban batzen Kirikiñoren lana, bitarteetan horretara jarrita txiri-txiri egingo ebala-ta. Eta halan hasi zan Kirikiñok *Euzkadi* egunkarian argitaratutako idatzi guztiak batzen.

Zeregin horretarako lehenengo Lazkaora jo eban, beneditarren monasterioko liburutegira. Han zortzi-hamar hilabete emon ebazan aldizkari guztiak banan-banan eskuartean pasau eta arakatzen. Eta hangoak amaitutakoan Bizkaiko Foru Aldundiko eta Sociedad Bilbainaren liburutegietan, bilduma osatzen.

Hainbat joan-etorri beraz, artikuluak alez ale bilatzen.

Egunkariak ezin fotokopiau ziran ezkerok, argazki-kamara bategaz testuen argazkiak egin eta gero handik transkribatu zituan. Testuak jatorrizkoan dagozan dagozanean kopiau zituan, ezertxo be aldatu barik eta zehatz kopiauta. Labayru Ikastegiaren Euskal Bibliotekan guztira 16 liburuki lodi dagoz, Kirikiñoren kazetari-idazlan guztiakaz.

Liburukiok enkuadernauta dagoz, formato bereziko orrietan. Izan be, papela be berak orriz orri marra gorriz enkuadrau eta danak bardin-bardin dagozala makinaz jo zituan.

Metodologia beragaz batu ebazan Juan Bautista Eguzkitza lemoaztarraren idatziak be, Labayru Ikastegiak argitaratzekotan dituan lanak.

Behin idatzi guztiok batuta, era askotakoak dagozala ikusita, (luze-laburrak, gai serio eta barregarriak, euskeraz eta gaztelaniaz) batzuk aukeratu eta gaika sailkatu zituan, sortaka argitaratu ahal izateko. Halan etorri dira orain arte argitaratuta dagozan aleak.

1981ean *Egunekoa* argitaratu zan, Sutondoan bilduma honeri hasiera emonez. "Egunekoa" *Euzkadi* egunkariaren atal bat zan, eta urte askoan Kirikiñok euki eban atal horren ardurea, haren ostean Lauaxetak hartuko ebana. Atal horretako testuak laburrak dira, gaiak era askotakoak darabilzala: umorezko pasadizuak, ipuinak, kontakizun barregarriak, politika gaiak, euske-

ra, gerra, jaiak, ohiturak, historia, jazoerak... Liburu horretarako sarrerea be Perearena da, Adolfo Arejitak testuaren moldakuntza eginda.

1984an etorri zan *Edo geuk edo iñok ez. Euskerearen alde* izenekoa, Sutondoan bilduman seigarrena egiten dauana. Aurrekoaren moduan Javier Perearen sarrereagaz eta Adolfo Arejitak testua moldatuta argitaratu zan. Liburu horretako artikulua batzen dituan ardatza euskerea da, gaitzat hori darabil-eta, euskerearen alde, gure hizkuntza salbau beharrean.

Hirugarrena *Guda Nagusia (1914-1918)* izenekoa da, 1989an argitaratua. Liburu horretako artikuluetan gerra-kazetari jatorku Kirikiño. Lehen Mundu Gerraren barri emoten dau, gerrako albiste edo kronikak eginez. Lan horrek be Perearen sarrerea dakar.

Azkenengo liburu bietan datozan irudiak Javier Pereak berak eskuz egindakoak dira, marrazkirako aparteko eskua daukan erakusgarri.

Aberriaren alde. Artikulu politikoak izenekoa 2005ean argitaratu zan, Euskal Herriko politika-gaien gaineko artikulua kaz osotuta. Cesar Gallastegik atondutako sarreran, artikuluetan aitatzen diran personaia eta gertaera historikoak kokatu eta kontestualizatzeko ahalegin apartekoa dago, dokumentazino zehatza osogarri daukala.

Bizkaia begietan (1913-1928) honetan, era askotako gaiak batzen dira artikulua solteetan. Beste bilduma monografikoetan lekurik ez daukenak eta alkarren artean lotura barik dagozanak batzen dira hemen, Kirikiñok idazteko grina noraino eroan eban erakusteko. Urte barruko jaiak eta hareen ganeko tradizinoak (Santa Ageda, San Juan...), eguraldia, kampak kirolak eta hemengo tradizinoak (zezenketa, futbola...), kultura gaiak (erakusketak, liburu barriak, artistak...) danetarik dago nahastean hemen, beti be ordena kronologikoan.

Honaino orain arte argitaratutakoak. Horrez gainera, beste sorta bi ditu batuta, bata Kirikiñoren umorea erakusten daben

artikuluak osotuta eta bestea gaztelaniaz idatzitako artikuluakaz. Izan be, Primo de Riveraren diktaduran galarazo egin eben euskeraz argitaratzea, horregaitik, argitaratzen jarraitu ahal izateko, gaztelaniaz idatzi eban urte horreetan.

Hurrengo bi horreen faltan Javier Perearen ekarpena begien bistakoa da. Berari esker, Kirikiñoren idazlanak barriztau eta irakurlearentzat eskura jarri dira. Izan be, gure arteko idazlerik oparoenetakoa dogu, bere garaian jenteak gartsu irakurtzen ebana, jarraitzaile asko zituana.

Literatura aldetik ezeze, kazetari eta bere garaiko historiaren kronista gisa guztiz interesgarria dogu gaur be.

Bagenkian hori lehenagotik *Abarrak* eta *Bigarrego abarrak* liburuen bitartez, baina Javier Pereak bideratuta Labayru Ikastegiak argitaratu dauan liburu-sail honi esker, errazago eskuratuko dogu Kirikiñoren barri zehatz eta zabala.

SARRERA

Ebaristo Bustintza Lasuen idazle mañariarra itzal handiko gizona izan zan, urteetako ekinaren puruz lan ezin oparoagoa itxi euskuna. Izan be, gauza guztiek hasiera eta amaiera daukiela esaten ei dan arren, *Kirikiño* zanaren ekarriak amaibakoak emoten dau, hain zabala eta ugaria dan aldetik. Gitxi dira, hatan be, euskal letretan berak bestean idatzi dabenak eta arabere gitxiago hain arlo desbardinak jorratu edo landu dabezanak: antzerkiak, olerkiak, ipuinak, artikulua, itzulpenak, abestiak, kronikak... Luzaroan, ostera, ekarri horren zati txiki bat baino ez genduan ezagutzen, batez be *Abarrak* izeneko liburuari esker, behin baino gehiagotan argitara emon dana aldi desbardinetan, osorik zein zatika, bizkaieraz zein gipuzkeraz. Cogoratu daigun, bide batez, horixe dala egilea bizi zala argitaratu zan liburu bakarra (1918an kaleratu zan, hain zuzen be). Horraitino, zentzu horretan aurre-rapausuak emon dira eta daborduko beste lan batzuk be argia ikusi dabela esan geinke, ezelako duda barik idazlea hobeto eza-gutzeko aukera emon deuskuenak¹. Baina ez bakarrik idazlea

¹ *Abarrak* liburuari *Bigarrenko Abarrak* izeneko bildumak jarraitu eutsan 1930ean, eta bakotxaren aldian-aldiko argitalpen desbardinak. Harik aurrera, Labayru lkastegiak beste liburu batzuk argitaratu ditu Kirikiñok *Euzkadi* egunkarian idatziko hainbat artikulugaz, guztia Javier Preak egin dauen bilketa lan itzelari esker. Hona izenburu guztiak, *Egunekoa* (1981), *Edo geuk edo iñok ez. Euskerearen alde* (1984), *Guda Nagusia. 1914-1918* (1989), eta *Aberriaren alde. Artikulu politikoak* (2005).

bera, ezpada ze historia, giro eta kultura konkretu eta berezi bat.

Oraingo honetan, *Euzkadi*² egunerokoan idatzi eban itzelezko lanaren lagin bat baino ez dakargu, guztira larogeta hamasei artikulugaz osotuta eta Javier Perea kirikiñozaleak aspaldi hasi eban billketa lan bati erantzuten deutsana. Antzeko lanetan askotan jazoten dan lez, honetan be idatzi guztien artean aukera egitea ez zan lar erraza izan, hain eremu zabala hartzerakoan zalantza ugari sortzen dalako: zein aukeratu, zein ez, zein zatika...

Edozelan be, oso lagin koloretsua ikusi geinke, ondo hautua. Gaiak ugariak dira, batzuetan batak besteagaz zerikusirik ez daukienak, itxura baten behintzat. Idazlearen umorea, nekaezintasuna eta euskalzaletasuna edonon barruntau geinke, baina. Ekina-ren indarra ekinaz neurtzen dala dinosku esaera zaharrak. Beharbada egia dinoan ala ez tematzen hastea hutsaren hurrengoa litzateke. Seguruenik inora eroango ez gindukezan ataza izango geunke. Baina dana dala, hurrengo orrialdeetara dakargun idazki bildunatxo honi erreparau ezkeru, Kirikiñok egin eban lanaren adierazgarri ezin argiagoa dala esan geinke hori esaeraori.

Hamezan, guztion gozamenerako, Ebaristo Bustintza Lasuen *Kirikiñok Euzkadi* egunerokoan idatziko hainbat artikulu, 1913an bertan idazten hasi zanetik 1928an zeregin hori itxi eban arte doazenak, hil aurretxitik.

Ebaristo Bustintza Lasuen *Kirikiño* (1866-1929)

Ebaristo Bustintza Lasuen idazlea *Kirikiño* gatzizenagaz ezagutu izan dogu gehiago euskal literaturaren historian. 1866ko urriaren 26an jaio zan Bízkaiko Mañaria herrian. Jaiotetxea *Etzanoa* izenekoa izan eban, baina zazpi urte eukazanean aitak herriko kale berean dagoan *Zumelaga* etxea erosi eta haraxe joan zan familia osoa.

² *Euzkadi* egunerokoa 1913ko zezeilaren 1ean sortu zan.

Lehenengo mailako ikasketak Mañarian bertan egin zituan eta gero Durangon. Hamabi urte zituala, aitaren ogibideak Albacetera daroaz bustintzatarrak, osabarenera (Almansa herrira). Hantxe egingo dauz batxiler-mailako ikasketak. Gazte argia, zuhurra eta adimentsua ei zan. Hamazazpi urtegaz Madrilera joan eta ikasketak han amaitu zituan. Halan, Zientzietako Fakultadean Fisika eta Matematikako ikasketak egin ebazan. Lizentziatura aitamenik gorenekoagaz lortu eban. Lizentziau ostean Siguenzan jardun eban matematika irakasten.

Denporaldi luzean Euskal Herritik kanpo bizi arren, baina, ez eban bere jaioterria inoiz ahaztu. Gero eta hurrago eta bereago sentitzen eban. Almansan igaroten zituan oporraldi batzuetan Resurrección María de Azkueren *Euskal Izkindea* (1891) liburua eskuartera heldu jakon eta harik aurrera bizitza osoa euskeragaz lotuko dau bete-bete. Hasiera baten *Euskalzale* aldizkarirako (1897-1899) lantxoak bialtzen ebazan aldian-aldian. Hantxe argitaratu zan, hatan be, bere lehenengo idazlan ezaguna, "Zerutar bat" izenekoa.

1901ean Bilbora etorri zan, Azkuek hainbat biderrez halan eskatu eutsan lez. Zentzu horretan bere cremura hurreratzeko akulu bihurtu zan. Izan be, Azkuek baekian Almansan egoan gazte harek euskerari zer emon ugari eukala eta bere ingurumarian egotea gura eban. Halan, itzuli zanetik Bilbo eta Mañaria artean emon zituan bere bizitzako egun guztiak.

1899ko abenduaren 24an *Euskalzale* astekariaren azken alea argitaratu zan, Azkueren zuzendaritzapean sortuko aldizkaria. Euskerazko prensan Azkue izan zan duda barik aitzindari nagusia, beste arlo batzuetan lez. Helburuak eta asmoak ondo argi zituan eta handik gitxira, 1902an hain zuzen be, agintarien oztopo bat edo beste gainditu ostean, *Ibaizabal* izeneko astekari barria sortu eban. Kirikiño izentau eban hango zuzendari.

1909ko irailaren 25ean Basili Bustintza Ozerin bere lobeagaz ezkondu zan eta seme-alabarik euki ez eben arren, alkarren ondolan bizi izan ziran beti.

1913ko zezeilaren 1ean *Euzkadi* izeneko egunerokoa sortu zan Bilbon, Euzko Alderdi Jeltzalearen ideologiari lotuta. Bustintza izentau eben orduan be eguneroko harek eukan “Euskal Atala” izenekoaren zuzendari. Eguneroko horretan jardun eban, hatan be, beste hamasei urtean, eten barik, harik eta hil aurretixotik ataza horri itxi eutsan arte. *Euzkadi* egunerokoan idazten hasi zanean egin eban guztiz entzutetsu *Kirikiño* gatxizena, ez lehenago. Aurreko urteetan *Boldro*, *Bloa*, *Mañari*, *Zumelaga* eta beste izen batzuk erabili zituan bere idazkitxoetan.

1928an *Euzkadi* egunerokoan idazteari itxi eta Mañarira itzuli zan atsedean bila. Atsedenaldiak, ostera, ez eban luzaroan iraum, etxe osteko ortuan jausi eta lehendik eukan arterio-eskleroziak jota, 1929ko urtarrilaren 31n hil zan eta. Euskal kazetaritzak ezeze euskal letrak eta gizarteak berak be hutsune handia sumau eben egun haretan, beteteko benetan gatxa izango zana.

Kirikiño, euskal kazetaritzaren historian

Norberak ezagutzen ez dauen eremuetan sartzea eta halanda be garaile ateratzea ez da edozelako erronka. Euskal kazetaritzaren munduan Resurrección M^a de Azkueren eskutik sartu zan Kirikiño. Bien arteko hartuemonan 1896ko urtean hasi zala esan geinke, hondino Siguenzan irakasle egoala.

Hasiera baten, Kirikiñoaren eretxiz kazetaritza arloa bere lan eremutik kanpo geratzen zan. Halanda be, Azkuek baeukan beragan konfiantza berezi bat eta ekinaren ekinez Billora ekartea ezeze kazetari lanetan jartea be lortu eban. Senak esaten eutsan harek gaztearek zeresan asko eukiko ebala euskal gizartean. Eta halantxe izan zan. Lehenengo *Euskalzale* astekarian eta gero *Ibaizabal* izenekoan idatzi eban, aurreratxoago esan dogun moduan.

Astekari biak Azkueren gidaritzapean sortu ziran. Tomás José de Epalza y Palacio³ jaunaren dirulaguntza izan eban egitasmo bietan. *Euskalzale* astekaria izan zan lehena⁴. Euskera hutsean argitaratzen zan, bizkaieraz. Haren aurretik kultura inguruko beste argitalpen bat edo beste izan ziran arren *Euskalzalek* ikutu berezia eukan. Nahi-ta kulturaren inguruko gaiak be jorratu⁵, arlo informatiboak itzelezko garrantzia hartu eban. Eretxi ugari agertzen zan baina baita irudiak, argazkiak, komikiak..., garai haretan hain ohikoa ez zana, azken baten. Astekaria desagertzea arazo administratiboei egotzi lekie. Izan be, 1899ko irailaren 27tik aurrera, Bizkaiko gobernadore zibilak halan aginduta, astekaria euskeraz eta gaztelaniaz argitaratzen hasi zan, zutabe bitan, ezkeraldean euskeraz eta eskoialdean gaztelaniaz. Arazoa ez zan horretan amaitu eta hurrengo hilabetean gobernadoreak astekariari orduko 100 pezetako isuna jarri eutsan, Azkuek eta bere beste hainbat lagunek ordaindu ebena, euren artean Ebaristo Bustintzak. Presinoa handiegia zan, eta Azkueren erronka nagusia euskera hutsezko kazetaritza egitea zan ezkerero, handik gitxira *Euskalzaleren* azken zenbakiak ikusi eban argia.

Corabehera batzuk gainditu ostean, eta Azkuek gura ebanean baino arean berandutxoago, 1902ko urtarrilaren 5ean hain zuzen be, *Ibaizabal* izeneko astekari barria kaleratu zan. Domerkero argitaratzen zan, bizkaieraz eta gipuzkeraz, Ebaristo Bustintzaren zuzendaritzapean. Orduko idatzietan *Bloa* gatxizena erabilen. Oztopoak oztopo, Azkuek argi ikusten eban kazetaritzaren garrantzia ezinbestekoa zala hizkuntzen zabalkunderako eta

³ Tomás José de Epalza y Palacio, Bilboko Bankuaren sortzaileen familiakoa. Bilbotarra, 1854an jaioa. Azkueren beste hainbat egitasmotarako be ipini eban dirua, bien arteko gutuntan argi ikusi leiteken moduan.

⁴ Lehenengo zenbakia 1897ko urtarrilaren 3an atera zan. Ia hiru urteko iraupena izan eban (azken alea 1899ko abenduaren 24an atera zan).

⁵ Antxinako testuak, abestiak, olerkiak, ipuinak eta antzeko gaiak leku berezia eukien astekarian.

biziraupenerako. Astekari horretan Bustintzaren eretxiagaz bat egin eban, batez be ortografia arazoetan. Helburu argia eukan horretarako: ahal zan eta jente gehiago irakurtera hurreratu arazotea, ha lortu ezkeru idaztera be erakarriko zitualakoan. Argitalpenak ez eukan berenbereregiko inprentarik eta hagaitik ez eukan irudi edo argazkirik. Gero eta ikutu informatibo ugariagoa eukan, "Asteko berriak" atalean ikusi leiteken moduan. Garai haretan Sabino Aranaren abertzaletasuna indar eta protagonismo handiagoa hartzen hasi zan. Giro haren eraginez, *Ibaizabal* astekariak be, Bustintza bera gidari zala, Aranaren ideakaz bat egiten eban. Harik aurrera, Bustintza, kazetaritza zereginetan Azkueren eskutik sartu zan arren, hara non Aranaren doktrinaren jarraitzaile itsua bihurtu zan, bai arlo politikoan bai hizkuntza kontuetan. Jarrera horrek Azkuegandik urrinduten joatea ekarriko deutso apurka-apurka. Izan be, Azkuek Aranaren eretxi politikoagaz bat egiten eban arren, euskera gorabeheretan guztiz kontrakoa zan. Bakotzak bide desbardina aukeratu arren, baina, Azkuek begirune berezia euki eutsan Kirikiñori bizi guztian.

Egin-eginean be, Azkueri esker Kirikiñok eskarmentu handia lortu eban kazetaritza arloan, eta batez be horretan jardun eban Bilbora etorri zanetik hil zan arte. Sabino Arana hil osteko prensan be itzelezko garrantzia hartu eban, *Bizkaitarra* astekarian, berbarako. 1909ko urtarrilaren 2an kaleratu zan lehenengo zenbakia eta 1913ra arte iraun eban. Argitalpen haretan idatziko lanetan be bere ideologia begibistakoa zan: sabindarra, bete-betean, maila politikoan zein hizkuntza arloan. Abertzaleentzat euskera eta abertzaletasuna bata besteagaz lotuta bajoiazan, Kirikiñok doktrina horixe berori finkatzea lortu eban hainbat urtetan.

1913an *Bizkaitarra* astekariak bere bukaera ikusi eban arren, urte haretan bertan prensa arloan EAJK izango eban egitasmorik handiena sortu zan, *Euzkadi* egunerokoa, hatan be. Bilboko eta Euskal Herri osoko egunkaririk garrantzitsuenetakoa izatera heldu zan. Urterik onenetan egunkari abertzale honek 10.000 ale kaleratzea lortu eban. Egunkariaren arrakastarik han-

diena 1919tik Primo de Riveraren diktaduraren garaira arte luzatzen dala esan geinke, eta arrakasta horren atzean Kirikiño egoan, inongo duda barik. Bera zan euskal atalaren zuzendaria eta arduraduna, eta sortu zanetik atxina eten barik idazten jardun eban. Horrezaz ganera, lan ikaragarria egin eban idazle edota euskaraz idatzi gura eban abertzale guztiak erakarteko, egunkariaren lehenengo zenbakian bertan (1913-2-1) azaltzen dan moduan:

*“Etorri on ba euzkerea maite dozuben euzkotar guzti-
jen emengo atiak zabalik daukozubez euzkeraz idazteko.”*

Egin-eginean be, herrietatik informazino iturri ugari lortu eta barriemoile sare iraunkorra sortu eban. Euskal prensak ez eukan sekreturik beretzat eta ondo baino hobeto ekian herrietako informazinoari garrantzi eta leku berezia emon behar jakola. Egunkariaren euskerazko atala “Egunekua” izenagaz agertzen zan eta handik gitxira beste atal bat be azalduko da euskeraz, “Euzko Abendaren Elez” izenagaz. Horren ardura guztia izan eban harik eta hil zan arte. Handik aurrera Nikolas Ormaetxea *Orixe* idazleak ordezkatu eban lehenengo eta haren ostean Esteban Urkiaga *Lauaxetak*. Berez Orixe 1927an hasi zan *Euzkadi* egunkarian idazten, euskal atalaren arduradun nagusia bihurtu orduko. Halanda be, kazetaritzan baino beste arlo batzuetan errastu argi-
goa itxi ei eban, literaturan eta gai mistikoetan esaterako. 1931tik aurrera Lauaxetak hartu eban euskal atalaren zuzendaritza, eta aurreko aitzindari bien lana borobildu eta osotu.

Egunkariaren arrakasta bizi zan bitartean, abertzaleen lehenengo euskera hutsezko aldizkaria be sortu eban Euzkeltzale Bazkunak⁶, *Euzko-Deya*⁷ izenekoa, *Euzkadi* egunkariaren lokaletan

⁶ Euzkeltzale Bazkuna 1910eko irailean sortu zan, euskercaren alde lan egiteko asmoz.

⁷ *Euzko-Deya* aldizkariak aro bi izan zituan. 1916an sortu zan eta 1919an desagertu. Barrero be hurrengo urtean agertu arren Primo de Riveraren diktaduragaz batera betiko isildu zan (1923an).

bertan inprimitzen zana. Haren gidaria be Kirikiño izan zan, eta hamabostekari haretan “Barriketak” izeneko ataltxoak idazten eban, alkarrizketa eran egituratuta.

Berez gure historian garrantzitsua eta sakona dan gai honi azaleko errepassoa emon deusagun arren, argi ikusi geinke euskal kazetaritzan berebiziko garrantzia euki ebala Ebaristo Bustintza Kirikiño idazleak. Itzal handiko maisu eta eredu bi izan zituan horretarako, duda barik: Azkue hasiera baten eta handik urte batzuetara Sabino Arana. Horraitino, bere bide propioa eta berezia egitea lortu eban kazetaritza arloan; hagaitik, garaiko euskal presnan askorentzat bera heldu zan “maisu” izatera.

Kirikiño: hizkuntza idatziaren eredu bat finkatzen

Euskalzale astekarian idazten hasi zanetik *Euzkadi* egunkariaren euskal atalaren ardura zuzena hartu ebanera Kirikiñoengan bilakaera argia barruntau geinke.

Argi dago hasiera baten ez ebala bere burua kazetari lanetan ikusten baina Azkueren ekiteak ondorio zuzenak izan zituan. Harek irakatsi eutsazan kazetaritza arloko trikimailuak eta bere buruagan konfiantza eukiten. Euskera kontuetan be Azkuek Kirikiñooren eretxia aintzat hartzen eban, batez be ortografia arloan. *Ibaizabal* astekariaren garaian bertan, baina, Azkuegandik zeozelan urrindu eta Aranaren ideologiarantza hurreratuko da apurka-apurka. Harik aurrera aldaketa horrek hizkuntza idatziaren ereduak be eragin argia eukiko dau⁸.

⁸ “Zelan eta noz gertatu zan eboluzino hori? Aldaketea, antza, aldizkarietan behintzat, 1906. urtean datatu leiteke, hau da, Azkuek *Ibaizabal* aldizkaria itxi eta atzerrira joan ondoren, Kirikiño abertzaletasunaren munduan bete-betean sartzen danean”, dinosku César Gallastegik, 2005ean Labayru Ikastegiak argitaratuko *Aberriaren alde. Artikulu politikoak* liburuaren sarreran.

Berbakera herrikoia, argia eta zuzena erabiltetik, Aranaren euskera “garbia” erabiltera igaro zan, aranisten bozeroale eta sinbolo bihurtu arte.

Izan be, bere eretxian, posible zan euskera garbian idaztea, hau da, erderazko berbak kenduta eta hareen ordez berba barriak erabilia. Uste horrek, oster, arerioak be irabazi arazo eutsazan, euskera edo idazkera eredu desbardin biren aurrean batzuk bataren alde eta besteak bestearen alde egozalako. Hortik etozan, berbarako, Gregorio Mujikagaz⁹ izan zituan eztabaida eta matraka gogorrak. Mujika euskera erraza erabiltzearen aldekoa zan, ahalik eta irakurle gehiago lortzeko ezinbestekotzat joten ebalako. Eredu haxe izango da, hatan be, 1921ean *Argia* aldizkariak proponiduko dauen estiloa.

Bigarren idazteredua, *Euzkadi* egunerokoarena, Kirikiñok defendiduko dau, hau da, Aranaren ereduari jarraituz “euskera garbian” idaztearen aldekoa.

Begien bistakoa da hizkuntza eredu bat finkatzea lortu ebalak euskal letretan eta kazetaritzan, baina halanda be zuhurtasunez jokatu eban eta ez zan beste aranatar eskolako batzuen antzera gehiegikerietan jausi. Baekian nogana heldu, nori zuzendu eta nor “bereganatu” behar eban: herria eta herritarrak. Hagaitik, berba barriak edo neologismoak neurritz erabili zituan eta horreen esanahiaren argitasunak parra-parra eskiniko deutzaz irakurleari teknika desbardinakaz¹⁰. Hain zuzen be, berba barri gehienak azaldu egingo dauz, herria eta irakurlea eurekaz ohitu arte, erabiliaren erabiliaz ezagun egin dakiozan. Euskera “lohia, mordoila” eta euskera garbiaren arteko oreka berezia lortu eban. Ondo ekian

⁹ Gregorio Mujika (Ormaiztegin jaio 1882an eta Donostian hil zan 1931n). Euskal idazlea. *Jose M^a de Oiarbide* gatzizenagaz be ezaguna. *Euskalerraren Alde* aldizkariko sortzaile eta zuzendari. Beste aldizkari askotako kolaboratzailea. Bere lanik aitagarrienetakoa *Pernando Amezketarra* (1925).

¹⁰ Teknika edo baliabide horreek argi azaltzen dauz César Callastegik *Aberriaren alde*. *Artikulu politikoak* liburuaren sarreran (35-39 orrialdeak).

jakin be aldaketa zorrotzegia izango zala ha hizkuntza eredu erabiltea egun batetik bestera. “*Agaitik, ondiño euzkera zeatza artzeko bigun edo makal dagozan euzkaldunei euzkera erraza, euzkera ariña, euzkera loa, euzkera mordoilla emongo jake izparringi onetan iruntsi al izan dagien*” inoan egunkariko artikulua baten (*Euzkadi*, 1913-II-10).

Herritarrentzako idatzi eban gehienbat eta herritarrak euskeraz irakurten zaletu eitezan gura eban, irakurri ezker idazteko be gai izango zirala-ta. Hagaitik, ez eban gura inor ikaratzetik hainbat berba barri ezezagun erabilia. Aranaren ideologiaren jarraitzaile sutsua izan arren, herritarrentzat zein euskaldun jantzi-entzat idatzi eban, jentetza handi batek *irakasle, maisu* edota *apostolu* deitzera heldu arte. Urte askotako lanaren atarramendua.

Artikuluen inguruan

Ondoko orrietara dakarguzan idatzi edo artikuluei erreparau ezker, gogoratu daigun ezer baino lehen Javier Perek egin dako aukeraketa bati erantzuten deusiela bete-betean eta dagoan horretan gorde ezeze errespetau be gura izan dogula edizino honetan. Ez da inongo aldaketarik proponidu eta arabere gixiago egin gure aldetik zentzu horretan. Bere erispidea gorde da kasu guztietan. Aukeratu diran larogeta hamasei artikuluen artean badira zazpi jatorrizko testuan izenburu barik azaltzen ziranak eta Javier Perek berak proponidu ebanagaz azalduko jakuz:

<i>Ezetara be ezin ikusi</i>	1913-02-22
<i>Ostiko-pelota eta zezenketak</i>	1913-03-19
<i>Udabarria</i>	1913-03-22
<i>Irundarrak eta bilbotarrak parra gelditu</i>	1913-03-23
<i>Futbola zelan jokatu</i>	1913-03-24
<i>Udabarriaren gorabeherak</i>	1913-04-05
<i>Ez gara arrano jai</i>	1914-03-17

Edozein kasutan be, zazpiotan, Pereak berak dinoan lez, testutik bertatik hartuta dagoz izenbururako berbak. Ohartu bedi irakurlea hasierako urte bietako idatziak dirala izenburu barik agertuko diranak. Ganerakoetan jatorrizkoan azaltzen dana jarri dogu.

Artikulu bilketa hau aspalditxo hasi ei eban Pereak, 1977an, hain zuzen be. Bere esanetan, urte haretan, pazko astean, Burgos aldean beste abade batzukaz bazkaltzen egoala, Iñaki Goikoetxea jesuitak esan ei eutsan: "Zuk, Xabier, Mañarian astia ugari dozun ezkerro, zergaitik ez dozuz batzen Kirikiñoren idazkiak, batez ere *Euzkadi* izparringian argitaldu ziranak?"

Eta halantxe ekin ei eutsan buru-belarri ataza horri: "Andik laster, 1977ko bagillearen 23an asi nintzan bilduma au egiten Lazkaon. Eta 1980ko urrillearen 16an amaitu neban guztiz Mañarian".

Harik aurrera, eta Javier Percaren bilketa lanari esker, Labayru Ikastegiak liburu bat baino gehiago argitaratu ahal izan ditu. Edozein kasutan, Kirikiñok hain lan zabala eta ugaria egin eban lez, bazan garaia argia ikusi egien gaurko honetan dakarguzan idatziok be. Artikulu bakotxak argitaratu zan eguneko erreferentzia daroa behealdean. Lehenengoa 1913ko zezeilaren 22koa dogu eta azkena 1928ko abuztuaren 3koa. Gogoratu daigun hasierako data horretan *Euzkadi* egunerokoa sortu barri egoala. Azken idatziaren data, oster, Kirikiño osasunez nahiko makal egoten hasi zanezkoari jagoko. Handik gitxira idazteari itxi eta Mañarira bueltauko da idazlea. Bertan emon zituan bere azken egunak, 1929ko urtarrilaren 31n hil zan arte.

Urte bakotxetik aukeratu diran idatzien kopuruari jagokonez, gorabeherak azalduko jakuz, baina gehienez urteko hamabi artikulu agertuko dira (1921ean, hain zuzen be) eta gitxienez bi (1928an). 1924 eta 1925 urteetako idatzirik, baina, ez da azaltzen. Halanda be, datu honek egunkariaren historiagaz zerikusi zuzena dauka.

Egunkariaren urterik garrantzitsuenak produkzioaren zein zabalkundearen aldetik, harenbaten, 1913tik 1921era izan zira-

la esan geinke. Horraitino, arrakasta garai horren ostean, gauzak okertzen joan ziran. Halan, 1922ko urtarrilaren 15etik aurrera, egunkaria sei hilabetez kaleratu barik egon zan langileen grebagaitik. Hurrengo urtean, 1923an, Primo de Riveraren diktadurak galarazo egin eban egunkarian euskera agertzea. Egoera haren aurrean, Kirikiño gaztelaniaz idazten hasi zan, harik eta 1926an debekua zeozer baretu zan arte. Apurka-apurka berrero hasi zan euskeraz idazten, zentsurarako guzti-guztia itzuli egin behar izaten eban arren. Honegaz guztionegaz zera esan gura dogu: 1923ko urritik 1926ko maiatzaren 3ra arte Kirikiño gaztelaniaz idaztera behartuta egoala.

Bilduma honetan ikusi geinkezan gaiak era askotakoak doguz. Ez dago, hagaitik, gai nagusi baten inguruan kokatzerik edo sartzerik, ia danetarik ikusi geinkelako bertan. Eta ugaritasun horretan guztian agiri-agirian azaltzen jaku idazlearen estiloa, gatza, indarra eta unorea. Trebea zan benetan edozer gauza komuniketan, adierazoten eta irakurleaganaino heltzen. Baekian inork baino hobeto horretarako zein teknika eta zein baliabide erabili.

Gaiak, hagaitik, zabalak eta ugariak ditugu. Ikusi daigun gitxi gorabehera zelan jatorkuzan gaiok:

Urtea	Idatzi kopurua	Gaiak
1913	10	Eguraldiaren gorabeherak, kirola, herrietako barriak...
1914	11	Kirola, herrietako barriak, gizarte arazoak, kultura...
1915	11	Euskera, herrietako barriak, erlijinoa, gizarte arazoak, kultura...
1916	4	Kultura, kirola, herrietako barriak...
1917	7	Kultura, erlijinoa, herrietako barriak, zerbitzuak..
1918	4	Euskera, gertaerak, erlijinoa...

1919	3	Kultura, politika, herrietako barriak...
1920	11	Gizarte arazoak, herrietako barriak, kronikak, kultura...
1921	12	Erlijinoa, kronikak, santuen bizitzak, kontakizunak...
1922	6	Euskera, kontakizunak, eretxia...
1923	7	Kultura, kirola, kronikak...
1924	0	
1925	0	
1926	4	Erlijinoa eta kontakizunak
1927	4	Zerbitzuak, erlijinoa, astronomia, kontakizuna
1928	2	Kontakizunak eta kronikak

Esana da bihotzaren giltza mihina dala eta Kirikiñok mihin zolia ezeze irudimen bizkorra be baeukan. Horrezaz ganera, egi ten eban guztian bihotza jarten eban. Egin-eginean be, esan geinke horixe izan zala bere arrakastaren giltza. Zentzu horretan, gogora ekarri daigun Mikel Zarate zanak idazle honen inguruan esan ei ebana: "Kirikiño izan zan herriari bihotza ikutu eutsan idazlea". Izan be, lehentxoago esan dogun moduan, herria eta herritarrak eukazan buruan eta bihotzean. Eta hori danori artikuluetan ezin hobeto barruntau leiteke, borborrean dago edonon, irakurleak ikusiko dauen lez, besteak beste, estilo zuzena, bizia eta argia darabilenean.

Gauza anekdotikoa dan arren, animalien sinbologian kirikiñoak elementu nekaezina, iraunkorra eta saiatua adierazoten dau, persona baten nekaezintasuna estilo bati eusteko zein idea bat defendidu edo babesteko orduan. Kuriosoa dan arren, haze ondo adierazoten dauen sinbologia horrek Kirikiño idazlearen nortasuna! Ekinaren indarra idazleak erabilen lemarik nagusienetako bat zala emoten dau.

Artikuluetakoa aitamen bereziak

Behin baino gehiagotan aitatu dogu Kirikiñok herrietako barriak egunkarian sartzeari garrantzi berezia emoten eutsala. Zentzu horretan urgazle edota barriemoile sare iraunkor bat sortzea lortu eban. Asko ziran pitean-pitean handik edo hemendik idazten ebenak egunkarirako eta horrek aberastu baino ez eban egiten haren edukia eta mamia. Baina horrezaz gain, abertzaleak idaztera bultzatu zituan euskeraren alde. Batek baino gehiagok Kirikiñori zor eutsan euskeraz idazten eta irakurten hastea. Halanda ze, ekinaren ekinez, akulari lana egitearen ondorioz euskal idazle batzuk eta irakurle ugari sortu ziran berari esker.

Garai haretako ohiturari jarraituz, aitamen horreek askotan gatzizen baten bitartez jatorkuz. Halanda be, batzuk ezagunak egingo jakuz. Adibidez: *Batxi* (Juan Bautista Bilbao Elgezabal, 1887-1916), *Larreko* (Pablo Fermin Irigarai Goizueta, 1869-1949), *Jose M^a de Oiarbide* (Gregorio Mujika, 1882-1931), *Artibai* (Jose Ituarte, ondarrutarra, M. Ziarsolo *Abeletxerekin* batera *Euzkoren zuzendaritzan* ibilia), *Errizale* (Juan Bautista Eguzkitza, 1875-1939)...

Asko dira, baina, artikuluetan azaltzen diran gatzizenak. Bartzuetan barria nondik jatorkun be esango deusku egileak: Zumaia-ko *Neu Naiz*, *Katarra*, *Kanpantorre*, *Aizarrota*, *Txirgesaiztia*, etab.

Beste alde batetik, aitamen bat edo beste, ostera, gatzizen barik agertuko jaku. Berbarako: Imanol Arriandiaga edo Koldobika Elcizalde, biak Sabino Aranaren eskolakoak eta bere jarraitzaile sutsuak.

Antzean jazoten da artea edo kulturaren inguruko barriakaz. Askotarrik agertzen ez jakun arren, garai haretako persona ezagun batzuk aitatzten ditu, batez be margo erakusketak eta antzekoen barri emoten dauenean. Hor ditugu, berbarako, Aurelio Arteta (1879-1940), Angel Cabanas Oteiza (datuen arabera 1884an jaio eta 1964an hil zala emoten dau), Mauricio Flores Kaperotxipi (1901-1997), Txomin Landajo, Luken Landaburu

edota Erroman Goikoetxea. Persona ezagunen artean Kepa Enbeita (1878-1942) bertsolari ospetsua be aitatzen deusku Kirikiñok.

Aitamen horreekaz batera, halanda be, garaiko herritar ezezagunak edo be aitatzen ditu egileak, bakotxari bere zeozelako protagonismoa emonda, batez be herrietako barriak diranean. Lantzean behin herritarren aitamenen kasuan be gatzizenak azaltzen dira, eta sarritan umorea agiri-agirian geratzen da: Beketzeko *Petornila*, Frantzisko *Samaluze*, Perrando Setimo *Surrandi*, etab.

Idazle, artista, margolari edo persona ezagunak testuan bertan azaldu izan diranean, batzuetan oin-oharretan argibide bat edo beste emon dogu haren inguruan. Ahal izan dogunetan egin dogu hori (gatzizenen erabilerak hori gatz bihurtzen dauelako gura baino gehiagotan) edo ezagunenak izan leitekezanak eretxi deusagunean.

Gure edizinorako erispideak

Beste garai bateko testu bat egumeratzeko orduan gura ez dala be beti sortzen dira zalantzak: zer aldatu, zer itxi datorren horretan, zer egokitu edo, halan behar izan ezker, zer osotu. Kasu honetan be ia danetik egin behar izan dogu. Halanda be, egia da urteak aurrera joan ahala, zalantza barriak sortzen diran ginoan, beste batzuk ostera argitzen joakuzala. Zentzu horretan esan behar dogu edizino honetan Labayru Ikastegiak azken urteotan argitara emon dituan estilo liburuak erabili dirala eredu lez: *Bizkai euskeraren jarraibide liburua. Lehenengo pausuk* (2001) eta *Bizkai euskeraren jarraibide liburua. Bigarren pausuk* (2005), eta material hori eukiteak argibide ugari emon deuskuz. Bi liburu horreekaz batera *Labayru Hiztegia* be sano lagungarri izan dogu.

Lehenengo eta behin hasierako puntuazino markak kendu dira, gaurko sistemaren arabera ekarrita. Orokorrean puntuazino bera be egokitu behar izan dogu lantzean behin, nahiko ilun eretxi deusagunetan esaldiari edo testuari.

Horrezaz gain egin doguzan aldaketan artean ugarienak grafia arlokoak izan dira, gaurko sistemara ekarten ahalegindu gara-lako. Arlo honetan hainbat eta hainbat adibide izan geinkez: *piloso*>*filosofo*, *parola*>*farola*, *aizkide*>*adiskide*, *ivan*>*izan*, *bixi*>*bizi*, *ixugarri*>*izugarri*, *onek*>*honek*, *saltzallia*>*saltzailea*, *iñok*>*inork*, *geyago*>*gehiago*, *geldoki*>*geltoki*...

Beste alde batetik, garai haretan idatziko testuetan hain sarritan agertzen ziran berben amaierako fonetismoak be kentzeko joera izan dogu, gaurko era estandarreara ekarrita berbok: *txartuago*>*txartoago*, *bakia*>*bakea*, *kaltia*>*kaltea*, *orduban*>*orduan*, *notezija*>*notizia*, *jabia*>*jabea*, *astija*>*astia*...

Apostrofeak be kendu egin dira, horretan be gaurko sistemari jarraituta: *ba'dogu*>*badogu*, *ba'litz*>*balitz*...

Ezezko formetan, ostera, berbak banandu egin dira: *eztaku*-*gu*>*ez dakigu*, *ezkuaz*>*ez goaz*, *eztago*>*ez dago*, *enayoek*>*ez naioek*...

Deklinabideari jagokonez, kasu batzuetan idazlearen formari eutsi jako, forma bitan agertu arren. Hori gertatu da adibidez datibo pluralean eta ergatibo pluralean, ai/ei amaierak lehenengo kasuan eta ak/ek bigarrenean darabilzanean. Jatorrizkoan agertu dan forma gorde da edizino honetan be: *politai*>*politai*, *baserritarrai*>*baserritarrai*, *mutillei*>*mutilei*, *dantzarijei*>*dantzarijei*, *gustijek*>*guztiek*, *ekanduek*>*ekanduek*, *irlandarrak*>*irlandarrak*. Halanda be, kasuren baten datibo pluralaren marka lez -ari/-eri agertu da eta horreetan aldatu egin da, forma hedatuagoetara eroteko: *gaztieri*>*gazteei*, *euroeri*>*eurei*...

Deklinabide arloan aitatu daigun batzuetan osotu eta egokitu be egin behar izan dogula formaren bat edo beste: *orretzaz*>*horrezaz*, *orixek*>*horrexek*, *Gametxon*>*Gametxoren*, *onekaz*>*honeekaz*, *otzen-otzaz*>*hotzaren hotzaz*, *gobnadorian*>*gobnadorearen*, *semen bat*>*semeren bat*, *irudijantzat*>*irudiarentzat*... Horren haritik, atzizki-loturea egin behar izan da beste kasu batzuetan be, adibidez, datak gaurko eruedetara ekarterakoan: *Otsalla 20*>*otsailaren 20*, *Epalla 21*>*epailaren 21*...

Artikuluetan azaltzen diran hainbat eta hainbat berba ez dira forma bakar edo modu bateratuan agertzen, garaiko estiloari jarraituta: *tanto/tantu*, *papel/paper*, *didar/deadar*, *imini/ipini*, *noz/noiz*, *ukutu/ikutu*... Baina edizino honetarako esan daigun orokorrean, ez beti, ordea, forma jagiak hobetsi doguzala, normalizaziorantz bidea eginez. Ganera, aurreko beste edizino batzuetan egin danetik hondino aurrerapausu bat gehiago emon dogu eta berba horreek oin-oharretatik be kendu egin doguz, argibideak baino beharbada iluntasun edota zalantza gehiago sortuko ebezalakoan. Zorionez jatorrizko testuak kontsultagai ditugun ezkerero, edozein unetan izan geinkez esku artean, eta bien bitartean, edizino eguneratuak neurri handi baten forma estandarra zabaltzeko zubi izan behar dabela uste dogu. Halanda ze, bide honi heldu deutsagu gehienbat kasu honetan.

Hagaitik, forma bateratuak hobetsi doguz askotan, modu horretan bizkai euskeraren inguruan egon leitekezan zalantzak ugaritu beharrean argibideak emongo genduzalakoan. Gure berbakera zabaldu gura badogu, gaur egun zelan idatzi beharko geunken berba bat edo beste erakutsi beharko leuke liburuak eta horretan forma bikotxak agertzeak dudak sortu leikez askotan. Gehienetan, ba, forma estandarrera jo dogu. Hainbat eta hainbat kasu izan dira eta hagaitik oin-oharretan jartzeak be irakurketa astundu egingo ebalakoan hortik kentzea ebatzi dogu. Adibide ugari aurkitu doguz: *tanto>tantu*, *noz>noiz*, *papel>paper*, *didar>deadar*, *atara>atera*, *iratzartu>izartu*, *jabon>jagon*, *ukutu>ikutu*, *jende>jente* ...

Horraitino, kasu batzuetan testuan azaltzen diran forma batzuri eutsi egin jake, egilearen erregistroaren erakusgarri diralakoan ezeze tradizioan be lekua euki dabelako, gaur egun joera nagusia beste bat izan airen. Adibidez: *aina*, *jabe* ...

Kasuren baten tradizioari eutsi jako eta aldaketaren bat proposidu da: *agintze>aginte*.

Gentilizioen tratametuari jagokonez, esan daigun batzuetan erabilera zuzena izan danean itxi egin dala, aldi bateko tradizioa

erakusten dauelako. Beste batzuetan, ostera, adjektibo moduan azaldu danetan aldatu egin da. Adibidez: *ingelandar kirola* baina *joko hau ingelesa da*. Beste batzuetan tradizioari eutsi egin jako bai gentilizioetan eta bai herrialdeetako izenetan eta datozen moduan itxi dira, guztietan oin-oharretan azalduta esanahia: *Doitxe, Laterri Batza...* Aldaketa fonetikoak baino egon ez direnetan, formak eguneratu egin doguz: *Parantze>Frantzia, Noruega>Norvegia, Suezia>Suedia...*

Horrezaz aparte, egon da gentilizio bat edo beste egokitu behar izan dana be bai, Euskaltzaindiaren gomendioen arabera: *zamudioar>zamudioztar, galdakaotar>galdakoztar, lekeitioar>lekeitiar...*

Hiztegiari jagokonez, egileak berbaren baten esanahia testuan bertan emon dauenetan oin-oharretara eroan dogu, testua irakurtzea astunegi egin ez daiten. Horraitino, lantzean behin berba baten esanahia pitean-pitean argitu gura izan dauela idazleak konturatu gara. Kasu horretan lehenengoz agertzen danean baino ez dogu oin-oharretan ipini. Gainontzekoetan testutik bertatik kendu egin dogu, beste barik, oin-oharretan berrero horren argitasunik emon beharrean.

Batzuetan berba bat baino esaldi edo esaera baten itzulpena emoten deusku idazleak. Halako kasuetan be oin-oharretara erotan dogu azalpen hori.

Nahi-ta jatorrizko testuan modu baten agertu, edizino honetarako aldatzea egokitzat jo dogunetan, oin-oharretan egoera hori adierazota itxi dogu. Kasu horretan *J.t.* laburdura eta ondoan jatorrizko testuan datorren forma ipini dogu, aldaketa zein dan argi ikusi daiten.

Azkenik esan esaldiren baten aditza edo falta zala igarri ezkerro; osotu egin behar izan dogula hori esaldiori, osterantzean aitu ten ez zalakoan.

Izango dira seguruenik hemen aitatu ez arren aldaketa gehiago be egin doguzanak. Izango dira akaso egin behar izan genduzanak eta ostera egin ez doguzanak. Egokitzapenak egitea ez da

inondik eta inora erraza. Baina ebatziak zentzu batean edo beste-an hartu beharra egon danean ahal izan dogun eta ondoen jokatzen ahalegindu gara, koherentziaz eta argitasunaren alde, horretarako Labayru Ikastegiaren Hizkuntza Arloaren laguntza eta aholkularitza ezinbestekoak izan dirala.

Bibliografia

- ALTZIBAR, Xabier. "Kirikiño kazetaria, I. Mundu-Gerraren kontakari" in *Gerra eta literatura (1914-1944)*. (Oihenart: cuadernos de lengua y literatura, 14). Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1997, 9-33 or.
- "Lauaxeta eta *Euzkadi* egunkariaren Euskal Atala" in *Eusker-a*. 50. libk. (2005-2), 559-626 or.
- ARANA MARTIJA, Jose Antonio. "Resurrección María Azkue" in *Bidegileak 5*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1993.
- BUSTINTZA, Ebaristo [Kirikiño]. *Egunekoa*. Bilbao: Labayru Ikastegia; Bizkaiko Aurrezki Kutxa, 1981.
- *Edo geuk edo ñok ez*. Bilbao: Labayru Ikastegia; Bizkaiko Aurrezki Kutxa, 1984.
- *Guda Nagusia 1914-1918*. Bilbao: Labayru Ikastegia; Bizkaiko Aurrezki Kutxa, 1989.
- *Abarrak*. Bilbao: Labayru Ikastegia; Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa, 2005.
- *Aberriaren alde. Artikulu politikoak*. Bilbao: Labayru Ikastegia; Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa, 2005.
- DÍAZ NOCI, Javier. *Euskal kazetaritzaren historia*. Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1999, in www.eusko-ikaskuntza.org.
- *Euskal prentsaren sorrera eta garapena (1834-1939)* in Cuadernos de sección. Medios de comunicación, 5 zenb. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1995.
- "Euskal informazio-kazetaritza abertzalea: *Euzkadi* eta *Euzko* (1913-1939)" in *Uztaro*. 15. zk. 1995.

- “Gerra aurreko kazetaritza eta hizkuntz-ereduak” in *Anuario del Seminario Julio de Urquijo*. Donostia, 1994, 791-835 or.
- *Historia del periodismo en lengua vasca (siglos XVIII-XX)*, 2003, in www.ehu.es/diaz-noci/inedit/hisprens.pdf.
- “Periodismo en euskera” in *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Diccionario Enciclopédico Vasco*. XXXVII libk. Donostia: Auñamendi, 1994, 521-535 or.
- ETXEBARRIA, Igone. “Ebaristo Bustintza Lasuen Kirikiño” in *Bidegileak 4*. Vitoria-Gasteiz: Publizitate Zerbitzua, 1992.
- RAMÍREZ DE LA PISCINA, Txema. *Kazetari-lana Euskal Herrian: interpretaziorako eta espezializaziorako abiadurak*. Bilbao: UEU, 1998.
- VILLASANTE, Luis. *Historia de la literatura vasca*. Burgos: Ed. Aranzazu, 1979.

www.ehu.es/diaz-noci

www.eusko-ikaskuntza.org/ephtm

www.hiru.com/euskal_literatura/euskal_literatura_02030.html

www.susa-literatura.com

www.zubitegia.armiarma.com

Miren Atutxa

BIZKAIA BEGIETAN
(1913-1928)

EZETARA BE EZIN IKUSI

Eguraldiak halan-holangoak dabilz.

Txarrak dirala esaten azartuko ete gara? Ez horraitino.

Alde batetik, ez dakigu zer dan ona eta zer dan txarra eguraldian, geuk txartzat euki arren onik onena izan leikigu eta.

Beste aldetik, txarra dala esaten badogu gogor urtengo jakuz zarataka ea zer darabilgun, aterki-saltzaileak, oinetako-saltzaileak eta... ardao-saltzaileak; eurentzat euria ederto baino edertoago dator ba-ta.

Honeekaz batera, haserre bizian jarriko litxakiguz tximistargi-olak daukiezanak, eta beharbada alatxanpaina bialduko gindukiez periodiku¹ eta guzti, Txomin-Arraiok Bizargina bialtzen dauen lez.

Eta bakea beti da ona.

Orduan, eguraldi onak dirala honeek esango ete dogu, ba? Jaungoikoak gorde gaizala!

Zapatari, aterkilari, ardanlari, eta argilari (parkatu honenbeste *-lari*) guztiakaz baino txartoago ibiliko gintzatekez euriagaz kaltea daukienakaz.

Horretara ezkerro, ez goaz esaten eguraldi ona dagoanik ez txarra dagoanik; batzuk eta besteak dira gure adiskideak, eta guztiakazkoa euki gura dogu, buruhauste eta auzi-abarrota sartzeko gogorik bape ez daukagula.

¹ [Izparringi].

Bakar-bakarrik esango dogu euria dala ugari behetan eta goietan edurra izango dala ausaz², haize zorrotza dabilela, eta hotzaren hotzaz musu-belarriok ondo gorri darabilzala jenteak txurrit handi-handirik egin ez arren.

Baten batek esango jok: "Honeek dozak, ostera, notiziak; hori jakiteko erosi ete joat, ba, neuk geure aitaitaren kapea baino handiagoa dan periodikutzar hau txakur txiki hain ederra gastauta? Ez, ez naioek beste behin harrapauko behingo-behingoan!".

Gizonak, ba, notizia edo izpar horixe baino egiagorik jokatu-ko deutsuet ezetz topau Bilboko prentsa³ guztian.

Honez ganera orain zelako eguraldia dabilen jakitea ondo etorri lekio nor edo nori, edo gaurtik hilabetera, urtebetera, inork jakin gura baleu ze eguraldi izan dan orain, edo hemendik urrun bizi diran euskaldunentzat, edo bertan bizi diran batzuentzat be bai.

Batzuk horixe be ez dabe igarriko, zelako eguraldia dabilen. Ezin leitekela izan?

Eguraldia baino errazago da igarten banako edo aparteko Aberri bat egiten dogula euskotarrak... Izango ez da errazago! Eta, horraitino, horra hor zenbat eta zenbat kirten daukagun geure artean, begien aurrean daukien hori ezetara be ezin ikusi eta.

Tira, gaur nahikoa da adarrik.

Asketsi edo parkatuko dozueta-ta nago, olgeta apur bat hemen erabiltea.

1913-II-22

² Ausaz: beharbada.

³ *J.t.* perrentza.

OSTIKO-PELOTEA⁴ ETA ZEZENKETAK

Atzo aitatu genduan hemen ostiko-pelotea, esanik hemengo mutil gazteria poz-pezik ebilela Madrilen irabazi dabelako bilbotarrak.

Aspaldi honetan zaletasun handia zabaldu da hemen inguruko mutilen artean ostiko-pelota horretarako.

Joko edo kirol hau ingelesa da, ez da euskotarrena; baina guztiz ona da gazteentzat. Bere aldez daukaz zuzenbide asko.

Joko honetan sartzen dira hogeta bi mutil; hamaika alde bate-tik, hamaika bestetik; beraz, batera askok jokutzen dabe, eta hau hobari edo bentaja bat da.

Beste bat da, haize zabalean egiten dala joko hau; landa zelai baten.

Gauza ederra da eta osasungaia ikustea hogeta bi mutil gazte arineketan nartzuko pelota handi bat ostikoka darabilela alde batera eta bestera, hamaikako bakotzak sartu gura dauela beste hamaikakoaren atean.

Osasunean eta gogortasunean asko irabazten dabe ostiko-pelotara zaletasuna daukien mutil gazteak.

Joko honek hemen, Bilbon, beste hobari edo bentaja handi bat dauka, eta beragaitik bakarrik baino ez balitz be, ontzat hartua izan behar leuke ekandu onzale guztien aldetik.

⁴ Ostiko-pelota: futbol.

Hobari hau da, ostiko-pelotarako zaletasun honek bereganaturik mutil gaztetxu guztien gogoak aldendu egiten dauzala beste bide batetik, zezenketa-zaletasunetik.

Zezenketa edo korridetara hemen egin dan zaletasuna izugarria, eta lotsagarria, eta negargarria da, gero. Alperrik da esatea zezenketak astakeriak dirala, eta ondoren txarrak dakarrezala. Bai zera! Gazteak ez dau entzuten holakorik, eta txirloraturik bere buru guztia zezenkarien jantzi birrisdunakaz eta honeck hartzten puntan darabilezala alde guztietan ikusirik, sartzen jako buruan zezenkari izatea, eta gero datoz atsekabeak berarentzako⁵ eta bere etxeoentzako.

Zezenketa-zaletasunak dakar bere atzean txuleria, eta honegaz batera berba zikina, ekandu lohia eta alperreria. Guk ez daki-gu zelan esaten deutsien espainiarrak zezenketeari harro-harrorik: *nuestra fiesta nacional*, eurentzat lotsagarria da ba-ta. Egia da, espainiarren artean be asko dirala zezenketa-zaleak ez diranak, eta geure eretxikoak diranak.

Zezenketarako zaletasun honek negar mingotsa eragin deutse hondino egun asko ez dala geure adiskide bihotzeko batzuei; eta aurrerantzean, beste askori be eragingo deutsez.

Ba, zezenketarako bide hori hausteko dator gazteen artean ostiko-pelotea.

Joko honegaz zoratuta dabilz mutilak eta ez jake gogoratu be egiten zezenketarik, eta horixe behar da, aitzu eragin bide txarra.

1913-III-19

⁵ J.t. berentzako.

UDABARRIA

Egutegietan ikusi dogunez atzo sartu gara udabarrian.

Ezagun da. Zugatzak eurrez dira soineko orlegiak jantzten eta lora zuri ederrakaz geure begiak gozaten; landak edurtuta lez agiri dira pitxilota⁶ txiki, eta biribil, eta ugariakaz; eguraldi epel eta bigunak kendu eragiten deuskuz gane-ganeko jantzi astun eta lodiak; mutikoak be hasi dira txirritxirri bila landarik landa, hego bakoak baino ez dabez harrapetan baina; txoriak hor dabilz zoro-zororik txistuka, eta txorrotxioka, eta zarataka, habiak egiten has-teko gertu; kukuak, udabarriko geure adiskide kukuak, laster agertuko dira, agertu ez badira oraingo...

Ederto hasi da udabarri hau. Iraungo ete dau bere arpegi eder honek, ala ilunduko ete jako betozkoa eta ezerezean itxiko ete dauz zugatzen jantzi orlegi eta lora zuri eder, txorien abesti, eta kukuen kukukadak... eta jantzi eragingo ete deuskuz ganeko jantzi lodi eta astunak?

Bildur behar. Negu handirik ez da izan aurtan, eta hau jazoten dan urteetan badaki eguraldiak neguaren antzak hartzen oke-rreko aldian.

Dana dala, etorriko dan lez hartu beharko dogu.

1913-III-22

⁶ Pitxilota: tximeleta, marisorgin.

IRUNDARRAK ETA BILBOTARRAK PARRA GELDITU

Atzoko iluntzean *Egunekoa* idazten gengoan artean gure etxeonen aurrean ebilen zaratea ez da erraz-erraz adierazotekoa.

Mutil gaztetan eta mutil txikitan erlea ebilen, Madrileko ostiko-pelota jokoaren azkena jakin nahirik.

Hor bost eta erdietan etorri zan lehenengo jokoaldiaren izparra⁷ gure izparringira telefonotik bialduta, irundarrak gol bi eta bilbotarrak bat egin ebezala; ipini genduan izparra leihoan, eta hoztxo gelditu ziran mutilok; baina hondino itxaropenaz, bigarren aldian bilbotarrak irabazi leikiela-ta.

Sei eta erdiak baino lehentxu etorri zan izparra bigarren aldian ebilzala gogor irundar eta bilbotarrok, eta bardindu zirala goletan ordurako; ipini zan leihoan izparra, eta gazteok hartu eben txaloka eta goraka.

Gero jazo zan belutu egin zirala Madriletik izparrak bialtzen, eta mutildia⁸ geroago eta handiagoa urduri eta estu aurkitzen zan. Euretarik asko eta asko igon jakuzan hona idazkolara⁹; bete-betarik egoan etxe hau mutilez.

⁷ [Notizia].

⁸ Mutildi: mutil talde.

⁹ Idazkola: bulego.

Zazpi eta erdietan etorri zan izparra amaitu zala Madrilen jokoaldia, irundarrak eta bilbotarrak parra gelditu zirala, bat-tak besteari ezin irabazirik, eta gaurko itxi ebela barrero jokatzea.

1913-III-23

FUTBOLA ZELAN JOKATU

Atzo jokatu zuten azkenetz Madrilen Irungo eta Bilboko mutil-hamaikak ostiko-pelotan.

Bazan atzo ere, herenegun bezela, jakin-nahia hemengo mutilen artean. Hor zebilzan izparringi-etxe aurean, eta etxean bertan, artegaturik noiz jakingo ote zuten ostiko-joko horren azkena.

Lehendabiziko izparrak zioen jokoaren lehen aldian parra gelditu zirala hamaika biak. Geroago etorri zan izparrak zioen jokoaren bigarren aldian gol bat sartu zutela irundarrak, eta ez zala besterik izan; beraz, irundarrak garailari gelditu dira.

Jakina da, hemengo Bilboko gazteak nahi zuten bilbotarrak irabaztea, eta esaten zuten:

—Hau tamala!

Hau ez da ikaratzekoa, bakoitzak bere etxekoak ikusi nahi izaten ditu edozer gauzetan garailari eta.

Horregatikan, askori entzuten zitzaion, hemengoak izanda ere, honelan hitz egiten:

—Ez dik axola; gauzea dek joko horietako txol¹⁰ hura Euskadira datorrela, eta ez dala gelditu han Madrilen motz haien eskuartean.

Huraxe esaten degu guk ere, pozik gaudela euskaldunak irabazi dutelako eta Euskadira ekarri dutelako Espainiako ostikolarien txola.

¹⁰ Txol: kopa, sari.

Datorren urtean txol hura irabazteko jokoak Irunen egin beharko dira, eta etorri beharko dute bertara, Euskadira, ostikolari-hamaikak.

Bilbotarrentzat ondo dator, ba Irun hor bertan dago, eta Madrileran baino gastu gitxiagorekin joan-etorria egin daiteke.

Entzun degunez, Madrilen txakurkeria haundiak esan dizkiete¹¹ gure mutilei; gorroto haundia erakutsi diete hangoak hementegoei. Zergatik? Berak baino gehiago direlako joko horretan... eta beste gauza askotan ere bai; baina batez ere, abertzaleak dirala han zabaldu dalako, eta ez dute behar ezer gehiago haserre eta gorroto bizian jarteko.

Etorri daitezela guri esaten gu gerala gorrotodunak.

Gorrotoa badakigu ondo non dan eta non izan dan orain baino lehen.

Hala ere, guk ez degu gorrotorik inorentzat. Guk geurea maitate degu eta honekin aski edo nahikoa degu.

Gure irakurleen artean asko izango dira esango dabena: "Zer arraio jakarrek honeek *Euzkadiko* izparringikari¹² txotxoluok egunokaz, euren futbol edo ostiko-pelota horregaz? Eurei bai ostikada bat emon behar leuskieela neuk dakidan lekuan, txotxolo handiak! Guk ez dakigu joko hori, eta guri horren barri emon eta asto bati gorantziak emon, hor horren baten".

Gizonak, ez horrenbeste sutu. Futbol edo ostiko-pelota horren barri jakitearren atzo gure izparringi hau erosi eben geutarrak ez diran askok eta askok, eta geutarren artean dagoz jokalaririk onenak, eta geutarren artean dira joko horren zaleenak.

Jokoa egiten da gitxi gorabehera honetara:

Landa zelai baten marketan da lau-aldeko bat, luzeran 120 neurkin edo metro dauzana, eta zabaleran 80. Buru bakotxaren erdi inguruan egiten da ate bat, handieran baserri-etxeetako korta-ate batek aina daukana.

¹¹ J.A. diozkate.

¹² [Periodikeru].

Ate bataren jabeak dira hamaika mutil, eta bestearenak beste hamaika. Narruzko pelota handi eta arin bategaz jokatzen dabe ostikoka darabilela.

Hamaika baktotxa jarten da honan: atean bat, hau da atezaina; aurreratxuago, atearen alde banatan, mutil bi, honeek dira atzelariak; honeen hurrengo hiru mutil, erdian bat eta alboetan bi, honeek dira erdilariak; eta gero bost mutil, erdian bat eta alboetan lau, alde banatan bi, honeek dira aurrelariak.

Honelan hamaika biak jarririk, narruzko pelotea, landearen erdi-erdian lurrean dagoala, epaikari edo juezak txistu bat egiten dauenean, hasten dira ostikoka peloteaz alde baktotxeak bestearen atera sartu gura dabelarik. Sartzen bada tantua da, eta hone-ri *gol* esaten deusie.

Jarraitzen dabe gelditu barik joko honetan hiru ordu lauren. Gero euki ohi dabe hamar minutuko atsedean edo deskantsua, eta gero barrero ekiten deusie beste hiru ordu laurenean. Aldi bi horreetan gol edo tantu gehien egin dabenak, hareexek irabazten dabe.

Pelotea ezin leiteke jo ez ikutu eskuaz; ostikoagaz hezi behar dau, eta aidean dabilenean jo leiteke gorputzaz baita buruaz be.

Hauxe da jokoa, ostiko-pelotea. Badaukaz bere arau edo erre-gelak.

Joko ederra da gazteei arineketak eragiteko, eta honetara gogortu eta bizkortzeko, eta osasuntzeko.

1913-III-24

UDABARRIAREN GORABEHERAK

Apirilean gagoz? Martian gagoz?

Egutegira¹³ begiratu ezkerro, erantzuten deusku apirilean gagozala, udabarrian oso gagozala.

Baina egutegirik gogoratzen ez bajaku, eta gogoan badaukagu bakarrik dabilen eguraldia, nork igarri martian, ala zezeilean, ala abenduan gagozan?

Gizonak! Hareek izan ziran zaparradak atzo ilundu ezkerro jausi ziranak! Hareek ziran oimaztuak, trumoiak eta txingorradak!

Ez dago halako erreketarik!

Urterik gehienetan jazoten da berau.

Sartzen da udabarria, epelduten da eguraldia, hasten dira loratuten zugatzak eta landak, txoritxu politak hor dabilz zoro-zororik, mitxeletak edo txiribiriak agertzen dira haizeak ikaraka darabilzan paper zuri txatalak dirala uste izateko lez, txakurrak lo egiteko kerizpea bilatzen dau, arinduten doguz geure jantziak, hasten da eguzkia berotzen behar dan baino gehiago, ikusten dira bekoki-ertzetan eta kokote-aldeetan txarraminuak¹⁴ egindako gorriuneak, odol golpearen bildur izaten diranak hasten dira jatekoa gitxituten eta karraskilearen ur egosia hartzen...

¹³ [Kalendariora].

¹⁴ Txarraminu: legen, lepra.

Eta onik onenean, usterik gitxien danean, nasai-nasaien aurkitzen garanean... *danba!* Horra non iluntzen dan zerua itsaso aldetik, hasten da puzka haize gogorra, entzuten dira trumoiak, eta ondoren txingorradak, euriteak, edurrak... deabrukeriak.

Neguaren bihotz-bihotzean lakoxe eguraldia sartzen jaku, hamaika oker eta kalte dakarrela solo eta basoentzako, baita osasunerako be.

Eskerra edo mesedea be ekarriko dau ekarri, geuk ikusi edo igarri ezarren kaltea baizen ondo.

1913-IV-5

ELANTXOBERA JOAN-ETORRIA

Harainegun, igandean, egin eben joan-etorria *Instituto Vizcainon* bigarren urteko ikastaroan¹⁵ ibili diran neska-mutilak, euren irakasleri¹⁶ Bustintzagaz. Geu be eurakaz batu ginan, izparringi honetatik Zuazola euskaldun ikaragarria jakitun ipinteko gogoagaz.

Goizeko bostetan batzartu¹⁷ ginan Deun Jagobaren¹⁸ eleizan; meza entzun bertan eta arin Atxurira trenera sartzeko.

Han *Euzkadi* izparringi bana erosi eta burdiratu ginanean, guztiok alkarregaz euskeraz hitz egiten genduala, euskaldunak arpegi argiz begiratzen euskuen, ikusirik baserritar antzik ez eukan gazteria euskeraz hitz egiten. Jakina, bat edo batek be amorrubegiak ipini euskuzan... Zuazolaren lagunen bat, hurrean.

Gernikara heldu ginanean, urten bultzitik¹⁹, eta hiru ordu laurenean ibili ziran neska-mutilok kalerik kale herria ikusten, euskeraz hitz egiten ebela.

Geroago, gosaldu polito Alberdiren ostatuan, eta Elantxoberrantza oinez eguraldi eta bidaro ederragaz; igaro ginan Kortezubi eta Arteaga herri polit, zabal handidunetatik, beti euskeraz hitz

¹⁵ [Curso].

¹⁶ Irakasleri: irakasle.

¹⁷ *J.t.* batzau.

¹⁸ [Santiago].

¹⁹ [Trenetik].

egiten. Igon ginan Muruetaganarako aldatsetik, eta begiak zabal-zabal eta bihotza nasai-nasai geunkazala, zati baten egon ginan ikusten handik agertzen dan edertasuna: Arteaga, Kortezubi eta Gernika urrinago, ibaia, eta beronen ezkeraldeko herritxuak, Forua, Murueta, Axpe... Zein atsegina dan begiratzea Gernikako ibarra eta bere inguruak!

Bizi ez da
ludi guztian
ene Ama
baizen ederra.

Abesti hauxe berez etorten jakun gogora.

Muruetaganako edatetxean hartu eben indargai bat gazteok, eta aurrera Ibarrangelurantz, bidearen albo bietako baso eder eta basetxe politai begira asetu ezinik; batez be, sagar-zugatzak loraz bete-beterik, zein ederto apaintzen dabezan basetxeen inguruak!

Ibarrangelutik igaro ziran gazteak oihuka eta zantzoka, zirizuzko²⁰ (Gernikan erosita) batzuk jaurtinda, etxe guztietako biztanleak aterarik eta..., entzun, Zuazola: euskeraz hitz egiten. Era berean heldu ziran Elantxobera; hemen urten jaken bidera ume koskor pilo handi bat harrera eta txera ederra eginaz; Jel-batzokiko leihotik zirizuzko batzukaz erantzun eutseen gazteak jaurtiten ebezanai. Elantxobeko geure adiskide maiteei laztan bat eginda, abestu ziran eusko usaineko abesti batzuk, kalean entzuten egozan mutiko eta neskatoen atsegin handiaz. Honeek esaten eben euren artean:

—Nongoak dozak honeek? Nondik jatozak?

—Bilbotarrak dozak.

—Euskeraz egiten joek, ba.

Gero Gotzoneren jatetxean bazkaria leiarkela²¹ argi-argi eta ederrean, itsaso-zati zabal handia agiri dala bertatik; bazkari

²⁰ [Etxafuego, bolandera].

²¹ [Mirador handia].

ona, ugaria eta ederto ipinia, eta merkea emon euskun Gotzonenek. Joan leiteke honen etxera. Gogaldirik argienaz, anaitasunik sakonenagaz, eta euskeraz hitz egiten zala igaro zan bazkalordua.

Kafea hartzeko Jel-batzokira joan ginan, eta hantxe elantxobetar abertzale zintzoakaz batera egon ginan hiru eta erdiak arte; bitarte horretan abestu ebezan gazteak inon diran euskal abesti politak, euren arteko batek pianoaz lagunduta. Beti euskeraz.

Hiru eta erdietan abiau ginan Sukarrietarantz... eta hementxe dator joan-etorri honetako alderik txarrena. Zaparrada errime bategaz igon ginan Elantxobeko hiltegiara²², jatsi gero basabiderik basabide bitxabalera²³, eta hau jo genduan lekutik Laidaraino dagozan bost kilometroak egin genduzan zaparradea geroago eta handiagoa zala. Heldu ginan Laidako hondartzara busti-bustirik, soinekoak haragiari iratsita... itxura bat, bai! Baina hori gorabehera, gogoia argi, eta beti euskeraz.

Igaro genduan ibaia txalupan, sartu ginan Billora ekarri behar ginduzan bultzit edo trenean, eta guk hartu genduan burdian euskeraz abestu eta euskeraz hitz egin zan Atxuriko geltokira²⁴ heldu arte. Hemendik etxera arin soinekoak aldatu eta berotan sartzeko.

—Eta zu, idazle, zer dala-ta egin eben joan-etorri hori?

—Ekandua daukie Bustintzagaz dabilzan ikaslariak²⁵ urtean-urtean alkarregaz bazkari bat egiteko. Urte bakotxean leku batera joaten dira, eta aurten otu jake Elantxoera joatea. Honetara erakusten dabe irakasleri eta ikaslariak ondo alkar hartzen²⁶ dabela, alkar maite dabela.

²² [Ortusantu].

²³ [Bide barrira].

²⁴ [Estazino].

²⁵ Ikaslari: ikasle.

²⁶ Alkar hartu: alkar aitu.

—Zuazolatxu horrek esan eban, ba, Bustintzak uxatu egiten dauzala ikaslariak bere irakastolatik²⁷, asko hasten dirala eta gitxi, oso gitxi, geratzen dirala azkenerako.

—Zuk dinozun Zuazolatxu horrek ez daki, edo badaki, ez baleki lez, aurten 34 izan zirala matrikuladunak, eta azterketan edo esaminetan aurkeztu zirala 28. Hori da uxatzea?

1913-VI-3

²⁷ Irakastola: ikastola.

PIPERRAUTSA BEGIETARA

Frantzian²⁸ Saint-Denis deritxan herri baten gizon bat joian arkolo-arkolo²⁹, ezetariko ardura barik, onik onenean emakume batek esan eutsanean erdi negarrez:

—Ai, atzotik hona ezer jan barik nago; emoidazu, arren, txakur txiki bat ogitako.

Gizon hari bihotza hausi jakon. Atera eban sakeletik txakur handi bat eta gogorik onenagaz eskini eutsan emakume larri hari.

—Hau da guztia?—esan eban berak—. Zuririk³⁰ be ez?

Gizonak ez eutsan erantzun, eta bizkorrago joiala ikusirik, emakume eskeko ha hasi jakon txakurrenak esaten:

—Hoa, hoa! Burges txarriori, heureak hartuko dozak!

Emakume gaiztoa joan jakon atzean arineketan, eta jadetsi ebanean jaurti eutsan begietara eskukada bete piperrauts, eta berehala hasi jakon sakelak arakatzen (*poltsiluak errekistetan*, hauxe dok hauxe Zuazolaren *vascuencea*). Gizona deadarka hasi zan laguntza eske.

Ertzain bi³¹ egin-eginean heldu jakozan, ba, eurak baino apur bat lehentxoago agertu ziran emakume eskeko txarraren

²⁸ *J.t.* Pantzen (Prantzian).

²⁹ Arkolo: nagi, alper.

³⁰ Zuri: txanpon mota bat.

³¹ [Poliziako bi].

lagun batzuk gizon gizajo³² hareri hainbat arinen sakelak arinduteko gogoaz. Eurok bizkor alde egin eben handik ertzainak ikusi ebezanean, saguak katua ikusita baino be bizkorrago; eta emakumea bakarrik harrapau eben.

1913-VI-11

³² *J.l. gixaxo.*

GAUR DA URTEBETE

Orain urtebete, igazko dagonilaren³³ 12tik 13garrena bitarteko gau ikaragarrian, hainbeste arrantzale euskotarrek gure itsaso urduri honetan galdu eben bizia. Gomuta dozue, irakurleak, zelako zauskadea³⁴ eragin eban Euskal Herri guztian, baita Euskal Herri-tik atean³⁵ be, triskantza³⁶ hain neurribakoaren izpar baltz harek?

Bazan negarra, atsekabea eta gogo-iluntasuna; bihotzak, ikarearen ikareaz, taupada barik gelditu ziran.

Zelan ez? Hainbeste gizon eta mutil, adinik onenean, loralaran egozala, osasunez eta indarrez beterik, gau baten bakarrik heriotzeak ebagi eutsela euren bizitzearen haria ikusirik? Noiz izan da holakorik?

Ai, ondo mingotsak izan behar dau arrantzaleak jaten dauen ogia!

Hil ziranentzat ezin geinkean besterik Jaunari, hemengo gauza guzti-guztiak geuk zelan ez dakigula darabilzanari otoi egitea baino.

Baina hildakoak euren atzean itxi ebezan guraso zaharrak, alargunak, umezurtzak, negarra eta atsekabeaz ganera goseaz; eta honetan bai, egin geinkean zerbait, eta egin zan.

³³ Dagonil: abuztu.

³⁴ Zauskada: emozino, zirrara.

³⁵ Ate: kanpo.

³⁶ *J.t.* tirriskantza.

Alde guztietatik, Euskal Herria aurrenengo zala, hasi zan etorten laguntasuna, eta behintzat gosearen atzaparretatik gaizkatu³⁷ dira guraso zahar, alargun eta umezurtzak; bide batez erakutsirik euri anaitasuna, arrantzaleari jakon maitetasuna.

Gaur, ezbehar itzal eta negargarri haren urteurrena dala-ta, *Euzkadi* honetatik, euskotar jeltzaleen izenean, bihotz-bihotzez dinogu hil ziranez:

*Réquiem aeternam dona eis, Dómine,
Et lux perpétua líceat eis.
Jauna, emoiezu betiko atsedena,
Eta argi dagiela betiko argiak.*

Eta hil ziranen sendiei, eta eurak lez itsaso gogor horregaz egumeroko burrukan ogia irabazten dabilzan arrantzale zintzo eta maiteei dirautsegu: "Hemen gaukazuez beti zeuen alde. Atseka-berik dozuenean, ez etorri gure aterik joten. Ez da behar. Geu joango gara zeuekana egundoko arinen, alperrik ez gara anaiak eta; geuk laztanduko zaituegu, geuk negar egingo dogu zeuekaz batera, eta geuk emongo deutsuegu geure ogiaren erdia".

1913-VIII-12

³⁷ Gaizkatu: salbau.

¡VIVAN LAS CADENAS!

Guk inoiz irakurri dogu Fernando Septimo³⁸ *Surrandiren* aldian Andaluziako herri baten, gizonak erregeren burdiko zaldiak askatu eta eurak burditik tiraka hasi zirala deadar eginik: *¡Vivan las cadenas!*

Deadar horregaz adierazo gura eben zaldi, mando, edo asto, edo idi izan gura ebela eurak.

Guk ez genduan bete-bete hau sinistu gura, gatx³⁹ egiten jakulako sinistutea gizonak asto, mando, idi edo zaldi izan gura dauela.

Orain bete-bete sinisten dogu. Zergaitik?

Atzo goizean, lo gengoza ohean bakerik dontsuenean⁴⁰, kalean joian zarata izugarri batek iratzartu ginduzan. Adi jarri ginan eta entzun genduzan arrantza ikaragarriak: *¡Vivan las cadenas! Gora buztarriak! Idi izan gura dogu!*

Holantxe joian arrantzaka astakirten pilo bat.

Gu, egoarria⁴¹ hartuta loa galarazo euskulako, jagi eta joan ginan eleizara meza entzuten, eta bertan Jaunari otoi egin geuntzan Bere indarra emon deigula galdu ez daigun behin be Berak, Jaungoiko maiteak, emondako askatasun ederra.

³⁸ *J.t.* Ferrando setimo.

³⁹ *J.t.* gaitz.

⁴⁰ Dontsu: zoriontsu.

⁴¹ Egoarri: lasaitasun, patxada.

Guk, Jaunari eskerrak, gizon izan gura dogu, eta ez zaldi,
mando, idi edo txakur.

1913-IX-8

OSTIKO-PELOTA

Edo futbola. Ingelandar kirola edo jolasa da berau, hamaika mutilek beste hamaika mutilegaz jokatzeko dutena; kirol ederra gazteentzako, haize zabalean arineketa edo lasterketa haundiak egiten dituztelako, honela gogortu eta sendotzen dirala.

Futbol joko hau asko sartu da euskotarren artean, batez be Bizkaia eta Gipuzkoan. Poztuko ote gera? Askok esango du, hemen gendukela bertoko kirol ederra, pelota-jokoa, ezer zor ez diona futbol horrerik. Halaxe da, gu ere horretan gaude; baina zer-bait esaten utzi behar diguzue.

Hemen, gure Aberri honetan, pelota-jokoa gorabehera, gero-ago sartuago zihuan adar-jokoa, esan nahi degu, zezenketa edo espainiarren *corrida de toros*; *corrida* honekin sartzen zaigun txulokeria haundia, *corrida* honekin geroago eta erbesteko antz gehiago hartzen genduan, eta noren antza...!

Guztiok geunden kezka betetik eta oldoztu ezinik nola atzeratuko ote genduan adarkeria izugarri hori; alperrik zan haserre egitea, abertzaleak berberak mordoka joaten ziran adarketa, edo zezenketa edo *corrida* horreetara, eta hori aitortzen zutela astakeria bat baino ez zala joko odoltsu ha.

Honetan hasi ziran gazte batzuk Bilbon eta Donostian ingelandar joko garbi honekin, zabaldu da zaletasuna gaztedi guztian, eta horra *corrida* ezain haietara joateko lehia galtzen hasi ziran, eta gaur gure Aberri maite honetan, zezenketak duten etsairik beldurgarriena futbola da. Orain arte bezela jarraitzen badu futbol-

zaletasunak, gaurtik urte gutxi barru oso baztertuta eta ezereztuta ikusiko ditugu *corrida* espainiar horiek.

Berez ere hobea dala mutilentzako futbol-zaletasuna *corrida*-zaletasuna baino, sendotze gehiago dakarrelako eta ekandu gaiztorik ez dakarrelako, hego-aldekeria kentzeko zaigun biderik onena dalako, txit onesten degu futbol edo ostiko-pelota hau.

Ekin, gazteak, joko horrekin, eta zuen gorputzak sendotu eta indartzen dituzuen ganera, aldezkuntza⁴² haundia egingo diozue geure Aberriari.

1914-II-16

⁴² Aldezkuntza: mesede.

EZ GARA ARRANO JAIO

Ondo egina. Ekin, *Batxi*⁴³, idazkiok bialtzen, badakit askok irakurten dauzala pozik eta.

Baten bat izango da, zuk susmoa egiten dozun lez edo daki-zun lez, horreetariko izparrak ganorabakoak dirala-ta esaten ibi-liko dana. Ez jaramon, eta aurrera. Nire idazkaiakaitik be horren-beste diñoenak badira eta... zer? Jakidi edo *ciencia*ko goi-goiren-gu gailurretan guztiok ibili behar dogu ala?

Guztiok ez gara arranoak hegaz hodeiak baino gorago igote-ko. Eta arranoei jazoten jake inork ezin deutsela jarrai, eta euren jakite guztia askotan ez da izaten inorentzat.

Arranoa hegazti urria da oso; txori txikiak ugariago gara: zozo, birigarro, durdura, eskilaso, okil, txirta, txonta, txinbo, txin-dor, txirriskila, txiberri, kardantxilo, txio, txepetx, artxori, arta-txori, otatxori, txamilotx, kurriloi (Zaharronzale⁴⁴), eta neuk orain gomutau ezin dodazan hainbeste eta hainbeste txori enda-ki⁴⁵.

⁴³ Juan Bautista Bilbao Elgezabal *Batxi* (1887-1916). Aranaren eskolako idazlea eta Kirikiñoren lagun handia. Artikuluak, kronikak eta ipuinak idatzi ebazan eta gelienak *Napartarra* eta *Euzkadi* aldizkarietan argitaratu ziran. Mari-nela zau eta bere lan nagusia, hagaitik, atzerriko kronikak ziran, zalantza barik. Itsasoan hil zan, hatan be, 28 urte ebazala. Ikus. *Hau mundu arrano hau*, J.B. Bilbao *Batxi* (Koldo Izagirrerren eta Iñigo Aranbarrinen edizimoa). Susa, 1997.

⁴⁴ Zaharronzale: Tradizionalista.

⁴⁵ Endaki: erraza.

Arranoei jaramonik ez egin, eta guk, txori txikiok, erabili daiguzan geure hego makalok eta ahal dogun lekuetatik ibili gaitetzan, bizi izan gaitetzan; inork badinosku arrano izan behar dogula, erantzun ez garala arrano jaio, txori txiki baino, eta txori txiki lez, geure hegazkadatxuak daiguzala; haizea ez dala egin arrano-entzako bakarrik, enparauok be eskubidea dogula haizetan ibilteko; txikiak garala-ta beste barik ez gagiezala jaurti... ez garalako joango, eta alperrik ibiliko diralako.

1914-III-17

ARRAUTZOPILA GOMUTAPENA

1872ko urtea zan. Orrila edo maiatzaren hamalagarrena.

Mañaria deritxan Bizkaiko herri txikian karlistak egozan. Egun hartako goizean Durangora heldu ziran baltzak. Eurek eguerdi ostean Mañarirantz etozalako izparra zabaldu zan. Gudaldia edo atakea ganean zan.

Durango aldetik Mañarira sartzeko, mendiarte estu-estua igaror behar da, behetik gorantz. Lekurik egokiena gizon gitxik askori eutsiteko.

Estune egoki honeri jaramonik egin бага, karlistak erreskadaka⁴⁶ jarri ziran herri barruan. Hau ikusirik herriko biztanleak bildurto ziran eta karlista nagusiei esan eutseen:

—Gizonak, Jainkoarren! Baltzei gogor egiteko asmorik badozue hor behealdeko estune horretan daukazue era-erako lekua horretarako; haraxe zoaze. Gogor egiteko asmorik ez badozue, arren, alde eizue etxe-artetik, baltzen haserrea geure ganera jausi ez daiten.

Karlista nagusiak, bildurrak josita euki balitu lez, ez eben ezer erantzuten ez erabagirik hartzen. Aldia⁴⁷ aurrera joian.

⁴⁶ [Formauta].

⁴⁷ [Denporea].

Herriko biztanleak, estureak eraginda, eskini jakezan eurak erango ebezala atakea era onean eukiteko tokietara; eta honetara jarri ziran.

Biztanle batek edo bik eroan ebezan, ba, karlisten indarrak estunetik doan bide zabala⁴⁸ ederto goitik behera hartzen dan tokietara; han itxi eta arin atzera etxeratu ziran.

Bide zabal horren aurrez-aurre eta goitxo dagoan gaztainadi baten egozan karlista mutil aldra batzuk. Honakoren baten Izurtza aldetik agertu ziran baltzak, astiro-astiro eta susmoz beterik lez etozala. Orduan, mutil aldra hareen buru egiten eban karlistek esan eutsen:

—Ea, mutilak, egizue ahalegina eta...

Eta..., alde egin eban handik beste bere lagun nagusiakaz batera, mutilak eurak euretara bertan itxita.

Egin eben, bai, ahalegina mutil gizajoak! Gudaldi gogorra, oso gogorra, izan zan bertan. Odol asko jausi zan. Hainbeste mutil lek osasunik ederrenean egozanak galdu eben han bizia ganora barik, alde batekoak eta bestekoak. Hainbeste gurasok egun hartan negar samina isuri eben. Guda madarikatua!

Bitartean, gaztainadiko mutil zintzoak ahalegina egiten zihar-duen artean, non ziran euren nagusiak?

Ai! Honeek egozan handik kilometro bi urrin dagoan baserrietxe baten, etxe-kerizpean mahai baten inguruan nasairo jesarritan, urdaiazpi txatalakaz egindako arrautzopil⁴⁹ bat gozaro jaten, iji eta aja barre-zoroka, eurakaz egozan neska batzuei zirrika.

Nik sarri entzun dot, eta sinisten dot, karlistak azkenengo gudatean⁵⁰ euki eben baino gudamutil⁵¹ hoberik ez dagoala; baina euki eben nagusiteria baino txarragorik be ez.

⁴⁸ Idazleak *bidezabál* idatziko dau, lotuta.

⁴⁹ [Tortila].

⁵⁰ [Gerrate].

⁵¹ [Soldadu].

“Egizue ahalegina” esan eta nagusiak alde egin? A, mutil gizajo itsutuak! Gizajo onegiak izan ez bazintzaze, nagusi hareri esango zeuntsien: “Ez, adiskidea, ez zara inora joango; hementxe, geure aurean gudatuko dozu, edo geuk garbituko zaitugu”.

Eta gaur dakiguna jakin bazendue, nagusi hareri berari jagona emongo zeuntsien esanaz: “Gudarik behar bada gudatuko dogu geure Aberri Euskal Herriaren alde, baina ez zu lako satsak elikatu⁵² eta jolas-artean erabilteko. Inongo gizonen alde ez gabilz, Jaungoikoaren eta Aberriaren alde baino”.

1914-IV-18

⁵² [Mantenidu].

ARTO-EREINTZA

Atzo izan zan San Jurgi⁵³ eta bihar da San Markos⁵⁴, eta beraz gaur artoak erein behar dira, esakune zaharrari jarraitzekotan:

San Jurgi
artoak ereiteko goizegi.
San Markos
artoak ereinda balegoz.

Arto-ereintzaz zerbait esan behar deutsegu geure lugin edo baserritarrei; ez arean⁵⁵, noiz eta zelan egin behar daben arto-ereite hori, zelan atondu edo manean lurra, zenbat sats eta zelan ezarri, eta zelako eguraldiaz erein behar daben. Artoari jagokozan gauzetan, guzti-guztia ez badakie be, badakigu gitxi ikasi beharreen aurkitzen dirala gure baserritarrek.

Badakie honeek, ereiteko azeak, hazi onenatarikoak izan behar dabela; eta ahal dala, gaxik euki ez eban artatzen baturikoa. Artapautza deritxan gaixo edo eria euki baeban artatzeak, han baturiko azeak beti ekarriko dau artapautza. Horregaitik, ahal dala, bape gaixorik euki ez eban landaretik etorririko azea da

⁵³ *J.L.* Satxordi [Deun Gorka].

⁵⁴ *J.L.* Samarkos [Deun Marka].

⁵⁵ Arean: duda barik.

erein behar dana; baina gehienetan ahal dala hori ez da geure eskuan egoten, eta orduan, ointxe esango doguna egin ezkeru, kenduko jake haziei artapautzaren lorratz edo arrasto⁵⁶ guztia. Hona hemen.

Ipini uretan *sulfato cobre* edo kaparrosa urdina deritxan harria, ehuneko bat eta erdian; hobeto ulertzeko, 100 litro uretan kilo bat eta erdi. Hondino argiago: hamabi eta erdi (12^{1/2}) azumbre uretan libra eta erdi sulfato bota. Eragin ondo, azukerea lez urtu daiten; eta hantxe euki azea beratzen gau guztian.

Biharamonean atera eta zerbait lehortu⁵⁷ daitenean, karehautsa lurrean zabaldu, eta hantxe erabili hazi guztiak azalean kare apurtxo bat hartu dagien. Hauxe eginda, erein.

Artapautzaren kenbidea hauxe da eta ez da karu. *Sulfato* edo kaparrosa hori drogeria guztietan saltzen dabe.

Eta orain inork esango dau: "Baina, Kirikiño horrek inoiz solorik erabili jok, edo inoiz atxurraz ikuturik egin jeutsak lurra-ri? Ez? Orduan, zetan jatork, ba, maisu egin gurarik berak inoiz ezer aitu ez dauen zereginetan?"

Hara, gizonak. Artapautza kentzeko bide hori neuk ez dot asmau, baina irakurri egin dot, lugintza edo lur-lantza gauzetan asko dakian batek esan edo idatzita, eta uste izanik ondo etorri lekiela euskaldun baserritarrai, hartu eta euskeraz ipini dot, eta hemen argitaldu.

Orain... nik hau egin dodalako haserre bazarie... gorantzi handiak emozuez bakotxak zeuen amamari, eta hor konpon.

1914-IV-24

⁵⁶ *E.j.* errastu.

⁵⁷ [Sikatu].

SPORT EDO KIROL BARRI BAT

Gaur egunean dana da *sport* edo kirola. Mutiko eta mutil gazte, eta gizon eginak be bai, zoratuta lez dabilz aspaldi baten, indarketan ibiltea baino besterik gogoan ez baleukie lez.

Gimnasioetan batzuk, bola astunak jasoten, eta saltoka, eta itzulipurdika, txerpolarienak⁵⁸ egiten; beste batzuk pelota handi bategaz ostikoka; beste batzuk txirringutsetan⁵⁹ biderik bide herri txikietako txakur guztiak haserre baten ipinirik; beste batzuk mendirik mendi, aldatsak gora eta aldatsak behera, bidaune handiak ibilirik jaiegunetan; beste batzuk palanka jaurtiten; beste batzuk pelotan; beste batzuk arineketan; beste batzuk arraunketan⁶⁰ ... eta holantxe beste era gehiagotara be.

Honeek *sport* edo kirol guztiok ei dira guztiei alde eragiteko ardanetxe, eta akeitetxe, eta horreetariko lekuetatik eta bide batez euron gorputzok gogortu eta sendotu daitezana.

Hori ondo dago; taberna-zuloan eta kafe-zuloan edaten eta jokoan ke artean gorputza makaltzen baino hobeto dabilz mutilak haize zabalean indar-kiroletan.

Orain nik esan behar deutset kirolzale guztiei neure otukizun bat, ea zer deritxen. Zuek eguncan-eguncan erabili ohi dozuezan nekealdiak edo egin ohi dozuezan indarraldiak, zeuen gorputzari

⁵⁸ Txerpolari: saltzaile ibiltari.

⁵⁹ Txirringuts: bizikleta.

⁶⁰ [Erremuketan].

emoten deusien sendotasuna aldeberatu ezkeru, onura⁶¹ bakoak dira, alper-alperrik galtzen diranak. Tamala ez da horrenbeste indar galtzea? Indar horreek ekarri leikien onurea zenbaterainokoa dan nork igarri? Ez ete leiteke egin, ba, gorputza sendotu haize zabalean, eta batera, sendotze hori lortuteko behar dan indar-ketearen onurea hartu? Baietz uste dot! Zelan? Honetaraxe:

Hor, Artxandatik hasi eta Santa Marina deritxan mendira arte, bizkar zabal ederrak dagoz larra eginda, eta merke, bai eros-teko eta bai errentan hartzeko. Holakoxe bizkar baten txantelak egin⁶², mutil batentzako edo bi, edo hiru, edo gehiagorentzako handiera egokia dabenak, eta mutilei emon ardurea apur-apurka hareexek lur-txantelak gertetako eta solo egiteko, eta gero, eurentan patatak erein eta zaindu, egin daitezanean atera eta bilduteko. Honetarako behar diran lanak egiten, haize zabalean indarke-ta politak egingo leukiez, eta sendotuko litzatekez ederto, eta bide batez ikasi egingo leukie lurrebilkuntza⁶³, eta azkenerako patata pilo galanta hartu, prijiduta edo makailo zati bategaz edo lukainka mutur bategaz egosita afari sekulakoak egiteko.

Bere lur txatala ondoen darabilenari eta patata-bururik gehien hartzen dabenari saria izentau, eta sari ona; orduan ahale-ginduko litzatekez kirolzaleak edo *sportmen* hatxurra gogoz erabilten, saria harrapetearren.

Eta sariak emoteko egin leiteke egun baten jai bat patata-tokian bertan, tanbolinaz eta guzti joanda.

Horra ba, kirol edo *sporteko* asmo barri bat. Orain, nik baino gehiago dakienak edo ahal dabenak bemoie⁶⁴ bidea, asmotik eginera igaro daiten.

⁶¹ [Probetxu].

⁶² [Lur zatiak].

⁶³ [Agricultura].

⁶⁴ Bemoie: emon beie.

Ea jakiten dogun hainbat lasterren, hemen edo nonbaiten sortu dala kirol-batzaren bat *Patata-Klub* edo honako izena hartuta, kirol barri hau hasi eta zabalduko dauena.

1914-V-25

IDI-INDARKETAK ETA ZEZEN-HILKETAK. JOKOA ETA JOKOA

Horra hor Eibarko alkatea epaipetuta⁶⁵, eta beraz bere alkateztatik kenduta. Zer dala-ta? Gipuzkoako gobernadoreak gebendu edo debekau ditu idi-indarketak; gebentza hori ontzat ez dau hartu alkate horrek eta Donostiako izparringi baten idatzi eban zerbait arazo horrezaz, eta idazkai honetan gobernadoreari garrazkeriaren bat zuzendu deusalako edo, epaipetu dabe.

Tira, ez gaitezcan sartu epaipetze horretan, baina gogaketa batzuk egin daiguzan.

Zergaitik gebenduten ditue idi-indarketak? Zio edo motibo bigaitik: bata, astakeria edo gogorkeria eroanezina dalako idi gaitxoak ikustea harritik tiraka orroaka eta akulukadaz odolduta; bestea, baserritarrak eta baserritar ez diranak be bai, diru asko jokatzen dabelako, eta hemendik sortzen diralako etxe-hondatzeak, gizon-hondatzeak eta beste kalte asko.

Ondo dago hori. Tira, ulertzen da gobernadoreak ez dauela gura Gipuzkoan abereakaz gogorkeriarik ezta jokorik be.

Orain beste gauza batzuk. Donostian eta bai Gipuzkoako beste uri batzuetan be, sarri izaten dira zezenketak; han ikusten dira zaldi gaixoak hesteak dariola, odolduta; zezenketa baxotxean hainbat zaldi hiltzen dabe, eta erarik txarreanean hil be. Zezena

⁶⁵ [Procesado].

bera, barriz, horretarako ateraten dabe, hiltako, batean hau sartu bestean hori sartu, han darabile odolez gorri-gorri eginik; urten ahal balitz handik eta bere basora joan, berehala alde egingo leu-ke gaixoak, baina leku itxian darabile amurruz beterik orroaka hil arte. Zezenkariak be inoiz hiltan dira zezenak adarra sartuta, eta sarri gelditu zaurituta.

Idi-indarketea baino mila bidar astoago eta ankerragoa da zezenketea. Idi-indarketea gebendu egiten dabe agintariak; eta barriz, eurok joaten dira zezenketearen buru edo lehendakari izaten. Hau zelan izan leiteke? Ba... halantxe. Ni nasai eta zu estu, hori be zuzena dozu.

Donostian dago etxe bat, *Gran Casino* deituten jakona, bertan ugari dirua jokatuten dana. Joko honetan diruak ibiltan dira sakel batzuetatik besteetara inoiz gelditu barik eta aldakuntza bakotxean *Casino* horrek diruaren zati bat beti harrapetan dauela, eta azkenerako guztia beretuten⁶⁶ dau jokalaria itxirik aurrean paparra eta atzean bizkarra daukiezala.

Hondamendi handiak sortuko dira, ba, joko horretatik, idi-indarketako jokatik baino handiagoak... ezta? Bai ba. Eta ganera, idi-indarketak noizik behin izaten dira, eta *Casino* hori beti dago zabalik, egunean-egunean irumtsiten dau gizajo askoren txindia⁶⁷. Joko bata gebendu eta bestea ez zelan izan leiteke? Ba..., halantxe. Ni nasai eta zu estu, hori be zuzena dozu.

Zuzena...! Zuzena...! Non ete haz? Hor mendiren baten, urretx⁶⁸ edo leizar adakiaren taiuan.

1914-VI-6

⁶⁶ Beretu: beretzat hartu.

⁶⁷ Txindi: diru.

⁶⁸ *J.t.* urreiz.

BERRIZTIK

Egia esatekotan, idazki hau ez da etorri. Hementxe egin dogu, hara zelan. Atzo arratsaldean aurkitu nebazan berriztar bi, eta eurakaz barriketan hasita esan neutsen:

—Ze barri da Berriz aldean? Zelan ibili zarie Deun Kepaz?

—Ondo baino hobeto. Izparringian ipini gura badozuz, esango deuntsueguz jaietako zertzelada batzuk —erantzun eben.

—Ipini ez, ostera? Bai pozik be! Betoz, betoz zertzelada horreek.

—Deun Kepa egunean Meza nagusi ospetsua izan zala bakarririk esango bagendu ez geunke ezer esango; baina gehitxuago dago esateko: Mezako hiru abadeak bertako semeak dira, bi erbestetik egun horretarako etorrikoak; Meza-abestia bertako seme batena da, Arkaraztar Koldobika ereslari⁶⁹ ezagunarena; abeslariak be bertakoak, gizonezko eta neskatilak; eta organuan hareei laguntzen jardun ebana be, Abaituatar Kepa, berriztarra da.

—Hori gauza polita, guztiak herrikoak izatea.

—Eta ipini eizu oso ederto bete ebela euren zeregina. Egun hartan eta biharamonean, ilundu eta gero, erre ziran suzko-txi-rringak⁷⁰, guztien pozkarriz, batez be mutikoteriak aldi gozatsua

⁶⁹ [Musiko].

⁷⁰ [Galdakaoko *vascuentzista, terrible, tremendo, estupendoak* ulertu dagian esango dogu hau dala *fuegos artificiales*.]

igaro eban *txirristxi-porropor*, *bin-ban-bun* hareekaz; egunean-egunean be ikusiko leukiez honeek... dirurik behar ez balitz.

—Ez... ba... *litz...* Zer gehiago? Aurrera, hori ipini dot eta.

—Ezpata-dantzariak, eta aureskuak, eta dantzaketak...

—Horretan zarie, ba, mutilak berriztarrak! Ezpata-dantzan eta auresku erregeladunak egiten... Dantzaketea garbi egingo dala uste dot zuen herrian.

—Bai; han euskaldun antzera egiten da beti. Deun Kepa bigarrenean egin zan auresku jakingarri bat. Atera eben Ariznabarretatar Martin auresku eta Mazagatar Eusebi atzesku zirala; erregeletan egin ebezan sekulako gora-gorak eta bihorkadak, puntuak ondo hartuta, gorputz eta hanka bizkor eta bigunak daukiez mutilok.

—Abendeak dirau endekatu⁷¹ barik.

—Neskatilak aterateko orduan eroan ebezan sokara Sotatar Igone⁷² eta Aznartar Eskarne⁷³, Bilbotar neskatila aberatsak, Berrizen udaldia egiten dagozanak Aznarren jauregian.

—Oi! Horreek handikiak dira. Auresku-mutilok zetarikoak ziran?

—Bertako baserritarrak.

—Nire herriko *astokraziakoak* izan balira ez ziran joango sokara... baserritarrakaz eurak! Lehenago...!

—Ba, Sota eta Aznar neskatilak ondo pozik joan ziran aureskura, eta atsegin izan eben eurakaz mutilok euki eben gomutea.

—Ezagun da neskatila zentzundunak dirala eta bihotz onekoak. Zer dauka, ba, dantza garbian egitea euskaldun mutilakaz, baserritarrak izan arren? Baina zoaz honegaz nire herriko eta Durango aldeko *señorita* erdaltzale mizpirri askogana; *con aldeanos*⁷⁴ enperadoreen orpotiko jatorria daukienak? Harroagoak

⁷¹ Endekatu: gain behera etorri.

⁷² [Asuntzion].

⁷³ [Mertzedes].

⁷⁴ [Honantxe esan daroe *señorita* mizpirri mustur zorrotzok.]

dira...! Eta eurak txikitan abarkakaz ibili ez badira, euren gurasoak hamaika mokil-hauste soloan egin ebenak izan barriz. Gehiago?

—Ba, jenteak ondo jan eta edan egin ebala, eta limonadea ugari izan zala, eta...

—Tira ba, guztia ipini dot, eta bihar argitalduko dogu izparringian.

Holantxe sortu zan Berriztiko idazki hau atzo arratsaldean.

1914-VII-10

BILDURRAK EZ GAIZAN ZORATU ETA GALDU

Banku baten ipinita dagozan diru guztiak ezin euki leitekez bertako baztertxu baten geldia, horretarako, ba, ez litzateke behar ez Bankurik ez ezer; norberak zulo baten sartu eta eukitea nahikoa litzateke. Bankuak, berari emoten jakozan diruak, arazo edo irabazpide askotan erabilten dauz, meatza⁷⁵, burdinbide, eta abar; eta irabazten dauenetik, hartuta daukan dirua ordaintzen dau ehuneko honenbestegaz, emoten deutse alogera bere langileei, eta Bankua irasi edo fundetako dirua ipini ebenai be euren saria emoten deutse.

Bankuari dirua emon deutesien guztiak, bat-batera eskatzen badeutesie diru guztia, hak ezin dau erantzun, dirua batean-beste-an zabalduta daukalako eta ezin daikelako eskura ekarri hain arin. Hori jazoten danean Bankuak agertzen dau Epaikari edo juezaren aurrean ezin leitekela behin-behinean erantzun eskatzen jakonari, eta bere atea ixten ditu.

Inoiz hau jazoten da, Banku bat hartu-emon edo arazo txarretan sartu dalako eta bertan galtze handiak euki dauzalako; jakiten dabe dirua ipini dabenak eta joaten dira arin guztiak eske, eta Bankuak orduan polot⁷⁶ egin behar, egin behar ebalako.

⁷⁵ [Mina].

⁷⁶ Polot: porrot.

Orain Bilboko Bankuetan ez dago holakorik. Hemengo Bankuak ez dabe izan galtze handirik inon, euren hartu-emon edo arazoak gudea dala-ta ez dabe euki ikararik; betiko bidean eta ondo doaz. Zergaitik bildurtu, ba? Gudea dala han urrun eta zer horregaitik?

Baina notin edo persona askok ez dauka bururik ez bihotzik, erbiak baizen koldarrak⁷⁷ dira, eta gudea dala eta ez dala hasi jatzuz diruak atera eta etxerutzen, eta horra non ateak itxi eragin deusiezan hemengo Banku *Crédito de la Unión Minera* deritxanari, beroni galdu eraginik ospe ona, eta aurrerantzako bere hartu-emon edo arazoetako bideak estuturik.

*Créditoren*a entzun danean hasi dira deituten izugarriro erbi koldarrok eta beste Bankuetara joaten diru-aterateko. Honetara guztia galduko da, guztiak lurra joko dau, eta ganora barik, zio edo motibo barik, alper-alperrik.

Ez dago zio edo motiborik horretarako; ustetasun edo konfiantza osoa euki eizue, gizonak, eta eskuartean behar-beharra ez dozuen dirua ez eizue atera, itxi eizue Bankuetan orain arte lez, eta ez da ezer jazoko, guztia joango da ondo gaur arte lez, eta guztiontzat hobeto.

Hauxe dinotso Bizkaiko herriari Bilboko Saloskunde-Batzak⁷⁸ erderaz eta euskeraz zabaldu dauzan orri batzuetan.

Hemen hurrengo ipinten dogu euskerazkoa, euskera mordoiloan egina dagoan arren (Zaharronzalarena dirudi); *Salos-Batza* horrek gura izan dau bere orria ulertu dagiela ez bakarrik aberzale euskaldun garbizaleak, baita errezale euskaldun mordoilo-zaleak be. Ez dinogu, ba, ezer. Ondo dago.

Ea ba, gizonak, nasaitu barruok eta ardurea hartu daigun geure Bizkaia maite hau gaizkatzeko.

1914-IX-2

⁷⁷ [Kobardeak].

⁷⁸ [Cámara del Comercio].

MARGO-ERTIA

Atzo goizean joan ginan hemengo Gran Vian Delclaux-ek daukan saltoki edo denda handira, Artetatar Aureliren margirudiak⁷⁹ ikusteko asmoagaz.

Entzunda geunkan oso politak dirala eurok; baina egia garbi esan behar badogu hemen, gizonak! Politak baino politagoak cretxi geuntsen margirudi hareei.

Hogetakak dira, eta gehienak, ia danak, euskotar-irudiak agertzen dabez⁸⁰. Eta zelakoak? Euskaldunak bizi-bizi, eurak diran lez, irudiau⁸¹ ditu Artetak. Euskotar honectarik gehienak itsasotarrak dira: arrantzaleak eta arrain-saltzaileak.

Bat dago itsasondoko horma ganean arkoloka jesarrita aterantz begira, ha da gauzearen ederra! Horrelako taiurik ez dago inon geure abenda honetan baino, ha jesarkerea ikusita bakarrik euskeraz hitz egin legio edozein gizoni, huts egingo dan bape bildur barik.

⁷⁹ Margirudi: margo-irudi.

Aurelio Arteta (Bilbao, 1879 – Mexiko, 1940). Garaiko pintore ezaguna. Hamahiru urtegaz Bilboko Arte eta Ofizioetako Eskolara joan zan. 1893an Valladolidera doa familia osoagaz eta 1897an Madrilerik ikasketak amaitzeko. Bizkaiko Foru Aldundiaren beka bati esker, Parisera doa eta han impresionismoaren cragina izango dau bete-betean. Beste eredu iturri batzuk be izan zituan. Hainbat crakusketa egin ebazan garai haretan. Gerra zibila hasi zanean, Espainiatik joan beharra euki eban eta Mexikora doa. 1940. urtean tranbian istripu bat izanda hil zan.

⁸⁰ *J.t.* dagerrez.

⁸¹ Irudiau: irudikatu.

Beste batek irudi dau: zaldidun burdi bat ikatzagaz eta gizon bi ikatz hori burditik gabarretara aldabiauten, ha da zaldia, ederto antzeztuta! Hareek dira gizonak! Esan leiteke bertan hizketan hasi behar dabela, hain berberak; eta zaldiaren aurretik agiri da ibaia, eta bertan gabarra bat, eta gabarrazaina arraunari helduta oker-oket indarka, zein polito!

Astia eta lekua bageunka, pozik adierazoko geunkez han dagozanik gehienak, bata baino bestea egokiagoak eta ederragoak diralako Artetaren laurka edo koadruak.

Aldi ederra igaro genduan eurai begira. Batzuk eukien ingizati bat barrenean *Salduta* inoenak. Dirudun ez izateak mindu ginduzan atzo; bestelan, ba, erosiko genduzan bat baino gehiago.

Urten ginan kalera, eta begiratu genduan saltoki-leihora⁸², eta harrituta gelditu ginan bertan dagoan laurkeagaz; ezpata-dantzari mutil bat, ikurrinduna, atzean daukazan bere lagunai begira arpegia bihurtuta gorputza aurrerantz daukala; atzertxuago eskuman agiri da beste ezpata-dantzari bat aurrerik hara, baserritar arpegi berberaz; ezkerraldean neska gaztetxo bat... politoago, dantzariei begira, okotza luze-luze ipinita! Ikurrindun mutila be geutar huts-hutsa da, gorputz zardena, bihorra eta jaso, haxe da abenda-eredua!

Laurka edo koadru hau be Artetarena da.

Zorionak opa deutsaguz⁸³ beroni, eta zoriondun gara geu be agertu jakulako margolari bikain-bikaina, geure abenda-eredurik onenak eta zindoenak, arrantzalea eta baserritarra, egin-eginean begiz jo eta irudiauten dakialako.

Ekin, ekin bide horretatik, Artetatar Aureli, eta zeure abenda euskotarra goralduko dozu. Gora Euskadi!

1914-XI-20

⁸² [Eskaparatera].

⁸³ *J. I.* dopaltsoguz.

AMERIKAKO IZPAR BATZUK

Ipar Amerikako Laterbatzan⁸⁴ da (*United States of North-America*) Idaho (*Aidajo* esaten dabe eurak) laterria⁸⁵ eta hantxe da *Boise City* uria.

Uri honetatik etorrira ikertu⁸⁶ gaitu euskaldun abertzale gazte eta zindua dan Bilbaotar Nikola galdakoztarrak⁸⁷. Beragaz izan dogun barriketaldian entzun deusguzan izparren batzuk hementxe argitaldu gura doguz, beharbada gure irakurleei atsegin izan legioe hango barri jakitea eta.

Euskaldun asko dago alde haretan, Boisen bertan eta honen inguruko basamortu zabal-zabaletan, azkenengook ardizaintzan⁸⁸ dabilzanak, besteak salerosian eta eskuzko lanetan.

Hirurehun euskaldun inguru ei dagoz oraintxe Boisen lan baga, bildotsen jaiotzaldiaren begira. Hamaika aharrausi badabe egiteko gizajoak, ba, epailean⁸⁹ izaten ei da han be bildots-aldia.

Itxarote honen zergaitia itandu geuntsan Bilbaotar Nikolari eta esan euskun: "Hango artaldeak edo artegiak eukiten dabez 2.500 buru gitxi gorabehera, eta artzain bakar baten ardurapean

⁸⁴ Laterbatza: Estatu Batuak.

⁸⁵ Laterri: nazino, estadu.

⁸⁶ [Bisitau].

⁸⁷ *J.t.* galdakaotar.

⁸⁸ *E.j.* artzaintza.

⁸⁹ Epail: marti.

ibiltan dira urte gehiengan; bildots-aldian, barriz, sei artzain ibiltan dira artegiagaz; horregaitik lagun asko basora joaten da orduan, langilea bilatua izaten da. Geroago, bildots-aldiaren ostean, artalde bakotxagaz bi egiten dira, eta orduan artzain bi ibiltan dira”.

Boisek ei ditu hamazazpi mila arima inguru, eta bera da lurralde zabal handi baten buru.

Euri gitxi izaten ei da alde haretan. Mendiak badira ugari, ez handiak ez zorrotzak, bizkardunak. Hatxik ez dago; lurra da haretsua eta harri koskortsua, zeinda inoiz uriola ikaragarriren batek ekarri baleu lez.

Mutil honek dino Laterbatzan lana urritu ezker atzerritarra larri ibiltan dala, bertako semeari emoten deusie lehenengo eta. Tira, hori alde guztietan jazoten da, hementxe Euskadin izan ezik; hemen, atakoak edo kanpokoak sarri izaten dira herrikoak baino behinagoak; eta guk esaten dogulako hori ondo ez dagoala, hori ez dala zuzena, etxekoa lehenago dala erbestekoa baino, horrexegaitik euskaldun kirten askok eta askok, haserrearen haserreaz bizarrak be dardarka dabezala, esaten deuskue karidaderik ez dogula, zoro eta txotxolo buruaren apurrik ez daukagun batzuk gara-la, narrua zulatu⁹⁰ behar leuskiguela, urkatu egin behar gindukiezala, zeruko ateak itxita daukaguzala, eta honeetarik lorak. (Egia da, lora honeek gorabehera, ederto lo egiten dogula, eta apertorik onenagaz garbitzen doguzala geure errazinoak⁹¹, *ke kontxol*).

Esaten dabe mundu asko ikusten dauenak asko ikasten dauela. Hauxe gogoratu jaku, Amerikatiko mutil honek edesi edo kontau deuskun jazokun bat entzunda. Hara. Hor, Lekeitio aldeko bat egoan ontzira sartu eta honantz etorteko New Yorken; bostehun ogerleko eukazan berak han lanen lanez aurreztuta; hone-

⁹⁰ *E.j.* zuluu.

⁹¹ *J.t.* errazionea.

tan alboratu jakozan gizon bi, eta batak esan eutsan hamar mila ogerleko bialdu gura leukezala Europara bere etxera, eta horretarako gura leukela topau gizon zintzo benetako bat, eta ordainduko leuskiola ondo eroate hauxe; gizon ezagutzaille ona zala bera, eta lekeitiarra ikusiaz batera oldoztu edo pentsau ebala haxe zala behar eban gizona; beste honek orduan *tira ba*, eta sartu ziran akeitetxe baten diruok emoteko, bide batez eztarriak txol bat edo bigaz laban ipinteko laztasuna kenduta.

Jesarri ziran hirurak arkoloka euren biziko adiskideak balira lez, eta euskaldunari esan eutsan hareetariko batek:

—Hara, hementxe daukadaz diruak —bilgo edo pakete bat aterata dirua eukana—, behar dan lez eroan daizuzan, hobeto izango da zeure diruakaz batean ipintea, guztia bilgo bat eginda; aterazuz zeure diruok, arren.

Atera ebazan gatxbako harek, eta ipini ebezan danak baten, eta emon eutsien berari Europara ekarteko; berehalako baten *Agur* eta *Agur* alkari eginda banandu ziran. Gure euskaldun honek baeban halako kezka zor-zor bat, eta bakarrik geldituta laster, sakeletik atera eta begitu eban bilgo edo paketea, eta hak ez eukan besterik harri-koskorra baino. Agur bere bostehun ogerleko txuak! Orain gorantziak bialdu heikioez⁹².

Txori harrapari bi hareek bilgo bi bardin-bardinak euki ebezan, bata diruagaz eta bestea harkoskorraz; lehenengo, ha erakutsi bestearen diruak harrapatzeko, eta gero batz bestea ordeztu edo trukau, eta dirudunagaz eurak gelditu eta harkoskorduna emon beste gizajoari.

Asko ibili danak asko ikasi dauela...

Ez dot ezetzik esango, ez jat atsegin izaten eztabaidan ibiltea eta; baina bai esango dot nire herrian badirala gizonak inoiz bertatik urten ez diranak, eta hamar bosti jokatuako neuke, hareei ezetz atera txanponik ludian diran timadore bizkorrenak... ezta!!

⁹² *J.t.* egikioezak.

Belarri bat lehenago kendu legiee atzipez⁹³ txakur txiki bat baino, tresna ederrak dira, ba, eurak ezer ez emoteko.

Honeek, ba, ezer be ibili barik, ederto ikasita daukie inori ez jakola emon behar norbere dirurik; eta lekeitiar hori, Ameriketatik eta ibilia izan arren, horixe ikasi barik egon da. Orain ikasi dau, ondo kostata! Eta behingo-behingoan ez dau emongo dirurik... inoiz euki badagi.

Guk, euskotarrok, odolean halako filosofo-parrastada bat edo badogula uste izaten dot nik inoiz... Horra hor, bape igarri barik hasi nazala neu be filosofietan sartzen. Jaunak jagon⁹⁴ gaizala, ene!

Herri txikietatik euskeraz idazten deuskuenen artean be badi-ra filosofoak, bertan zer jazo dan laburto esan beharrean, sekulako sermoiak jaurtiten deuskuezanak, eta... mutilak! Leku estuagaz barregarri gabilz hemen, eta sermoidun idazkiak argitaltzea izan leiteke, baina nekez, eurok azkenengo ixten doguzalako.

Ondo etorri dirautsagu Bilbaotar Nikola mutilari, eta ez dagiala alde egin inora Euskaditik berau baino leku hoberik inon ez dago eta.

1914-XII-7

⁹³ [Engainuz].

⁹⁴ *J.t.* jabon.

EGURALDIAREN ZORAKERIAK

Eguraldi hau bē, senetik urtenda dabil egunokaz, batean hotz, bestean bero, antza danez ahaztuta udagoiena dala eta uste izanik udabarri gazte aldatian gagozala.

Edur eta guzti, negu-neguko jantzita agertu jakun lehengo hilean, eta arrapalada baten atera kutxa hondoetatik eta jantzi genduzan arin-arin soineko lodi astunak, eta danok ibili ginan alkarri esaten: "Aurten, gogorra eta goiztar jatork!".

Gero, hil honetan sartu ezkerro, hasi zan epeltzen, eta epeletik berora igarorik, hemen ibili gara beroa jasan ezinik lehengo egunetan, geure soineko lodiak izerdiz urtuten izan gaituela.

Eta jarri zaitez udako soinekoakaz, eta zorian zagoz eguraldi zoro honek biraketa bat eginda hotzera sarturik, alborengo⁹⁵ batek edo harrapauta eroan zagizan beste aldera txirikilan.

Eta horixe jazo behar jake nik atzo ikusi nebazan batzuei, lehen aitatu dodan biraketa hori heldu da ba-ta; hasi da euria, eta beronegaz hotza; batek badaki eguraldi honek zelako taiua izango dauen bihar.

Nortzuk diran biraketa horrek hondatuko dauzanak? Hara, atzo goizean neure egunoroko (ahal dodanean) ibilketea nerabilela, ikaratuta gelditu nintzan hor; Bolueta aldean, ikusirik urretx

⁹⁵ [Pulmonia].

arlotxu bat loran, edo hobeto esateko, birloran. Polito egozan gero, abar guztiak lora dindirriz beterik.

Eta neure kolkorako esaten hasi nintzanean: “Zer? Birloratu-ta? Egutegi edo kalendarioa galdu al dozue? Ez al dakizue, urretx gaixook, lotazilan⁹⁶ gagozala? Atera dozuezan lora dindirri polit horreetan urrik sortuko dalakoan ete zagoze? Erruki zaituet, dindirritxo orlegiorreek, zuen heriotza hurrean da eta!”.

Honetantxe nengoala igaro jatan sudurraren aurre-aurretik mitxirrika⁹⁷ edo txiribiri bat.

Mutilak, lorak eta txiribiriak! Orduantxe gelditu nintzan ezpa edo dudan, lotazilean ala jorrailean ete gengoan. Holakorik, horraitino!

Baina ezpasuna edo dudea ezereztu eusten ondo arratsaldean abiau ziran euri zaparradak, eta aroak hartu eban hotzera bideak.

Urretx-lora dindirriok, txiribiri polita, eta udako jantzi zarienok, zuen tamala!

1914-XII-10

⁹⁶ Lotazil: abendu.

⁹⁷ Mitxirrika: tximeleta.

GURASOAK, ZUHUR EGON ZAITEKEZE!

Gueñes deritxan Bizkaiko herri txikian gizon alargun bat bizi da bere alaba gazte bigaz; hauetarik bata ezkondua da, eta bere senarra Amerikan dago salerostetxe edo komertzio-etxeren baten otsein edo.

Lehengo egun baten agertu jaken etxean andera edo dama bat, dotore jantzita, eta adierazo eban, etxe hartako suin eta senar gaztearen etxekoandrea zala. Europara ibilaldi bat egiteko ustez etorri zala; honantz urteteko zanean, Gueñesko senar gazteak eskatu eutsala ikertzeko edo bisitetako bere emazte, aitagarreba eta koinata, eta diru moltsotxu bat be emon eutsala honeei ekarteko.

Senar gaztearen zertzelada guztiak ondo eta zehatz esan ebazan, eta sinistu eutsien. Han euki eben andera edo dama hori egun oso baten, jan eta edan handietan, zer gura eta haxe.

Ekarririko dirua mila pezeta zirala-ta, Bilboko Banku-etxe baten hartu behar ebazala-ta, esan eutsen etxekoei alaba biak etorri eitezala beragaz Bilbora diruok hartu eta etxeratu egiezan. Aitak esan eban bata etorrita be nahikoa izango zala; baina besteak ahaleginak egin ebazan biak ekarteko, esanik atzerakoan be hobeto joango zirala biak alkarregaz Gueñesera. Aitak ezetz, bata etxean behar ebala, zereginak egiteko eta bazkaria gertuteko, alaba ezkonduak Bilboko barri badakiala eta bakarrik joan-etorri egiteko ez ebala ardurarik.

Etorri ziran, ba, anderea eta alaba ezkondua trenean Bilbora, eta hemengo Santander geltokian urten eta kaleratu ziranean,

itxaroten eukien bertan automobil bat, eta andereak esan eutsan gazteari:

—Tira, igon, sartu gaitезan hementxe.

—Norako? —erantzun eban honek, ia susmo txarra hartzen hasita.

—Santanderrera. Trenean esan deutsudan lez han daukat zeregin estu-estua itxaroterik ez daukana; goazen hara biok orain, eta behingoan etorriko gara atzera, eta egingo dogu hemengo zeregina. Tirozu, lagun eidazu.

—Ez, ez noa neu inora; zoaz gura badozu zeu.

Hau gogor esanda entzun ebanean, andera ha sartu zan automobilean eta Gueñesko emazte gaztea gelditu zan bakarrik. Hurrengo trenean etxeratu zan eta edestu⁹⁸ eutsan aitari andere-agaz jazo jakona.

Honantza Gueñestik etozala barriketan, andera harek aitatu eban Santanderreko ostatu-etxe bat, eta alabeak gomutan ondo hartu eban zein eta non zan ostatu hori uri hartan. Orduan aitak hartu eban asmoa biharamonean Santanderrera joan eta jakiteko, ahal baeban, zetariko txoria zan etxean euki ebana.

Holantxe egin eban, ba, eta ostatu hartan anderearen zertzeladak esaten hasi zanean, itandu eutsien:

—Alabarik atera deutsu etxetik?

Edestu eban gizonak jazorikoa, eta ostatukoak esan eutsien:

—Jaungoikoari eskerrak egikeozuz⁹⁹, jakin dogu, ba, emakume hori ibilten dala atzipez edo engainuz neska gazteak etxetik ateraten eta hondatze-tokietara eroaten, Amerikara bialtzeko, han betiko galdu daitezcan gorputzez eta arimaz. Zorionez ez zan sartu zure alaba zuhurra automobilean!

Irakurleak, jazokun hau zabaldu eizue, arren, ahal dozuen beste, begiak zabaldu dagiezan gure herrietako gurasoak, neuk

⁹⁸ [Kontau].

⁹⁹ Eskerrak egikeozuz: eskerrak emon zeinkioz.

dakit, ba, txitean-pitean etorri ohi jakezala Amerikan semeren bat daukienai, beronen izenean datozala esanik, eta sarri izaten da arrebaren bat eroan gura izatea harantz nebeak eskatu dauela-ta, asko irabaziko dauela-ta, inon diran barriketakaz.

Zain egon, eta ez bialdu alabarik Amerikara ez inora ezezagunakaz; ezagunakaz bialduta be ikusten dira, ba, inoiz ikusi behar ez litzatekezanak.

1915-I-14

ATSO BATZUEI

Igaz, Alderdi Jeltzaleak atondu eta salgai ipiniriko *Egutegi euskotar* bakotxak, hamar zenbaki¹⁰⁰ eroiazan lotazilaren 21garren eguneko ingurrian¹⁰¹. Nik etxean euki nebanak, behintzat, egun horretantxe eukazan zenbakiok.

Zenbaki honeek ziran zozkera edo suberte baterako, honetara: Espainian, urtero lez, azken lotazilaren 22garren egunean jokatu dan loteriako sari lodia irabazi dauen zenbaki edo numeroa euki dauen egutegiaren jabeari emongo jakozala errediza¹⁰² ederrak, logela bat handiro horniduteko, agindu¹⁰³ zan.

Sari lodi hori urten jakon 50.047 zenbakiari. Nik neure egutegiko zenbakiei ondo zuhur begiratu neutsen, baina ez zan bata be; puskatu ingurritxua, eta kitu, gehiago gomutarik be ez.

Eta... horra! Heltzen jat harainegun idazkitxu bat euskeraz, nork egin dauen agertu barik, izengea edo anonimoa, beronen hizki edo letratik nor izan leiteken susmo samarra hartzen dot baina; idazki izenge horretan, beste gauza batzuen artean, hauxe dino:

“Egunean-egunean zain, gero, noiz *Euzkadin* begiztauko nori urten eutsan, eta bapez. Ene baserritxuan izan nintzan Gabone-

¹⁰⁰ [Edo numero].

¹⁰¹ [Ingi-orrian].

¹⁰² Errediza: altzari.

¹⁰³ *J.t.* abindu.

[Prometidu]

tan, eta atso guztiek galdezka dandarrez, ea nori urten eutsan; ez nekiala, ba.

—Periodikuak be ez dino ezer?

—Ezebez.

—Ederto atzipetu gaitue! Hurrengoan ez dogu erosiko eta hor konpon.

Esan neutsen igaz ez zirala salduko zenbaki guztiak eta hortik geratuko zirala gauzok. Puskat atsook zuritu ziran batzuk, besteok marmarka etxeruntz joiazan”.

Arranoen atsoak dira gero eurok! Zer da *atzipetu* hori? Nork atzipetu zaitue? Zergaitik hori esan behar dozue? Eta beti esan behar azkenengo hitza aurrenengo: “hurrengoan ez dogu erosiko”.

Atsotxu gogo-erreori: zeure egutegian euki dozuz zozkerarako hamar zenbaki; eurotariko bat loteriako sari lodiena izan al da? Joan beragaz Alderdi-etxera erredizaren eske. Ez al da? Ez dozu zori onik izan. Baina ez eizu esan inork atzipetu¹⁰⁴ zaituanik.

Hondinokarren inortxu ez da agertu Alderdi-etxean loteriako sari lodiarene zenbakiagaz; ez dakie, ba, nori urten jakon erredizazko sari hori; hemen guk be ez dakigu, jakina! Eta ezin esan, ba, periodikua ixilik, eta atso horreek haserre esaten ez dogulako; zelan esango dogu ez badakigu?

Atso horreek, *atzipetu* hitza erabiliaz erakutsi dabe uste ebelagutegia hartu ezkerorredizak nahita ez¹⁰⁵ eurentzat izan behar ebela; ez dira haserre nori urten jakon esan ez jakelako, ez, eurentzat izan ez diralako baino. Horreek gurako dabe egutegia hartzene dauen bakotxari emotea erredizak etxea apaindo ipinteko, egunean-egunean oilasko guri bat, eta lukainka txorta bat, eta turroia, upel-bete ardao sendo, zorro-bete diru gorri eta... ilargiaren adar bat.

¹⁰⁴ [Engainau].

¹⁰⁵ [Derrigor].

Tira ba, hori gura badabe, haserrerik izan ez daiten, neuk aginduten deutset atso horreei, hor esan dodan guztia datorren urterako. Esana, esanda.

1915-I-25

GAUR DEUN BALASI

Ez ikaratu eta ez haserratu, gizonak. Deun Balasigaz espainiarren San Blas esan gura dogu.

Gaur izaten da Abadiñon baku edo feria ospetsua, behintzat Bizkaia guztian, Araban eta Gipuzkoaren alde handian entzutea daukana.

Baina ezer baino lehenago eskatu degiogun Balasi Deunari geure bitarteko izan daitela Jaunaren aurrean, eztarriko minetik eta eztuletik aske bizi izan gaitezan. Holantxe.

Abadiñora gaur joten dabe baserritar talde izugarriak saldu eta eroatera. Baku horretan gehien ikusten dana da abelgorria eta behorra, batez be, behor aberea.

Zaldi, behor, behoka¹⁰⁶ eta txikotan asko batzen da, eta urte gehienetan saltzen da eurrez abere hau. Gaztela Barrian¹⁰⁷ eta Andaluzian asko maite izaten dabe hemengo txiko edo zaldi txikia, bizkorra, eta indartsua, eta bizi-bizia dalako, eta honez ganera, ardura gitxi eskatzen dauena, mizkeriarik bape ez daukana. Han ezagutzen dabe txiko edo zalditxo hau *jaquita navarra* izenagaz; eta bertako zaldi endaki¹⁰⁸ handiagaz kurutzatzen dabe.

¹⁰⁶ Behoka: behor gazte.

¹⁰⁷ J.t. Castilla Barrian.

¹⁰⁸ [Clase].

Jakina, hainbeste notin biltzen dan tokian, beste gauza asko be saltzen dabez, gehiena baserritarrentzat egoki datorren gauzea, atxurra, aizkorea, arranak, ugalak, eta abar.

Baserritarrak arranak erosten dabilzanean izaten da gauza begiragarria; euretarik batek arranak eskuan hartu eta hots eragiten deutse, eta lagunak urintxora joan eta entzuten egoten dira handixik hots ona daukien ala ez igarteko.

Osakai¹⁰⁹ saltzaileak be hainbat izaten dira: haginoko minentzat, zaurientzat, suge-haginkadentzat, eta abar. Hitzetan edo berbatan egiten dabe saltzaile horreek gaur...!

Barkilero, txurrero, eta honeen antzeko komerziantek be ugari.

Soinu-jotaileak, barriz... erlea! Dantza-nahaste lohi zikina ikusten da bertan.

Abadiñoko baku edo feria honetara be ezin hutsegin, ba, ijitoak euren asto jenteagaz. Harainegun joiazan hemengo Erriberatik zehar Atxurirantz ijitano pilo bat asto talde handiagaz, eta esan genduan: "Horra hor doaz Abadiñoko *parrokianoak*".

Baserritarrak be erooten dabez euren astoak hara, bertan saldu eta barriak erosteko.

Gaur argitaltzen dogu hemen hurrengo, abadiñar batek bialtzen deuskun idatzi bat asto arazo honezaz.

Gaur eguraldi ona daukiela abadiñarrak esan leiteke, behintzat hau idazten gagozan artean antz ona dauka.

Halantxe iraungo ahal dau, eta saldu-erosi asko izango ahal da, eta gauerako bakotxa bere etxeratuko ahal da bake-bakean!

1915-II-3

¹⁰⁹ [Erremedio].

ALDE GUZTIETAN...

Hementxe daukagu Biritxinagatar Josebaren idazki bat eta bertan dino bere adiskide batek hauxe idatzi deusala Amerikatik: “Europako notinik gehienak ijitoen antzera gabilz hemen, txindi barik; eta Euskal Herrian ibiltzen ginan baino askozaz txartoago euskaldunok”.

Izpar honek ez gaitu bape ikaritzen, antxinatik dakigu, ba, Amerikan bat edo batek diruak egiten dauzan arren, gehienak bizi dirala estu eta larri, bata izparringi-saltzen, bestea aurangi¹¹⁰ saltzen, eta abar, eta horretara ez dabilenak be, lan egin behar sendo, bizi izateko lain egin-eginean irabazteko.

Banaka txiki bat alderatu ezker, beste enparau guztiak ez dabe egiten besterik bizi baino, eta honeetarik gehienak, txarto, oso txarto.

Eta horretarako laga hemengo bizibidea, dirua gastau haragi-no joateko, eta itsasoz ibili hainbat egunean narrua ganora barik uretan ixteko zorian?

Zorakeria da.

Igarten da Amerikara joatea irabazleku jakinera joatekotan, noren etxera, eta zer egiteko, eta zenbat irabazteko doan eskier-eskier¹¹¹ jakinda; baina itsu-itsuan, gehienak joaten diran lez, “zelan edo halan atonduko nok” esanda, astakeria handia da.

¹¹⁰ [Naranja].

¹¹¹ [Seguru-seguru].

Euskaldunen antxinako esakunea da: “Alde guztietan txakur-
rrak ortozik”.

Hemen, bizi izateko, lan egin behar. Amerikan eta edonon be,
bizi izateko, lan egin behar. Mutilak, ba, horretarakotan, norbere
Aberrian bizi eta lan egin. Zetako inora joan?

Hemen hainbeste lanbidetan ikusten doguz atzerritarrak; ira-
bazte gitxi emoten daben lanak gehienak, egia da, baina Ameri-
kara joanda horreetariko lanetan ibili behar izaten dabe euskal-
dunak. Ez litzateke, ba, hobeto izango bertan, geure Aberri eder
eta ugari honetan, hartzea bizibide horreek?

Baina badakit zer jazoten dan: lotsatu egiten dira euskaldu-
nak bizibide edo ofizio batzuk hartzeko. Amerikan egingo leukie-
na hemen egiteko adorerik ez, jentearen zeresanaren bildurrez.

Jaungoikoaren agintza deunak hausi ezik, ez dau gizonak lo-
tsarik izan behar ezegaitik.

Ahalegin guztia eizue geure Aberri hau ez ixteko, berau lako
tokirik ez dozue inon idoroko eta; ez tokia bakarrik, bertan lako
jenterik¹¹² be ez... artobero usaina gorabehera esan behar hauxe
be, egia dalako.

Nik ez dot asko-asko ikusi, baina gure Aberri honi hurrik
emoteko herririk ez dot idoro; eta nire aldean herri askotatik ibili
diranai be beste hainbeste entzuten deutset; hori... euskotarrak ez
diranai. Ea euskaldunentzat non egon leiteken hau lakorik.

Ai, Aberri kutuna! Neure asaben bizitoki polit ederra, ugarria,
gozatsua, ez hotzean ez beroan gehiegia! Non hobeto bizi hemen-
te baino?

Ez nagiala Jaungoikoak inora atera¹¹³ hemendik! Ez dot inora
joan gura; hementxe beti bizi gura dot, eta ez neuke alderik egingo,
kapela zahar handi bat buruan eta sorbaldan tximinotxu bat doda-
zala herririk herri ibili behar banau be kanta-paperak saltzen.

1915-II-4

¹¹² J.t. jende.

¹¹³ J.t. atarau.

DEUN AGATE

Aintzaldu daigun Agate Deuna
gaur dogu ba Deun Agate

Geure Jesukristo¹¹⁴ Jaunaren jaiotzatik 230garren urtean jaiotzen zan Katania deritzan Siziliako urian, guraso kistar¹¹⁵ zintzo batzuekandik. Etxean ikasi eban kistartasun zehatza, eta gazte-gazterik bere garbitasuna opaldu eutsan Jaunari.

Neskatila ederra eta adimen argiduna zan. Siziliako gobernadore Kinken eritzanak emaztetzat gura izan eban, eta ezezko biribila emon eutsan. Orduan gorrotoak hartu eban gobernadorea, eta kistarren jazarkundea¹¹⁶ zan lez aldi hartan, zematu eban neskatila hau; edo bere esanera jarri behar ebala, edo kistarra izateari itxi behar eutsala, bestelan txarto erabiliko ebala.

Gazte deun honek erantzun eban ez egoala ez baterako ez besterako; eta orduan, gobernadorearen aginduz, oratu eta sartu eben etxe txar baten, baina ezin izan eben okertu bere gogo zuzen deunorra; hau ikusirik, inon diran gaiztakeria gogorak egin eutsiez; gorputz guztia makilaka banatu, burdinazko atzamarrakaz haragiak urratu, eta bular biak ebagi eta kendu.

¹¹⁴ *J.L. Josu-Kisto.*

¹¹⁵ *Kistar: kristinau.*

¹¹⁶ *[Persekuzioea].*

Hau eginda sartu eben espetxe-gela ilunean giltzapean, eta hantxe agertu jakon Deun Kepa Beldua¹¹⁷, eta beronek osatu eutsazan zauri guztiak.

Kinken gobernadore ankerrak agindu eban orduan txingartzat handi baten ganean etxunda ipini egiela, eta halan egin eben. Honetan ebilzala, jazo zan lurrikara handi bat, bertan bizia galdu ebela Silbin eta Palgon critxen gizon gaizto bik, Agateren kaltez gobernadorearen aurrean guzura dariola ebilzanak.

Eroan eben barriro Agate neskutsa espetxe-gelara, eta bertan hil zan 251garren urteko otsailaren 5ean, hogeta bat urte ebazala. Kistarrak eurakandu eben Deunaren gorpua, eta Katania urian lurra emon cutsien.

Hango aldean, Deun Agate hartzen dabe bitartekotzat Jaunari eskatzeko jagon daizala lurrikaretatik eta sumendiaren¹¹⁸ hase-rraldietatik.

Euskaldunen artean geuk ez dakigu noiz, eta zelan, eta zer-gaitik sartu eta zabaldu zan Deune honenganako eraskundea¹¹⁹. Jose María de Oiarbide¹²⁰ lakoren batek, beharbada, jakin leike zerbait honezaz, eta eskerrak egingo geunskioz esango baleusku dakiana.

Deun Agate aurregunean etxerik etxe abestuten ibiltea, guztiz da antxinako ekandua, ba guk ezagutu doguzan gizonik zaharrena be entzuten izan geuntsen, eurak gaztetan ezagutu ebezan zaharrenak, geuk lez eukiela ekandu hau.

¹¹⁷ [Apostolua].

¹¹⁸ [Volcán].

¹¹⁹ [Deboziona].

¹²⁰ *Jose María de Oiarbide*. Gregorio Mujikaren gaxizena (1882-1931). Oruaiztegin-jaió zan. Oso gaztea zala sentidu eban euskeraren eta euskalgintzaren aldeko eretxia ezeze gogoa be. *Euskal Esnalea* alkarteko idazkaria izan zan, *Euskalerraren Alde* aldizkariko sórtzaile eta zuzendari, beste hainbat aldizkari-tako urgazle, laguntzaile... Hizkera herrikoia erabilen eredutzat. Adibiderik argiena *Pernando Amezketarra. Bere ateraldi ta gertaerak* liburua dogu (1927an argitaratua).

Geuk lez hau, zelan dan horraitino, aspalditik ia galduta dauka lehenagoko antza. Lehenago, gau honetan batzen ebenagaz meza bat agindu, eta entzun, eta gero askari¹²¹ bat egiten eben abeslariak; baina orain gehienak ez dira gogoratzen mezarik agindu eta entzuteaz, biharamonean edo hurrengo igandean mozkorra hartzeaz baino. Eta toki asko eta askotan hauxe be ez, oso galduta ekandua.

Hemen Eusko Gaztediak berbiztu dau, eta guztiz ederto, batzen dana oso-osoan emonik Eusko Janztegiari eta Eusko Ikastolai, ezetarik askari barik, eta hurrengo igandean Jaupa¹²² bat ospatu eraginik emoileen alde otoi egiteko.

Ekandu polita.

Bart urten ziran hemengoak laugarrenez. Hor bederatzi eta laurenetan etorri ziran gure Idazkola honen aurrera abeslariok euren inguruan notina inurria baizen ugari ekarrela. Danak batera, eta egoki, eta zoli abestu eben. Aupa mutilak! Zuek zarie, zuek!

Eta orain, irakurleak, Deun Agate-agurra dagitsuet guztioi, eta

*Agate Deune bitarte dala
ez eizue izan dongerik. Holantxe.*

1915-II-5

¹²¹ [Merienda].

¹²² Jaupa: meza.

ANDERA MIREN EPAILEKO

Oraintsuko euskaldunak, eta gaurko askok be bai, ez deutsie deitzen holan gaurko egunari, Andra Maria Martiko baino.

Oraintxe sartzen da udabarria, esakune zaharrak adierazoten dauen lez:

*Andra Maria Martiko
artean udea tatiko
harik aurrera betiko.*

Tatiko horrek esan gura dau, orain artean eguraldi on epela beti be agertzen dan arren, berehala tati egiten dauela, eskini eta emon ez; baina gaurtik aurrera tati barik izaten dala eguraldia ona eta biguna.

Horraitino, ez asko-asko sinistu, badaezpadan; jorraila sartuta be izaten dira eguraldi gorri latzak, eurite, edurte eta izozteak.

Egunokaz aro edo giro ederra dogu, baina jantzi lodiak euki beti eskuaz berehala hartzeko lez.

Eguraldi eder honeek ederto jatorkez baserritarrai creiteak egiteko, eta lurak gertetako arto-ereitaldirako.

Irako urrutizkinez¹²³ jakin dogu kukuak maletak gertetan

¹²³ [Erradiograma].

dabilzala honantz etorteko, eta laster izango dira hemen udabarritar txori begikoi horreek.

Abegirik onena egingo deutsegu.

1915-III-25

ARRENTZEAK

Edo nire herrian esan ohi dogun lez: errogatibak.

Gaur, bihar eta etzi dira, Igokunde edo Asentzio aurreko hiru egun honeetan. Ni mutikoa nintzanean (hamaika euri izan da ordutik hona!), honako egunetan joaten ginan egun baktxean basatxono¹²⁴ batera, abade, eta gizon, eta umeteria, Deun Otoitz Erreskadea¹²⁵ abestuten.

Goiz-goizetik eleizara arin, norbere gosaritxoa zapi baten bilduta, eta gero handik, abade eta gizonakaz batera, mendian gora. Ha zan poza! Zein gozaro bete ohi genduzan mendi haize hozkiritz geure bularrak! Zelako harritasuna izaten genduan mutikokak, harako "Sancte Andrea!" Abadeari entzuten geuntsanean, alkarri ahopean esanik: "Ene, andrea esan jok!". Zelako indarrak esaten genduan "Te rogamos, audi nos", hau crantzun behar zanean!

Eta gero, basatxonoaren ate¹²⁶ aldean, zugazpeetan, Meza entzuten, han ingurutik etozala ardi eta behien arranots maitegarriak, zozo eta birigarroen txorrotxio eztitsiak. Bakotxak bere gurari eta atseginak daukaz, eta inorenaz txarrik esateko asmo txikerrenik barik dinot, pozago entzungo neukela holakoxe Meza

¹²⁴ [Ermita].

¹²⁵ [Santuen letania].

¹²⁶ *J.t.* at. Kanpo.

At: kanpo.

ixil bat mendian, zugatz artean, arranots eta txori abestiakaz, elei-za fanfarroi baten hiru abadeko Meza nagusia, apaintasun handiaz, eta organu, eta orkesta, eta abeslari zolienakaz baino.

Zein polita mendiko Mezea! Ondo iratsita gelditu jatan biho-tzean bere gomuta gozoa!

Ekandu onak bai ei darrai hondino nire herritxuan, eta ustea badot halako urte baten, bizi banaz, joateko txikitan lez arrentza edo errogatibara zapibil edo maletatxuan lukainka muturtxu bat, gaztae zati eta ogi-kuskur zati bat hartuta lehenago lez.

1915-V-10

ERTI-LAN EDER BAT

Goikoetxeatar Erroman, abertzale zintzoa dan otxandiarrak, Gasteizko Karmeldar Lekaretxerako¹²⁷ andea egin dau Ama Neskutsaren¹²⁸ irudia erabilteko.

Zurezkoa da, eta Erroman bera izan da asmatzailea eta langilea. Ez uste inork asmoa emon eta berak landu dauenik, ez; berea da guztia, berak atera dau buruz eta eskuz.

Ama Neskutsa-irudiarentzat andea egiteko Gasteizko lekaideak neurketea iragarri eben, asmorik onena agertzen ebanari lan hori emoteko. Asmorik ederrenak aurkeztu ebezan Apellaniz, Gasteizko zulepaile ezagunak, eta gure Goikoetxeak. Neurketerabagileak hobetzat hartu eben Goikoetxearena eta beroni agindu eutsien andea egitea.

Ederto egin dau, begiak atseginez jartzen dauzala ikusteaz bakarrik lan bertikoi honek.

Hiru gorputz daukaz. Beherengoa lau alde edo lau txurduna¹²⁹ da, eta txur baktxean dago, urten-urten, torre bat; lau torre honeek, euren urtendasunaz, beherengo gorputz honeri irudi eragiten deutsie lauburu edo kurutzeta. Torre baktxaren goian

¹²⁷ Lekaretxe: komentu.

¹²⁸ Ama Neskuts: Ama Birjina.

¹²⁹ Txur: zur.

aingeruok daukiez eskuetan Karmelgo Ama Neskutsaren kutunak¹³⁰ jenteari eskintzen lez.

Torre bakoxtaren ostean dagoz hiru txintxur¹³¹ luze, eta beste biak baino luzeagoa dan erdiko txintxurrean doa hiru besodun abarra, beso bakoxtak argi-leku bat daroala. Hiru argi-lekuok aingeruen atzean goitik agiri dira.

Torreen bitarteko lau aldeetan ikurdi¹³² polit batzuk dagoz, bata Ama Neskutsarena, bigarrena Jesusen Bihotza, hirugarrena Mariaren Bihotza, eta laugarrena Terese Deun Idazlearen ikurdia. Lau ikurdiok dagoz hiru txintxur politez hornidutako tokixuetan.

Bigarren edo erdiko gorputza zortzi aldekoa da; eta hirugarrena edo gorengoa be bai. Honek daroa erdi-erdian habe¹³³ bihorrera, bere ganean Ama Neskutsaren irudia jarteko. Habe honen inguruan hesi polita eginik dagoz hainbat txintxur, hamasei uste dot, danak apainez horniduta.

Txintxurretan, kurutzetan, zotz-hesitan, eta apain-txataletan hainbat dauka ze, urrintxotik beresi bat dirudi.

Eta alde guztietan daukaz zurean ebagiz aterata (anda guztia dago halantxe eginda) zugatz eta landareen orriak, aihenak eta ezkurak. Han agiri dira haretx¹³⁴, gorosti, kardo eta askoren orriak; haretx, gurbiza¹³⁵, eta honeetarikoen ezkurak; eta arka-sats, huntz eta honakoen aihenak.

Artontzi edo farolak hamasei daroaz; lehen esan doguzan aingeru osteetakoak hamabi, hiru bakoxtean; lehenengo gorputzean aitatu doguzan lau ikurdi edo eskudoen goiko aldean bana.

Artontziok be Erromanek berak asmaurikoak dira, ertikoiak¹³⁶. Txintxurak dira hirurogei; horregaitik esan dot beresi

¹³⁰ [Eskuplarioak].

¹³¹ Txintxur: punta, gailur.

¹³² [Eskudo].

¹³³ [Columna].

¹³⁴ *J.t.* hareitz.

¹³⁵ *J.t.* burbuxa.

¹³⁶ [Artísticos].

edo sasitza bat dirudiela. Anda eder hau sei gizonen lepoz erabiltekoa da. Guztiau dago urrebistuta, hemengo Txomin Landajo apaingile ezagunak lan hori ederto egin dauela.

Ganera, anda honek daroaz tokian-tokian margo-harri ederrak, zuri, gorri, urdin, orlegi eta abar. Guztiz ikusgarria geratuko da osorik amaitu dagianean. Guk atzo ikusi genduanean Landajorenean azken-ikutzeak egiten eragoien. Bertan esan euskuezez, datorren astean hemengo Gran Vian edo Geltoki kalean denda-leiho baten ipinteko ustea daukie jente guztiak ikusi dagian.

Datorren hilaren 16an Gasteizen karmeldarrak egiten daberen ibildaun ospetsuan lehenengoz aterako dabe anda hau. Baita beste bat, Pragako Jesus Umearen irudiarentzat Goikoetxea beronek egindakoa be.

Ertipaile edo tallista ontzat geunkan Erroman, lehendik egin dauzan lanetatik Gasteizko Gotzai-txadon edo Katedralean eta beste bat Durangoko Landaburutar Lukenen etxe-txadoneko ondi edo altarea; baina anda eder honegaz, gorengo lerroetan dabilzaren ondoan jarri da.

Zorionak, Erroman! Ekin lanean, eta jagon ondo antxinatik euskaldunak daukien entzute ona harria eta zura ertiz ebagiten!

1915-VI-27

BASURTUKO FERIARA ABEREA SARTZEARREN ZER ORDAINDU?

Atzo gure idazkide maite *Errizalek*¹³⁷ Basurtuko feriaz hauxe inoan: "Baserritarrak marmar ibili dira, abereakaitik ogerleko bana buruko kendu deutseela feriara sartzea eta".

Horra ba, atzo goizean egunoroko neure ibilketea eginda etxerantza nentorrela, Bilboko Urtoki-ondoan¹³⁸ dagoan arieltzain-etxanoan ingito bat¹³⁹ eskegita ikusi neban; zer ete zan hurreratu

¹³⁷ *Errizale*. Juan Bautista Eguskitza Meaberen gatzizena (1875-1939). Idazle lemoaztarra. Beste gatzizen batzuk be erabili zituan: *Lemoarra*, *Erri* edo *Errien*. Ekintza-esparru ugaridun gizona zan: erlijino idazlea, itzultzailea, sermolaria, euskaltzain osoa, etnografoa, ikerlaria eta kazetaria.

¹³⁸ [Mirafloresen].

¹³⁹ Orain azaldu daidazan hor gorago ipini dodazan hitz batzuk, haserreren bat sortu baino lehen.

Ariel: hitz honegaz adierazoten eben Bizkaiko euskaldun zaharrak erderazko *arbitrios municipales*.

Ettxano: erderazko *casilla* edo *caseta* da, -no atzizki horrek txikitasuna dadi-razo eta.

Arieltzain-ettxano, beraz, *caseta del celador de arbitrios municipales* (Euskeraz baino luzetxuago).

Euskeraz hondino laburtu leike *ariel* hori *aiel* esanik. *Aielak*, *aieltzain*, *aieltzain-ettxano*. Erderaz ezin leiteke laburtu *celador celaor* baino, eta hau ez da ezer.

Ingito: hitz honegaz nik esan gura dot ingi sendo edo lodia, -to atzizki horregaz sendotasuna adierazoten da eta. Nirc azarkeria bat izan da *cartón* ez esatearren, *cartón* be ba ingia da, ingi sendo lodia. Hitz hau neurea da, eta jaramonik ez egiozue gura ez hadozue, lehen beste adiskide izango gara hori gorabehera. Besteak, aurrekoak, lehenagokoak dira, politak eta gokiak, eta ikasi ondo eta ez ahaztu.

nintzan, eta erderaz inoan Bilboko Udalaren erabagi barriz, Basurtuko feria-lekura sartu ahal izateko abere baxotxak ordaindu behar dauela:

Ardi-abereak 0,05 (txakur txikia).

Txarri-abereak 0,10 (txakur handia).

Abelgorri eta zaldi-abereak 0,15 (hiru txiki).

Beraz, buruko ogerleko bana kendu deutseela dinoen baserri-tar marmarti horreek guzurra esan dabe; edo inork kendu badeutse ogerleko hori, atzipez edo engainuz kendu deutse, ez Bilboko udalaren aginduz. Ez dago bide gitxi egon ogerlekotik hiru txiki-
ra!

Sekulako garraz bazkaldu eta gero akeita hartzeko asmoz heldu nintzanean Eusko Batzokira, bertan aurkitu neban Bilboko zinegotzi abertzale euskaldun bat, eta aitatu eustan ogerleko horren ordaintzea *Egunekoan* irakurri ebala eta esan neutsan, ba, goizean neuk ikusirikoa Urtokiko arieltzain-etxanoan, eta gaur *Errizalaren* okerra zuzentzeko asmotan nengoala, eta berak ganeratu eban lehen ordaintzen zala gaurko bi, Udaletxean berak eskatu ebala erdira erastea feriara sartze-ordaina, holantxe erabagia hartu zala, eta horregaitik lehen sei txiki ordaintzen zana gaur hirugaz egiten dala. Marmar egiteko ziorik inondik ez dago.

Orain, zinegotzi abertzale euskaldun horrer, baita besteei be, nik esango neuskie hurrengorako arieltzain-etxanoko iragarki horreek euskeraz be ipini behar litzatekezala, jakina da, ba, feriara abereakaz etorri ohi diranak euskaldun hutsak dirala gehien-gehienak. Ez deritxazue?

1915-VII-28

SAVONA (ITALIA)

Badakizue zer esan deusten gaur euskaldun batzuk? Hara eurak esan deustena erderaz: "El vascuence es un idioma sin literatura, sin poesía y sin historia" (1).

Ganera esan deuste ganora (2) pixkatxu bat ez daukiela gure izparringi horretan idatzi ohi doguzan idazkiak, danak dirala herrietako izparrak eta bape literatura (3) barik eginak. Horra ba, esate baterako Beketzeko *Petornila* ezkondu dala Frantzisko *Samaluzegaz*, eta gauerako afaritarako esne-zopa bakarrik euki dabela, eta hau jan ondoren koltzara joan eta artaburuak zuritzen ekin deusiela, eta holakoak izpar ben-benak ipini beharrean ipiniko bagenduz¹⁴⁰, gure izparringi horregaitik txakurrenak esango leukiez horreek morroiok, eta barriz izpar hori erderaz idatzita ipinten badau Madrileko Heraldo edo besteren batek, orduan ederki, ezta?

Neure bihotzeko adiskideak zarien Arriandiagatar Imanol¹⁴¹, Elairetar Koldobika, eta beste enpaduok, ez naizue itxi oingoan umezurtz eta ipinizuez gure izparringi horretan zelan diran gauza

¹⁴⁰ *J.L.* bageunkez.

¹⁴¹ Imanol Arriandiaga. Elantxoben jaio zan eta Beiren zendu. Sabino Aranaren eskolako jarraitzailea. Teologia eta zuzenbidea ikasi zituan. Modu zuzenean parte hartu eban *Euzkadi* eta *Euzkerea* aldizkarietan. 1911n umeak lehenengo jaunartzea egiteko prestau eitezana liburu bat argitaratu eban: *Umiak autortuten eta jaunartuten*.

honeek: “¿Qué leyes tiene el euskera para la poesía? ¿Qué reglas de acentuación se usan en euskera? Si es un idioma que posee poesía tendrá sus leyes para hacerla”, dinoste nire etsaiok.

Esan deutset, ba, gure Enbeitak badakiala poesiak egiten eta sarritan izan dala txalokatua, baina honeri erantzun deuste: “Nork txalokatzen dau Enbeita? Bakarrik baserritar ezjakin literatura zer dan ez dakienak (4), beren bertsoak ez diralako *poesías*, *saetas* eta *couplets* baino”. Horra ba, ene anaiak, ez naizue itxi umezurtz oingoan eta idatzi eizue zelan erantzun honeci (5).

BATXI

(1) ¿Y qué?—erantzungo neuskie nik Salomon merke horrei; hitzertirik, olertirik, ez edestirik euki ez arren ez da ardura, geure-geurea da ele hau, eta maite dogu, eta badarabilgu, eta berau lantzen dihardugu, eta inoiz izango dauz hitzerti, olerti eta edestia. Euskaldun erdeltzale horreen gogoko elea be, aldi baten, literatura, eta poesia eta historia barik egoan, eta hori gorabehera, espainiarrak maite eben, euskalduntxu horreek baino abertzaletasun eta gizontasun gehiago eukiela erakutsirik, eta maite ebelako, erabili, landu, aberastu eta indartu eben.

Eta espainiarrak curen eleaz egin ebena, berbera egin eben frantziarrak, italiarrak, doixtarrak, eta abar, eta abar, bakotxak bere eleaz, abertzaleak eta gizonak ziralako. Batxiri salomonkada hori jaurti deutsien euskalduntxu horreek lakoak izan balira alde guztietan, ez litzateke gaur ezagutuko ludian literatura eta *poesía* eta historiaren izpirik be; oingo, hitz egitea bera be ahaztu izango jaken gizonci, arrantzaren bat edo beste alkarrri jaurtitea nahikoa izango litzatekean, lurrean bira-biraka batzuk hankaz gora egin ondoren.

(2) Ganorea aitatu baino lehen ondo izaten da zer dan jakitea. Horreek uste dabe, Zamoran lez hitz egin ezkeru beti dagoala ganorea; barriz, Munitibarren lez izan ezkeru, ganorarik ezin egon leitekela. Eta eukok, Munitabarretik hurrekoak eta Munitibartarren abendakideak dira; beraz, euron ganorea be ez da agiri. Zerurantz harria jaurtizu, eta hurrean buruan joko zaitu.

(3) Guk, euskal idazle guztiok, esaten doguna ez da izaten jakintsuentzako, geu be ez gara jakitsuak eta, Jaunari eskerrak, Batxigaz hitz egin dabena Salomon horreek behar dabena literatura geu ezin daikegu emon; horretarako hor dagoz *El Tío Conejo*, *Los Sucesos*, *Sol y Sombra*, *El Tío Jindama*, *La Noja de Parra*, eta beste asko; hortxe dabe jakintsu horreek euren literatura-egarri itogarria. Literatura zer dan ete dakigu gero, gizontxu maiteak?

(4) *Tío Conejotarrak* ezin leie igarri nor dan ez noraino heltzen dan geure Enbeita.

(5) Batxi, astia alperrik galduko dozu horreetarikoakaz benetan bazabilz; horreek ez dabe gogorik euskeraz irakurteko, eta atxakia beti gertu daukie: orain dinoe gure gauzak ez dirala benak; gero, benak ipiniko bagenduz, inoiz gure izparringian agertu diran lakoak (adibidez, Zinkunegi osalari bikainak behinola bialtzen euskuzanak), esango leukie beste gauza bat. Gogorik ez daukanari ezin aserik emon leio. Horreetarikoak izaten dira harro-erexi gogaikarriak, eta ez dago gauza hoberik, eurai gogait eragitea baino eurak gure elearen kaltez ezer esaten dabela? Gehiago esan eurak maite dabena elearen kaltez. Norbera ez haseratu behin be, eta eurak haseratatuta aidean erabili. Euren atakeari kontratakea egin. (Orain gudaldian hau esan leiteke).

1915-VIII-7

ERTI-LAN EDERRA

Goikoetxeatar Erroman, abertzale zindoa baizen ertipaile ona dan otxandiarrek egindakoa da, Donostiako Jaunaitasun-Lekaimen¹⁴² eleizarako ondia edo altarea.

Zurezkoa da, eta ebagiz egina. Guztia ondo eta arduraz urrebista.

Ondi-mahaiaren aurreko aldean agiri da, mahaiari eutsiten lez, lau habe lodi, polito landuta, apaingitza dabezala ugari kardoa, gorosti, haretx, larrosa eta abar orri-irudiak, garbiro eta zehatz zurean ebagiz aterata. Erdiko habe bien tarteko hutsunean dauka arotzen tresna pilaren irudia; bertan agiri dira zerrea, mailuketea, konpasa eta berumbila, eta lau tresnok inguratu eta hartzen dauz garbitasunaren ikurra dan lirio-lora handi eder batek.

Irudi horreek zergaitik dagozan ulertzeko esan daigun ondi edo altara hau Sendi Deunaren gomutazko eta aintzazkoa dala; eta arotz-tresna horreek Deun Josebaren lana adierazoten dabe¹⁴³.

Ondi-mahaiaren goiko aldean lau torre dagoz, bakotzak gorantza hiru txintxur polit dauzala; erdiko bien tartean dago Sendi Deunaren irudia, eta tarte honen goi-goian bosgarren torre

¹⁴² Jaunaitasun-Lekaimen: Karidadeko monja.

¹⁴³ *J.L.* dikurre.

baten erpina agiri da bere txintxur apaingidunakaz, ondiaren goi-
rengo atala eginik.

Osorik agiri diran lau torre horreetan lau gotzon-irudi dagoz; ezkerrekoak dau eskuetan eskuadrea, Deun Josebaren ikurra; hurrengo gotzonak eskumarantza lirio-lora bat dauka, Sendi Deunaren garbitasunaren ikurra; hirugarren gotzonak gorua dauka, Maria Ama Neskutsaren etxekoandratasuma ikurraurik; eta laugarrenak dauka kurutzea, Gure Jaunaren ikurra.

Sendi Deunaren irudiaren aurretxean eta beheiago, ondiaren erdialdean, Oteundegi¹⁴⁴ polita dago, erraz ipini eta kentzekoa.

Guztia dago gotarkeraz¹⁴⁵ egina, eta honelako egikera jazo-
ten dan lez, gorantzako hainbeste txintxur zorrotzek eta hainbes-
te apaingi txatalek eder-eder emoten dau eta begiak gozatsu ixten
dauz.

Ondi-mahaiak alboetan ate bi daukaz, horrelan mahaipen
euki ahal izateko Jauparako behar izaten diran tresnatxuak.

Goikoetxeak erakusten euki dau Gasteizen erti-lan hau Aba
Otaño ereslari ospetsuaren anaieak edegi dauen erestingi-denda-
ko¹⁴⁶ leiho zabalean; eta bera ikusi daben guztiak poztu dira, lan
eder honen goralden handiak eginik, eta bere egilari zorion-agu-
rra emonik.

Geuk be zorion-agurra bihotzetik egiten deusagu¹⁴⁷ Goikoe-
txea zoliari, lanbide polit horretan ospe handia eta irabazte uga-
ria opa deusaguzala¹⁴⁸.

Erti-lana berbera guk ez dogu ikusi, bere irudi bat baino, eta
irudi horretatik atera doguz hor esan doguzan zertzeladak.

¹⁴⁴ Oteundegi: Sagrario.

¹⁴⁵ Gotarkera: gotiko era.

¹⁴⁶ Erestingi: partitura.

¹⁴⁷ *J.t.* dagitsagu.

¹⁴⁸ *J.t.* dopatsoguzala.

Jakin dogunez, aste honetan erakusten ipiniko dau Donostia-ko denda-leihoren baten. Iragarriko da izparringi honetan noiz eta non.

1915-XI-23

ERESI-HITZEGIKIZUNA¹⁴⁹ BART. DONOSTIATAR JOSEBA ANDONI ABAK

Haxe bai izan zala gauza polita, inon politik bada! Aba Buruñurdun gazte zoli honek azaldu euskuzan hogeta bi eusko-eresi, bihotzera artez-arte etozanak, hain samur, hain eder, eta hain geureak dira.

Aba Joseba Andonik atzo ekarri euskun Nafarroako menditik lora-txorta margotsu eta usaintsua; berau entzunik, geure gogobegien aurrean geunkan geure Aberri maite honen guna.

Bederatzi eta erdiak arte egon ginan *Filarmónican*; baina han bildu ginanak, pozik egon izango ginan gau guztian ikara egin barik, geure asaba zaharren ahotsak entzuten. Zelanbait, atzo gure asaba zaharrak hitz egin euskuen Aba Joseba Andoniren bitartez.

Eresi polit, sakon eta sendo horreetan igarten genduan argi-argi zelakoa izan zan gure Aberri maite hau atzerritar haizeak sartu baino lehen, eta haugaitik gogoa iluntzen jakun arren, Aberriaganako maitetasuna biziago jarri jakun, Aberria ederrago ikusi gendualako.

Aba Joseba Andonik guztioi esan euskun ahaleginak egiteko horrelako eresiak erabili, irakatsi eta zabaltzen edonon; atzerriko

¹⁴⁹ Hitzegikizun: berbaldi, hitzaldi.

haize txarrak lehenen-lehenen joten dauen Aberri-lorea eresia, abestia dala, eta beronen ostean joaten dirala elea eta ekanduak.

Eta bestetara be, eresi eta abestiakaz lehenen-lehenen irabazten dala gogoia Aberriaganako, ez dago, ba, gauzarik bihotzari gehiago ikutzen deutsanik eresia eta abestia baino. Horregaitik adierazo eutsan Eusko Gaztediari abestiak maite-maitero erabili daizala bere Jel-zabalkundean; honen argi ez eban esan, baina bai aditzen emon.

Hori egia dala sarri daukagu ikusita. Bilbotik herri txikietara lehengo urteetan joaten izan diran gazte mortxoak, eusko abestiak erabiliaz bakarrik ipini dabez eurakana pozez begira euskaldun ezjakinen gogoak. Lehen adierazo dodan lez, esan leiteke eusko abesti zahar politak entzunaz, euren asabak, euren odolak deadar egiten deutseela euskaldunci; semeak aita eta amaren deia entzuten dau¹⁵⁰, eta bihotzak dardar egiten deutso.

Aba Joseba Andonik eskerrak egin euskuzan adi-adi entzuten egon ginalako... ixilik zaude! Nork eta zuk eskerrak guri? Han bildu ginan guztiak bai egin geuntsuzan eskerrak, eta egiten deutsuguz¹⁵¹ barrero be, eta eskatzen deutsugu ez gaizuzala ahaztu, eta inoiz barrero etorri zaitezala gugana asaben ahotsa ekarten. Ez dakizu ondo zenbat on egin deuskuzun!

Agur, Aba maiteori.

1916-V-3

¹⁵⁰ J.I. dantzu.

¹⁵¹ J.I. dagitsuguz.

GOGOKETA

Urte guztietan lez, egun honetan Bilbo jentez beterik aurkitzen da; begiragarria da eguerdi-aurrean Areatzan agertzen dan alaitasuna; eta arratsaldekoa, barriz, gogoia sendo euki ezik, burua galdu, eta alaitasun horrek beragana eroan lei.

Alaitasun horrerri begira gengozala atzo, adiskide batek esan eustan: "Beste jairik ez dago zezenketeak baino jente gehiago alde batetik bestera eroaten dauenik".

Egia da, egia latza. Zezenketa horrek gizonai dei handia egi-ten deutse, gogoak irabazten deutsez, odolezkoa dalako, zaldia- birrindu, eta zezena hil, eta gizonak galtzeko zorian ikusteak gizo- naren bihotzari zauskada eragin eta zaletuten dau jaira.

Halakoxea da gizona. Lehenago, gaizkinak urkatuten ebeza- nean zelai baten herriaren aurrean, oste ikaragarriak joaten ziran, urrinetik be, gizon bat zelan urkatzen eben ikustera... ikuskizun ederra, demontretan! Gaur zezenketara datozen baino askozaz oste handiagoa.

Eta, ahal balitz atondutea gizon-burrukak ezpatakaz edo aiz- toakaz¹⁵², arratsalde baktxean hamar edo hogeï gizon ahoaz gora hilotzik geldituko litzatekezan ikusketak eraldu¹⁵³ ahal bali- ra, orduan etorriko litzatekez ikusleak ludiaren zortzi aldeetatik

¹⁵² [Kutxiloakaz].

¹⁵³ [Organizau].

milaka eta milaka, edozenbat diru ordainduko leukie ikusketara sartzearren; orduan zezenketak ikusle barik geldituko litzatekez; danak joango litzatekez gizon-burrukara.

Halakoxea da gizona, bai Zamoran eta bai Apatamonasterion. Eta sermoiak ez deutso alde eragingo bide horretatik, bai zera! Argi-argi ipiniko jako berak maite dauen ikusketa hori ez dala egokia hau, eta hori, eta besteagaitik, eta lehenengotik beharbada erantzungo dau baietz, halantxe dala; baina hurrengo zezenketa-aldian eguzki ederra eta musika bizi-bizia eta jentetza handiaren alaitasuna ikusirik han doa toki biribilera! Halakoxea da.

Sermoiak baino gehiago ateraten da beste ikusketa batera zaletasuna sartuaz. Neguan hemen ostiko-peloteak jentetik gehien kentzen deutso zezenketeari eta larri darabil. Udan ezin jarri leio ostiko-jokoa; eta ez dago zer jarri, zezenketea da bakarra eta nagusi, eta bera da jentearen jabe.

Zer egingo dogu? Haserratu eta sermoi garratzak jaurtiten hasi? Asaskaldi bat izango litzateke hori, baina ezer aurreratu ez. Hartu daiguzan gauzak eurok diran lez. Ekin degiogun, ahal dogun ginoan, geure arloan edo sailean, bestelan bailitzan, gogok sendotzen euskotasunean, euskotarra kentzen ganetik hango azala, hondino askok darabile eta, nahiz eta jeltxide handiak izan eta holantxe, pixka-pixkaka azal hori jausi dakienean, eusko gogoa sendotu dakienean, orduantxe bape sermoi barik lagako deusie zezenketeari.

Behingoagaitik parkatuko deustazuez filosofokeria honeek.

1916-VIII-23

HAREEK DIRA MUTILAK, HAREEK!

Badakizue lehengo igandean, Donostiako estropadetan, lehenen helduriko trainerua Oriokoa zala eta bigarren Donostiakoa. Biok neurtuko dira barrero bihar. Trainera bi horreek barriak dira, oraintsu eregiak edo eginak Ondarroan, Urrestiren ontzigintzan.

Hona ba jazo zana oriotarrak Ondarroara etorri ziranean traineru barriaren eske.

Berau hartu eta erabili eben batera eta bestera uretan, zelakoa zan ikustearren, eta gogoia ondo bete eutsien; orduan abiauziran Oriorantz itsasoz.

Baina hara orduko itsasoa jagi zan nahikotxo; Oriora sartzea itsaso jagiagaz gatxa da, eta beste leku batera joan beharra eben.

—Getariara? Ez, arraioa! Haien tartera ez diagu joan behar, gure adiskideak ez dituk eta. Nora, ordea? Demonioa, goazemak Zarautzera!

Eta Zarautzera joan ziran mutilok. Baina bildur ziran jentea etorri trainerua ikustera eta jakingo ebezala beronen zertzelada guztiak, eta hauze ez eben gura ezetara be.

Laster erabagi eben. Traineru hori atera eben tatarrez nasa¹⁵⁴ ganera. Oriora eroan behar zala bururatu jaken. Norbaitek esan eutsen burdi bat zuzenduko ebala horretarako. Bai zera! Arin kendu gura eben trainerua zarauztarren begipetik.

¹⁵⁴ [Molle].

Eta zer egin ebela uste dozue? Danen artean jaso sorbaldetara eta biderik bide Oriora eroan. Bost kilometro eta erdi!! Eta aldapan!!

Hauxe dok euskaldunen egitada bete-betekoa. Arraietan, oriotarrok euskotar izakerea ez joek hondino galdu.

Jazokun polit hau bart esan euskun geure adiskide maite batek, berak atzo Ondarroan entzunda.

1916-IX-9

BIHAR OPORRA

Badakizue bihar oporketa orokorra¹⁵⁵ izango dala. Inork ez dau beharrik egingo, dendak itxita, izparringiak urten barik, tranbiak be geldi.

Zergaitik hau? Bazkagaiak edo jan-edateko gaiak garesti jarri diralako.

Eta egun baten danok geldi egonaz merketuko al dira? Bai, zereko merketu! Hamabostean behin edo hilean behin, egun oso bat igaroko bagendu danok ezer jan eta edan barik, orduan baleiteke zeozer merketzea; baina lanik egin ez, eta beste egunetan lez jan, eta beharbada, beste egunetan baino gehiago edan ezkerro, ez dogu bape aurreratuko.

Baina dinoe biharko oporketa hau dala zemakun edo amena-za bat Gobernuarentzat; honi eskatu jakola hainbat bider zuzendu dagiala bazkagaien garestitze hori; eta ez dauela ezer egin; eta orain eskatzen jakola oporketa honen bidez, adierazorik berari, jaramonik egiten ez badau, edo gauzak merketzen ez badauz, honakoxe oporra ipiniko deutseela aurrean, ez egun baterako, egun askotarako baino, gauzak merketuko diran arte baino, eta Gobernuak kontuak atera daizala zelako buruhaustea etorri lekion horrelako oporketa bategaz.

¹⁵⁵ [Huelga general].

Eta Gobernuak ahal ete dau, bere eskuan ete dauka, gauzen merketze hori? Hauxe ez dakigu. Gure susmoa da gudea dala garestitze guztien iturria, eta harek dirauen bitartean, ez Gobernuak ez inork, ezin izango dauela askatu moropil hau.

Nori otu jako biharko oporketa hau egitea? Espainiako sozialisten buru diran gizonak dira oporketa honen asmatzaile eta eraltzaileak¹⁵⁶.

Gure aldez esan gura dot, lehen beste irabazirik lehen baino askozaz garestiago gauzak erosi behar doguzanen aldez ete dabilz horreek, ala euren opil politikoari sua egiten ete dabilz?

Dana dala, bazkagaiak merketzera heltzen badira gauza on bat egingo dabe. Ikusiko dogu, ba. Itxarotea baino ez daukagu.

1916-XII-17

¹⁵⁶ [Organizadoreak].

EGUTEGIEN ALDEA GUREAGAZ 13 EGUN ATZERAGO ZERGAITIK *CISMÁTICOAK*?

Atzo esan neban hemen *cismáticoen* egutegia (greziar, errusiar, serbiar, bulgariar, errumaniar) gurearen aldean 13 egun atzerago dabilela; adibidez, hil honen 7an Jesusen Jaiotza¹⁵⁷ eta atzo, 14an, urtebarri izan dira hareentzat. Edozein egun oldoztu eizu: otsailak 20, esaterako; ba, *cismáticoentzat* ha eguna da otsailak 7, hamahiru egun atzerago.

Honexen zergaitia argitu gura deusut, ene irakurlea. Zuen arteko askori bape ez jako ardurarik izango arazo hau; baina beste batzuk, ostera, jakingura izango dira. Ea ba, ahalik argien azalduten deusudan.

Gaur dakigunez, lehenengoz egutegia araupean lotu ebana izan zan erromatarren agintari nagusi *Iulius Caesar* eritxana.

Ba, Julio Zesarrek, Sosigen orduko izarlari edo astronomo jakintsu baten irakatsiz, atondu eban egutegia erabagirik urtea izango zala 365 egunduna, eta lau urterik batean 366duna; eta urtean hamabi hilabete izango zirala, eta baktxari izentau eutsazan egunak, eta ordutik hona datoz honeek berak erabagi edo ipini ebazan lez. Eralgunde hau egin zan Jesusen Jaiotzaz 47 urte lehenago.

¹⁵⁷ *J.t.* Josu-Jaiotza.

Julio Zesarrek eta Sosigenek atondu eben hau, eguzkiak ortzi edo zeruan barriro lehengo tokira etorteko behar dituelako 365^{1/4}, euren jakitez. Urte bakotxari 365 egun emon ezkeru, egun lauren bat ganez gelditzen da; eta haugaitik, laugarren urtean, lau laurenok egun oso bat egiten dabe, eta egun hau ezarten jako urteari otsaila edo zezeilean; egun hau da urtearentzako ezarki edo belarri bat, eta hortik dator horrelako urteari deitutea euskeraz urte belarriduna, erderazko *año bisiesto*.

Egutegiaren eraltze hau, erromarrakandik hartu eben herri guztiak, ekialdeko, sartaldeko, iparraldeko, hegoaldeko; eta halantxe etorren.

Nikea deritxan urian, Asian, batzarra¹⁵⁸ euki eben Gotzaileak¹⁵⁹ 325garren urtean; eta han erabagi eben, Berbizkunde edo Igaratz eguna¹⁶⁰ ondo lotu eta izentatzeko, alde guztietan egun batean ospatu egien kistarrak, egun hau izango zala: "Udabarriko gau-egun bardina¹⁶¹ dan egunaren ostean lehenengoz izaten dan ilargi betearen hurrengo igandean". Eta urte hatan, 325garrenean, gau-egun bardina, udabarrikoa, izan zan epailaren 21ez, eta haugaitik arau edo legea emon eutsien Doibatz edo Eleizeari honetara: "Berbizkunde edo Igaratz izango da epailaren 21garren egunaren ostean izaten dan lehenengo ilargi betearen hurrengo igandea".

Baina, eguzkiaren etorkundea lehengo lekura ortzi edo zeruan ez da egiten 365^{1/4} eginetan. Beraz, urteak ez daukaz 365^{1/4} egun egin-eginak; hori baino puskat gitxitxuago daukaz. Ez da heltzen laurenera; hamar minutu eta 4/5 gitxiago daukaz.

Haugaitik lau urtetik baten egun osoa ezarriaz urteari okerra egiten da, behar dan baino gehiago ezarten jako. Oker horrek esan gura dau larehun¹⁶² urtean hiru egun.

¹⁵⁸ [Concilio].

¹⁵⁹ Gotzaile: obispo, gotzain.

¹⁶⁰ [Pazko-eguna].

¹⁶¹ [Equinoccio].

¹⁶² [400].

Hau dala-ta, Nikeako Batzarra egin zan urtetik 400 urte geroago, edo 725garren urtean, behar baino hiru egun gehiago egozan ezarrita, eta udabarriko gau-egun bardina haren egutegitik, epailaren 18an izan zan 21ean izan beharrean.

Beste 400 urte geroago, edo 1125garren urtean, behar baino sei egun gehiago egozan ezarrita; eta udabarriko gau-egun bardina orduko egutegian, epailaren 15ean izan zan.

Beste 400 urte geroago, 1525garren urtean, behar baino bederatzia egun gehiago ziran ezarrita egozanak; eta udabarriko gau-egun bardina, epailaren 12an.

Eta 1582garren urtea ezkerro, hamar egun gehiago ziran; hamar osoak ez, baina hamargarrenean sartuta.

Urte honetan zan Doipuru¹⁶³ Gregorio¹⁶⁴ XIII.a, eta honek, orduko biztanle guztiakaz batera, igarri eban oker, guztiz oker joiazala, eta ez zala ospatzen Igaratz eguna Nikeako Batzarrak erabagiriko egunean, eta oker hori zuzendu behar zala, hobeto loturik egutegian udabarriko gau-egun bardinaldia, eta honegaz batera, Igaratz edo Berbizkunde aldia.

Lili eritxan aldi hartako izarlari edo astronomo bat lagun eba-la atomau¹⁶⁵ eban, ba, Gregorio XIII.a Doipuruak Egutegiaren zuzentze hau.

Honetarako lehenen-lehenen egin ebana izan zan ordura arteko hamar egunen okerra zuzendu, agindurik urte hartako urriaren 4garren eguna 15garrentzat hartzeko.

Gero, 400garren urtean hiru egun eratzi¹⁶⁶ behar, kontua ondo erabilteko, eta hau zelan egin? Honantxe: urte ehunkoitzak (1500, 1600, 1700 eta abar), Julio Zesarren egutegikeraz, danak dira belarridunak¹⁶⁷, halakoxeak dira, ba, lau zati bardinak egin

¹⁶³ Doipuru: Aita Santu.

¹⁶⁴ *J.t.* Gergori.

¹⁶⁵ Atomau: ausartu.

¹⁶⁶ Eratzi: finkatu, zehaztu.

¹⁶⁷ [Bisiestos].

leitekezan (*divisibles por 4*) zenbakidun edo numerodun urte guztiak. Gregorio XIII.ak erabagi eban, urte ehunkoitzat 4tik bat bakarrik izan daitezala belarridunak. Bere aldian hasita: 1600 belarriduna, 1700 ez, 1800 ez, 1900 ez, 2000 bai, 2100 ez, 2200 ez, 2300 ez, 2400 bai, eta abar.

Honetara, 400 urteko txorta bakotxean 3 egunak erazten dira, eta ez dago lehenagoko okerbiderik.

Hauxe da Gregorio XIII.a Doipuruak egindako egutegiaren barriratasuna; eta haugaitik ezagutzen da gaurko egutegikerea gregoriarra¹⁶⁸ izenez.

Barrirazte hau laterri katoliko guztiak berehala hartu eta erabili eben; gerotxuago, protestanteak be hartu eben egoki eretxirik, katolikoen Buruak egina izan arren. Baina *cismáticoak*, Erromari deusien areriotasuna bide dala, ez eben hartu gura izan, eta hondino be ez dabe hartu; eta antxinako egutegitik dabilz, Julio Zesarrek egindakotik.

Eta... atera kontuak: 1582garren urtean Gregorio XIII.ak aurreraturiko 10 egunak alde batetik; bestetik, 1700, 1800 eta 1900garren urteak *cismáticoentzat* belarridunak izan dira, eta guretzat ez, eta hemendik 3 egun atzeratu jakuz hareek. Batu lehengo 10ak eta 3 honeek, eta horra 13 egunak, gure aldean *cismáticoak* (errusiar, serbiar, bulgariar, errumaniar, greziar) atzera-go darabilezanak egutegian.

Honagino heltzeko egoarria izan badozu, irakurle, uste dot ulertu izango dozula. Halan bada, poz-pezik geratuko da zeure adiskide.

1917-I-15

¹⁶⁸ *J.t. gergoritarra.*

CABANAS OTEIZA¹⁶⁹ MARGO-ERKI ERAKUSKETA

Bilbon, Gran Via kalean, Ertikari Euskotarren Batza¹⁷⁰ etxean ipini dauz erakusten eta salgai gipuzkoar margolari Cabanas Oteizak 40 margo-erki, bata baino bestea politagoak.

Eurotarik 19k adierazoten dabez Euskal Herriko notin eredu eta ekanduak. Guztiok dira egoki-egokiak, eta hemen izentatzen hasi ezkeru urtenenak, jazoko litxakigu euren izen-erreskada osoa berton idaztea. Horraitino, batzuk gogo-gogoan geratu jakuz, enparauak baino gehiago gomutan josi jakuz. Hara, *Artzaina* da bata; mendi ganean euskaldun-eredu¹⁷¹ bikain bat, zugatz-enbor baten bizkarra jarrita, bere txilibituari hots-eragiten, inguruan ardiak dauzala bedarra jaten. Ederra da margeun¹⁷² hau. Horregaitik arin heldu eutsien; laster eukan azpian ingia, *salduta* egoala adierazoz.

Beste eredu-margo bat da *Beizamako Alkatea*. Mutilak, hau dok ikustekoa! Gizon bena, gero, inon benik bada, bere kapela erlauntzea lakoaz.

¹⁶⁹ Angel Cabanas Oteiza (1884-1964 gitxi gorabehera). Margolari gipuzkoarra. Batez be baserri etxeak margozten ebazan eta egin ahala saldu egiten zituan. Hego Amerikatik sarri ibilia zan eta Buenos Airesen, esaterako, erakusketa bat baino gehiago antolatatu ebazan arrakasta handiz. Paisajeak eta karikaturak be egiten zituan.

¹⁷⁰ [Asociación de Artistas Vascos].

¹⁷¹ [Tipo].

¹⁷² Margeun: margo ehun.

Beste bat, ekandu-adierazkaia, *Txahala* izentzat daukana da. Baserritar gizon batzuk dagoz txahaltxu bat erdian daukiela, beroni begira, eta euretarik batak praktetako sakeletik esku biakaz dirua ateraten lez agiri da, gorputza beste alderantz okertuta, antza danez tratua egin dabe eta. Aberetxua eta baserritarrak ezin leikez hobeto azaldu. Berberak dira.

Erromeria be ahaztu ezina da. Zein ederto higituten diran dantzan dabilzanak, dantzaldi bat da, ba, margeun honek adierazoten dauena¹⁷³.

Eta... lehen esan dodana, guztiak aitatu beharko geunkez, hemen nahikoa leku bageunko geuk gura dogun lez idazten luzatzeko. *Atsoa goruetan*, *Barriketean*, *Kartetan*, eta abar, oso egoikiak dira euskaldun etxeak apaintzeko.

Notin eredu eta ekanduek adierazoten ez dabeczan beste 21 margeunak, baso-ereduak¹⁷⁴ dira. Honeetan asko igon da Cabanas Oteiza, goiak harrapetan dabil ointxe. Bati baino gehiagori entzun deusagu esaten margolari honek jaiki handia egin dauela lehengo erakusketatik hona (ointxe laster urte bi), orduan be margolari heldua eretxi eutsiela erti honetan aituak.

Eta halantxe da izan. Lehengo erakusketan gehien ohartu genduana zan, margolari hau goirengoa zala lainoak eta euran-tzak¹⁷⁵ antzeztuten, basoa ipar-lausopean antzeztuten gitxi lakoa zala. Baina oraingo erakusketan argitu deusku, eta ondo hatan be, eguzkiak joten dauzan baso-ereduak antzeztuteko be badaukala gatza. *Basetveak* deritxan margeuna da horixe ondoen adierazoten deuskuna; bertan agiri dira lugin-etxe bi, eguzkitan dagoan baso baten. Ha da gauza ederra! Ha da argiaren ugaritasuna bertan agiri dana! Esan leiteke laurkia leiho bat dala zabalik, eta bertatik benetako baso eguzkitsua ikusten gagozala. Eguzkitan egon barik *Alkitza* deritxan margeunak be argitasun asko dauka.

¹⁷³ *J.t.* dadirazo.

¹⁷⁴ [Paisajes].

¹⁷⁵ Eurantza: euri antza.

Baso-eredu guztiok dira Gipuzkoakoak, Ernio mendiaren inguruan dagozan herrietan hartuak, lerroan eta margoan ezeren beharrik ez daukiela, begiak eta gogoa eurei begira behin be asezten ez dirala.

Gauza politari begira aldi gozatsu bat igaro gura badozu, irakurlea, zoaz erakusketa horretara, eta ez jatzu damutuko.

Eta ez uste guk hau dinogula Cabanas Oteiza euskalduna, eta euskaltzalea, eta abertzalea dalako, ez; guk dinogun hau ikusle guztiak dinoc, eta hau da ezagun honetantxe: erakusketa zabaldu zala gaur da seigarren eguna, eta atzo goizean eukazan salduta 16 margeun.

Handieran, alagalakoak dira margo-laurkiok, *erditarren* etxeak apaintzeko. (*Erditar* hitzagaz esan gura dogu aberats haundiak ez diranak ez txiro-txiroak). Margo-laurkien salneurriak be merkeak dira; berrogeta hamar ogerlekotik behera dabil bakotxarena.

Ointxe dozue, ba, erarik onena etxea ondo edertzeko, zerbaiten jabe zarien irakurleok, Cabanas Oteizaren margo-laurki ondo eginak eta eusko-ereduak (notin eta baso) erosirik. Hondino zabalik egongo da erakusketa hau hil honen 27-28ra arte. Heldu zaitze bertara eta igarriko dozue ez dogula hape gehiegirik esan. Joan eta ikusi.

Geure zorion-agurra Cabanas Oteizatar Gotzoni. Ekin holantxe euskotar margo-ertiari, aberri hau danon artean, bakotxak bere bidetik, jaso eta aberastu daigun.

1917-IV-18

GETXOKO IDAZKUN BATEZ

Katarrak atzo Algortatik egindako idazkian inoskun Getxoko eleizako ate-buruan dagoan armarriak idazkun haxe daukala: *Caltea daganak bizarra lepoan*, eta galdetzen dau zer ete dan hori.

Gorrotozko hitzak iruditzen jakoz *Katarriari*, eta harritzen da berau horrelako idazkuna ikusteaz eleizan, ontasun eta maitasun hutsa dagoan etxean. Niri ez jat horrelakorik iruditzen, ez dot ikusten hor gorroto usainik. Hor agiri dan *daganac* eskier da *dagianak*, eta beraz esakunea da: *Kaltea dagianak bizarra lepoan*.

Nik ez dot ondo ulertzen esakunea. *Kaltea dagianak egurra lepoan* balitz, orduan ederto ulertuko litzateke gaiztoentzat irakaspena dala, honeei jakin eraginik egurra edo zigorra hartuko dabela inori kalterik badagie. Baina bizarra..., eta lepoan..., batek bajakik!

Ointxe jatort burura oldozpen haxe: egurraz narrua gogor joten danean, azalak bere leuntasuna galtzen dau, azala urratu egiten da hunan-human, eta urratuen ertzetan hatz-bizarrak lakoxe azal-txatalak jagiten dira; hori ete da *lepoan bizarra*? Hori balitz, horra hor soluzioea.

Gizon astunak (buru astunak esan gura dot) beharbada barre egingo deutsee gure buruketa honeei. Tira, geuk eurai egingo deutsegu beste aldi baten eta kitu.

1917-VI-28

DEUN IÑAKI

Urtero lez ospatu daigun gaur be geure Deun euskaldun handi honen jaieguna.

Berau da, guztiok dakizuen lez, ludi osoa bere entzuteaz beteten dauena. Alde guztietan dakie bere barri, kistar onak eta kistar badaezpadakoak, katoliko zintzoak eta katolikotasunaren arerio amorratuak diranak be bai.

Deun Iñakiri eta bere Josulaguntzari batzuk deutsee maitetasun handia eta besteak gorroto handia: ez dago bitarterik, adiskide edo arerio, eta bata edo bestea garratz, epeltasun eta oilotasun baga.

Eta hau ederto ulertzen da, bada geure euskeran daukagu esakume bat guztiz egokia arazo honetarako: *egia, erregaria*.

Deun Iñakik egia bete-betean jo eban, eta txinpartak atera eutsazan, eta eurokaz sutu zituan Uskurtz-adiskideen¹⁷⁶ bihotzak, eta era batez, kiskali zituan Uskurtz-arerioen gorrotoak; batzuk adoretu eta indartu zituan, besteak ipini zituan agirian argi aurrean, eta euren itsusia agerturik, uluka, eta amurruka, eta hagin-hoska bazterretara jo dabe.

Deun Iñakiren lana izan da hesia botatea batzuen eta besteen artean, adiskideak eta arerioak alkarregandik banandu, argia eta

¹⁷⁶ Uskurtz: erlijino.

iluna ipini bakoxta bere lekuan, holan bakoxtak jakin dagian nora sartzen dan, nora doan; holan inor sartu ez daiten ilunera argitara doalakoan.

Lan ederra eta behar-beharrekoa bera bizi izan zan aldian eta handik honuntza; lan honen ondorengo ederrak igarri ditu lehenengotik gure Doibatz¹⁷⁷ Amak, eta horregaitik Deuntzat ezagutu eban, eta ospatu dau bere jaieguna bera hil eta lastertxotik, bere ospe handia zabaldu dala ludi guztira, izanik Deun handienetariko bat.

Guk, kistarrak garan aldetik eta euskaldunak garan aldetik, behartuta gagoz bere jaiegun hau ospatuteko hainbat garbien eta ondoen.

Gaurko eguna izan behar dau guretzako guztiz alaia eta pozkiroa, behar dan neurritik urten barik, eta ohiturea dan lez kistarren artean, Deun hau bitartekotzat hartu Jaungoikoaren aurrean zer eskatzeko? Geure ona. Guk eskatzen deusagu Jaungoikoari Iñakiren bitartez Euskadi bizi ahal izan daitela bere lagi eta ekan-du garbi eta zuzenen arauz, holan kistar onak izanik bete dagien ludira ekarri daben zeregina: euren gogoak gaizkatzea. Holantxe.

1917-VII-31

¹⁷⁷ [Elciza].

“BALBINO SANZ PASALODOS”

Atzo arratsaldean basotik etxeratu nintzanean, hona non aurkitzen dodan *Kirikiño hordiaren* eskutitza, eta bere barruan Donostiako izparringi baten zatia, berau izanik Balbino Sanz Pasalodos deritxan gizon batek Zumaiatik bialduriko idaztia.

Idazki honetan *Pasabolosek...* ez, Pasalodosek, ipinten dau bera dala Valladolidekoa, lau seme dauzala, 30 urte egiten dauzala Gipuzkoan, bera gizon zintzoa eta diruagaitik ardurarik ez deutsana dala, eta honakoxeak. Eta gauza horreek nori deutsie ardura, *Pasabolos*? Tentelkeria, tentelkeria, eta besterik ez tentelkeria baino.

Idazkiaren azkenean dino, Zumaiako *Neu Naiz* eta ni emakume lotsabako batzuk garala eta txu egiten deuskula arpegira.

Emakumeak garala? Horregaz esan gura dau bizarrik ez daukagula. Datorrela *Pasabolos*, eta bizarrok erakutsiko jakoz, eta nahikoa zarratu.

Txu egite hori txarrikeria bat da. Irain horri *hidalgoen* antzera erantzuteko, nik orain jaurti behar neuskio *Pasabolosi* eskuandela edo *guantea*; baina nik ez dot erabilten honeetarikorik eta zer egin? Bardin izango dala uste dot, eta guantearen ordez abarketa bata erantzi eta jaurtiten deusat hemendixik eta oraintxe Zumaiako Sanz *Pasabolosi*.

Hor dozu, ba, musturretan nire abarketea zure txuaren ordez, eta kitu.

Umorea dauka, gero, karabinerotzar horrek.

1917-X-1

EUP, BERMEOTARRAK!

Zuen herri behargin eta bizi-bizi horrek burdinbidea behar dauela ondo gauza agirikoa da. Burdinbide barik ezin hazi da, ezin dauz bere indar handiak erabili lan onuratsu egokia egiteko. Aspalditik zagoze itxaroten.

Burdinbide hori, Mungiatik hasi eta Larrauritik Bermeora, eta hortik Mundakara eta Sukarrietara luzaturik, Sollube mendi zabal eta ederraren inguruko herri guztiak alkarregaz lehenengo, eta gero eurok, alde bietatik, enparau Bizkaia guztiagaz batuteko izango dan burdinbide hori, antxinatxotik gogoan euki dabe Bermeok zer behar dauen ondo dakien batzak.

Eta aspaldiko urteetan eskatuta egon da Madrilerako burdinbide hori egiteko baimena eta Gobernuak horretariko bideei aginduta daukan laguntasuna.

Baina han, ez dakigu zergaitik eta zelan, eskakizun horrek bere gain euki dau estalgi astuna moropil gogorraz estu-estu egin da, eta urteak etorri urteak joan, zirkinik egin ezinda egon da, geldi eta geldi. Harrigarria!

Orain, moropil estua askatu eta estalgi astuna urratu da, eta eskakizuna azpitik urten da, eta bere bidean abiau da.

Gobernuak erabagi hauxe hartu dau: datorren urteko bagile-ra arte burdinbide hori eregitzeko egitasmoak¹⁷⁸ agertu edo pre-

¹⁷⁸ [Proyectos].

sentau leikezala, onenari emoteko gero eskatuta dagoan baimena eta laguntasuna.

Izpar hau laster argitalduko da Gobernuaren *Gacetan* (gaur edo), baina geuk dakigun ezkeror, aurreak hartu eta emon gura deusuegu bermeotarroi izpar hau, bide batez geure zorion-agurra zuei eginik.

Laster dozuez horko herri-bazter, baso eta mendietan injine-ruak eta euren laguntzaileak, teodolitoagaz eta neurtzeko zinta eta haga luzeakaz, eta kartera handi paperez beteakaz, hemen igon eta hor jatsi, hona begira eta hara begira, adiraltzen edo estudiantan nondik nora eroan leiteken burdinbidea, zeintzuk eregintza¹⁷⁹ egin beharko diran, zenbat diru beharko dan, horretara egitasmo edo proiektuak ondo egin eta Gobernuari agertuteko.

Bere geldi-egotetik urten da arazo hau, hasi da ibiltzen, eta helduko da.

Urte gitxi barru uste dogu Bilbotik Bermeora eta osterea aida baten egin ahal izango dogula. Orduan hur-hurrean eukiko zaituegu, bermeotar, mundakar, eta alde horretako beste biztanle maiteok. Orduan salerosteari jagokon hartu-emona gehituaz ganera, ostantzeko hartu-emona be bizkortu eta gehituko dogu, zuek guri eta guk zuei, alkarrri bialduko deusuegu abertzaletasun-sua, eta gaur garean baino hondino anaiago izango gara.

Ea bultziz¹⁸⁰ noiz heldu ahal garean horra, zeuekaz batera *Gora Euskadi!*, deadar sendo eta hain ederra bularra betean jaurtiteko.

Oharra. Aurreko hori idatzi eta gero heldu da harainegungo, hil honen 11garreneko *Gaceta Oficial* Madrilekoa, eta berak dakar, 566garren ingoskian¹⁸¹, Deia, Mungiatik Bermeora eta Sukarrietara burdinbidea egiteko asmo edo proiektuak agertzeko, eurretarik onenari emoteko Gobernuak aginduta daukan lagunta-

¹⁷⁹ [Obra].

¹⁸⁰ [Trenez].

¹⁸¹ Ingoski: orrialde.

sumá, eta astia emoten dau asmook agertzeko datorren bagilaren 12garrenera arte.

Baita ikusi dogu bertan Oñatitik San Prudenciorako burdinbidea eregiteko egitasmoen Deia be, eta besteak lez datorren bagilaren 12garrenera arteko epea dauka.

1917-XII-13

ATZOKO EGUNA BILBON

Beti izaten dan lez San Tomas eguna, guztiz gogokoa izan zan atzo be.

Aurreragoko egunetan hainbeste hotz, euri, txingor, oinaztu eta trumoi izan diran arren, atzo argitu zan egun eder-ederra.

Egia da behea edo lurra busti-bustirik egoala hondino, hezo handiaz, baina goia garbi aurkitzen zan eta ez egoan hotzik.

Goiz-goizetik hasita Bilboko kale zaharrak, Zazpi Kaleak deitzen jakenak, baserritar andraz eta gizonez eta eurokaz uria ikertzen etozan neska-mutil gaztetxuz bete ziran.

Zein gauza polita eurak ikustea euren otzarakaz eta hegaztia-kaz batera eta bestera kaleetan, aberri-ele gozoari hots eraginik euskerazko izenak daukiezan antxinako Bilboko kaleei!

San Anton ondoko merkatu Plaza Zaharra, erreka aldera batez be, bete-beterik egoan salgaiz eta otzaraz, saltzaileez, eros-leez¹⁸², eta begiratzaileez hango jentea! Ibili be ezin!

Hegaztitan, madaritan, sagarretan... begiak asetuteko beste baegoan han. Edertasuna zan, gero. Batzuen eretxiz igaz baino saltzaile gehiago etorri dira aurten. Izan leiteke. Nik igazkoa ahaztuta daukat, eta ezin dot esan noiz gehiago, igaz ala aurten.

Sekulako kapoiak agiri ziran. Bati begira nengoala, baserritar andreak esan eustan erderaz (musturrean bizar puskat darabilda-

¹⁸² *J.L.* crostaile.

lako) ea erosi gura ete neban. Nik barriketan egitearren, ez erosteko ustez —bai, kapoiak erosteko gaiagozak, arraietan—, erantzun neutsan euskeraz:

—Zenbat eskatzen dozu horregaitik? —eta esan eustan:

—Sei ogerleko eta erdi —. Nik orduan:

—Hegaztia ederra da, ezin ukatu leiteke, baina eskea be ez da makala —. Berak:

—Berorrentzako zenbat balio dau, ba? — Eta nik:

—Hara, andratxu, bira bat egitera noa plazatik zer dagoan ondo ikusteko, eta atzera honantza natorrenean aituko gara.

Eta... ointxe arte. Nire begira ez zala egongo uste dot kapoia saltzeko.

Arraina ez egoan hain ugari, eta urri be ez; baina jaso handia euki eban, bai ba, atzo eta gaur okelabako egunak¹⁸³ dira eta.

Hona hemen orain zeintzuk salneurri jadetsi ebezan merkatu-
ra agertu ziran salgaiak:

Besigua, kilo bat, 2,10 laurleko¹⁸⁴.

Lebatza, kilo bat, 5,25 laurleko.

Sardinak, kilo bat, 1,25 laurleko.

Angulak, kanpokoak, libra bat, 4 laurleko.

Angulak, hemengoak, libra bat, 7 laurleko.

Txirlak, kilo bat, 2,10 laurleko.

Lengoadua¹⁸⁵, kilo bat, 9,75 laurleko.

Kapoiak, bi, 90-70-60-55-50 laurleko.

Oilarrak, bi, 25-35 laurleko.

Oiloak, bi, 30-18-12 laurleko.

Pernila, kilo bat, 8 laurleko.

Solomo sikatua, kilo bat, 6 laurleko.

Txorizoak, hamabi, 4 eta 7 laurleko.

¹⁸³ [Bijiliak].

¹⁸⁴ Laurleko: pezeta.

¹⁸⁵ *J.t.* lenguado.

Madariak, hamabi, 25-15-11 laurleko.

Sagarrak, hamabi, 5 eta 3 laurleko.

Salneurriok, agiri dan lez, goitxu dabilz. Zer ez, gero, gaur?

1917-XII-22

BAIONAKO GOTZAINA HILZORIAN

Bordeauxeko izparringi baten ikusten dogunez, lehengo eguazten gauean, lapur batzuk ia erail eben Baionako Gotzain edo *Obispo* Gieure jauna.

Gauerdi inguruan ohean egoala, Gotzainak zarata bat entzun eban bere idazgelatik etorrena, idazgela edo *despacho* hori egonik bere ohe-lekuaren ondoan. Jagi zan, tximistargiaren txarakilari¹⁸⁶ eragin, eta sartu zan idazgela. Harrituta geratu zan ikusirik gizon bi, mahaiko kaxa nagusiaren sarrailea apurtzeko ahalegine-tan ebilzala, argi egiteko kandela mutxikin bat eukiela mahai ganean.

Gotzainak deadar egin eban, eta orduan lapur batak salto egin eban leihotik arin-arin; baina bestea bertan geratu zan eta Gotzainagana joanik esan eutsan:

—Ixildu zaitetz edo hilgo zaitut, errebolbera daukat eta.

Gieure jaunak erantzun eutsan:

—Ea, hil naizu, ba —eta barrero deitu eban etxeko jentea.

Orduan lapurrak errebolbera atera, eta ipinirik Gotzainari begira, su egin eban; baleak zorionez ez eban ikutu, eta gizon biak alkarrri heldu eutsien.

Burrukan ebilzala lapurrari errebolbera lurrera jausi jakon, eta gero han idoro eben aitzo edo kutxilo bategaz. Gotzainak lurra

¹⁸⁶ Txarakil: txaramel.

jo eban arren, arin jagi ahal izan zan, eta barriro heldu gaizkina-ri; baina honck alde egin eutsan tirakada gogor batez, eta bere lagunak salto egindako leihotik urten zan tximistea lez.

Orduantxe heldu ziran etxeoak (guztia jazo zan aida baten) Gotzainaren aldez, beronen deadarrak entzunda izarturik.

Lapurrak edegi gura izan eben mahaiko kajeak eukazan 3.000 laurleko inguru eta baliodun beste gauzen batzuk.

Mahai ganean egoan urrezko diru-zisku bat eta zigarro batzukaz toxa edo petaka bat, eta honeexek izan dira ostu dabezanak.

Bordeauxeko izparringiak dino bost notin espetxeratu dabezala, lapurrak edo honeen lagun edo estaltzaileak ete diran.

Atsekabe dogu Baionako Gotzain jaunari jazo jakona. Izutaldi edo estualdi horreek osasuna galdu eragin leioe edonori.

Gotzain hauxe, Gieure jauna, guztiz begiko egiten jaku guri, bere Gotzain-Idazki edo Pastoralak beti euskeraz be argitaltzen ditualako Euskal Herrirako, bera frantsesa dan arren.

Ondoren txarrik ez badauka geure zorion-agurra egiten deutsagu¹⁸⁷ kalte handiago barik urten dalako.

1918-II-3

¹⁸⁷ *J.t.* dagiogu.

HOR DOZUE, BA, ERDERA HORI!

Durangon abadeak, bat edo beste (gorengoak eurak) kendu ezkerro, aspaldian beti agertu dira gure euskerearen arerioak (beraz behintzat euskerazaleak ez, hurrik emon be), eta Espainiako erderearen maitale eta zabaltzaile itzelak. Eta euren ahaleginak aurrenengo dirala, sartu da erdereca Durangon eta bertan nagusi da.

Horra ba, *Kanpantorrek* dinoskumez, hango kaleetan ibilten ei dira deadarrez: *muera el clero*. Halantxe! Erderaz.

Oldozketan¹⁸⁸ jarri ezkerro, gogora etorten da esakunea, erdeldunena, hatan be: Jaungoikoak harri eta makila barik dakiala zigorra emoten.

Erderearen bila zabilze, ez beragaz gure herrira ekandu on eta erlijinotarrak ekartearren, ez beragaz gure herria ondu eta zeruko bidean jartearren, ez, eleganteagoa dalako, eta aberatsen berbetea dalako, eta batez be *bizkaitarristak* euskerea maite dabelako baino? Hor dozue, ba, erdera hori; beragaz joatzue zigorra.

Lehenago, Durango euskaldun hutsa zan aldietan, ez zan holako deádarrik entzuten, orduko euskaldunak ez ekian holako astakeriarik esaten, euskerea kendu deutzazue, erdeldun egin dozuez, eta erdereagaz bátera etorri jake kutsua, berba lohi, eta deunga, eta bidebakoen kutsua.

¹⁸⁸ [Pentsetan].

Eta ez dago ukatuterik erderearen kutsua dala. Ez balitz, erderea etorri baino lehenagoko kutsua balitz, deadar hori eta horren antzeko beste asko euskeraz be entzungo litzatekez eurrez; ez dira entzuten behin be; beraz, erdereak ekarri dauz. Argiago ezin leiteke ezer agertu.

Eta jazo honen aurrean ez dozue kolko barruan kezkarik sumetan? Halan bada, trankiloak zarie benetan.

Baina Euskal Herri Jainkotiari bere euskereagaz batera kendu deutsienak bere hitz egite garbia, eta erdereagaz ekandu deungak ekarri deutsiezanak, kalte handia ekarri deutsie... eta kalte honi ez ete deutso inork erantzun beharko Jainkoaren aurrean?

Tira, ez gaitzezan sermoiginan hasi, eta itxi daigun arazo hau; bakotzak bereagaz erantzunda nahikoa zeregin izango dogu.

Baina gauza ohargarria bada izan, erderea nondik zabalduko ibili, eta gero erdereak buruan jo.

1918-III-1

URUN-AUZIA



Jakina zan, eta halantxe esan genduan leku honetan lehengo igandean; Gobernuak ez daukala bihotzik Valladoliden uruna atearateko nahitaez berak izentauriko salneurrian, eta beraz, uri hartako biztanleak gogor jarri baziran, ez zala gehiago urunik etorriko handik salneurri horretan, 55 laurleko 100 kiloak.

Bai ba, Gobernuak ez dauka adorarik berak ipiniriko aginduak bete eragiteko, gogorka hasten bajakoz inon.

Auzi honek badakigu zein atzen eukiko dauen; uruna gehiagor ordaindu beharra ogia jan gura badogu. Izango dira zaratak, eta deadarrak, eta purruztadak, eta erneguak, baina azkenerako ordaindu egin behar.

Zuzena da Bilbori egitea orain egin jakona? Ezetatik be ez!

Gobernuak nahitaez hartuta daukaz itsasontzietatik hainbeste, garia, eta ikatza, eta beste gauza beharrezkoak Espainiara ekarri ahal izateko, eta neurria ipinita dauka itsasontzi horren eroansariari, *la tasa*, eta Gobernuak hartuta daukazan ontzi gehienak Bilbokoak dira.

Bilbotar ontzi horreek ez dabe irabazi Bilborentzat neurri edo tasa hori egon ez balitz irabazi ahal izango ebena.

Bilboko ontziak garia ekarten Amerikatik ibili ez balira, ez eben, ez, Valladoliden eukiko gaur daukien gari eta urun hori.

Beraz, zelanbait Bilbok harturena¹⁸⁹ dauka Espainian dago-

¹⁸⁹ Harturen: hartzeko, kreditu.

an gari eta urunetan, eta Gobernuak berak ipiniriko salneurrian saldu gura ez bajako urunik Bilbori oker bat egiten da.

Valladolid matxinadan jarri dala... horretantxe dago dana.

Bilbon balira Valladoliden lakoak, matxinadan jarri behar leukie Gobernuak hemengo ontziak nahitaez hartugurea erakutsi ezkeru.

Baina ez da holakorik egiten, bai zera! Hemen askok esaten dau: "guri zer ardura deusku ontziakaitik, eta hor konpon".

Hor konpon? Ba, holan Bilbori irabaztea urrituten jako, eta gero Bilbok ezer behar dauenean burla egiten deusie, orain lez, eta hori danon kaltean doa. Oraintxe ikusiko da guztion ganera datorrela harria.

1918-IV-6

BELDUA¹⁹⁰ DA, EZ GUDARIA

Atzo izan zan Deun Jagoba eguna. Deun hori daukie espainiarrak euren Zaindari Deuntzat, eta bere eguna ospatuten dabe. Ederto egina.

Jesukristoren Ikasle Jagoba Nagusia joan zan Palestinatik Espainiara, hango biztanleei Goizparra¹⁹¹ irakastera. Beraz, Jagoba Nagusia da espainiarren Beldua edo Goizpar irakaslea. Berari zor deutsie, ba, espainiarrak Kristoren artaldekoak izatea. Zuzena da, ba, eurok ospatzea Deun Jagobaren eguna, eta bera aintzaldutea. Eta guk, espainiarrak ez garan arren, kistarrak garalako, pozik lagunduko geunskie egintza zuzen eta eder horretan, egintza hori zuzen egingo balebe.

Baina ez, Deun Jagoba ospatuten dabe espainiarrak, ez Goizpar irakaslea lez, euren gudari-burua lez baino.

Joan zaiteze Deun Jagobaz eleizetara, eta cntzum eizuez txonitzak¹⁹², eta txonizlari¹⁹³ espainiar edo espainiazaleak esango deutsue, Deun Jagobaren laguntasunaz Espainiak bere menpean, iskilu-bidez eta nahitaez, hainbat herri harrapau ebazala eta euren jabe egin zala, Deun Jagobaren laguntasunaz Espainia aldi baten handia zala indarrean, bere menpeko herriak ludi guztian

¹⁹⁰ [Apostolua].

¹⁹¹ Goizpar: Ebanjelio.

¹⁹² Txonitz: sermoi.

¹⁹³ Txonizlari: sermolari.

zabalduta egozala, eta horregaitik “eguzkiak beti argi egiten eba-
la Espainia jabe zan hurretan”.

Beraz, espainiarrak uste dabe Deun Jagobak lagundu eutsela beste herriei euren askatasuna kentzen, eta euren ogasun eta gau-za guztiak harrapetan... guzurra galanta! Ez Deun Jagobak, ez Deun bestek ezin lei lagundu okerrik egiten, eta uste dogu okerra dala herri bati kendutea bere nortasuna, bere askatasuna, bere ogasuna.

Jaungoikoak irakasten deusku: “Heure burua baizen maite izango dok heure geide edo aurrekoa”. Hortik ateraten da ez jakola inori egin behar norberarentzako gura ez dana.

Espainiarrak ez dabe gura inongo beste herri batek eurei ezetan agindu degioen, sututa jarten dira holakorik aitatuteaz baka-rrik. Zuzen dagoz horretan, edo arrazoia daukie. Baina ulertu behar dabe eurak be, horretara ezkeru, ez dabela beste herri bate-ra sartu behar agintzen eta eurak nagusi izaten, ez dabela euki behar amesik handi izateko beste herriak euren menpean gura nahi gura ez sartuta.

Ez egiok inori egin heurtzako gura ez doana.

Horixe da lagi¹⁹⁴ zuzen eta garbia, Jainko-lagia. Eta zelan izan leiteke lagi hori apurtzen lagundutea Deun Jagobak espai-niarrari? Hori izan leitekela uste izatea, hori sinistutea ez al da Deunari irain egitea? Deun bat ibiliko da, ba, herri bati laguntzen besteen kaltez, Jaungoikoaren legea ostikopeturik?

Oker dagoz espainiarrak, itsututa dagoz. Aitatu egiozu espai-niarrari (edo gure arteko espainiazaleei) Deun Jagoba, eta bere gogoan irudituko jako zaldi zuri baten ganean, arpegi haserreaz, gudari jantzita, eskuan ezpata handia dauela, guda egiten Espai-niaren alde; ez jako irudituko Jesukristoren Beldu¹⁹⁵ apala lez,

¹⁹⁴ Lagi: lege.

¹⁹⁵ [Apostol].

Goizparkia¹⁹⁶ irakasten hitzez eta egitez, notin guztiei beti on egiten, kalterik inori be ez, txiro, jantzian eta jan-edanean behar-beharrekoa baino erabili eta hartzen ez dauela, baketsua, eta bakezalea eta bakegina, beti bigun eta argi guztientzako, haserre behin be ez, gogorra bere buruarentzako bakarrik, eta honan.

Bigarren era honetara irudituko balebe espainiarrak euren Zaindari Deun Jagoba, bape ardura barik batuko gintzatekez eurakaz, kistarrak garan lez, deun handi hori aintzalduteko.

Baina gudari-buru, edo general, edo gerrilleru¹⁹⁷ lez irudituten daben artean, eta berari laguntasun eske dabilzan artean beste herriak euren menpean sartuteko, guk jaieguna beteko dogun arren, ezin deikiegu lagundu Deunaren ospakunde oker horretan.

1918-VII-26

¹⁹⁶ [Evangelio].

¹⁹⁷ *J.t.* gerrillero.

CABANAS OTEIZAREN MARGERKIAK

Irakurlea, Bilbon bizi bazara, edo hemen bizi ez eta hona etorteko erarik badozu egunotan, ez zaitetz geratu ikustau¹⁹⁸ barik Cabanas Oteizatar Gotzon margolariak erakusten daukazan Euskadiko baso-irudiak¹⁹⁹. *Artistas vascos* Batzak, Diputazino jauregia baino harantzatxuego daukan etxean dago erakusketa hori.

Cabanas Oteiza da gure margolaria, margolari euskalduna, eta gure baso eder-ederra irudituten zalea dan margolaria.

Hogeta hamar laurka²⁰⁰ ipini dauz, eta danak dira Euskal Herriko irudiak, danak.

Laurka horreetarik asko, gehienak, erakusten deuskue gure mendia ilunabarrean edo euri ostean itzalduta egoten danean. Honetan ez dogu uste inork irabazten deutsanik gure margolari honi. Batez be, lainoak mendiari oratuta nagi-nagi egon ei diranean, ezin leiteke ikusi gauza berberagorik Cabanas Oteizaren laurkak baino. Joan eta ikusi eizuez 22garrena eta 25garrena eta esango dozue nik dinodana egia dan ala ez. Zein laino ederrak diran eta zein egoki irudituaq laurka bi horreetakoak!

Ilunabarra biziro erakusten daben²⁰¹ laurka oso goralgarriak dira: 30garrena, *Ilunabarra* izena daukana; 27garrena, *Artzaina-*

¹⁹⁸ Ikustau: bisita egin.

¹⁹⁹ [Paisajes].

²⁰⁰ [Cuadro].

²⁰¹ *J.t.* darakusen.

ren etxea; 20garrena, *Asteasu*; eta 9garrena, *Nere ordua* deritxana. Zein gozatsu jarten dan gogoa, zelako baketasuna sumatzen dan laurka honeek begiratuta!

Oria ibaiko, eta Orio uriko, eta Mutriku uriko ikuskerak hainbat daukaz, baita Arantzazuko bat be, eta Andoaingo beste bi edo, eta... arraiea!, *Intxaurrondo* basetxe bat badago han, gauza ederragorik... ezagun da ederra dala, ba, bera lehenengo erosi deustie, eta geroago be heldu jakoz erosleak, salneurria pujau gurarik.

Gu lakoak, diru gitxidunak garanok, astialdi eder-ederra emoten dogu han laurkai begira, hantxe geure aberri-lurra egizto iruditurik ikusita; eta dirudunak, atsegin horrez ganera, beste bat daukie, laurka bat edo beste erosi, euren etxeko apaingarri izan daitezana.

Hartu bei geure zorion-agurra Cabanas Oteizatar Gotzon margolari euskaldunak.

Berau da geure margolaria. Berari entzunda dakit, asmoa daukala, Euskadi guztiko basoak margoz irudituteko; hau da, orain arte iruditu dauen basoa Gipuzkoakoa dala, baina hurrengo erakusketan ekarriko dauzala Bizkaiko baso-irudiak, eta geroago joango dala horretan Nafarroara eta Arabara.

Zer deritxazue? Horixe da aberria maite izatea! Hori, hori, Gotzon!

1919-IV-4

ONAK IZAN ZAITEZE... NEUK MOZTU ZAGIEDAZAN

Irakurleak, gaur Andoaingo idazkiak dinoana jakinda barriro etorri jat gogora lehenago be hainbat bider gogotan erabili dodana. Ugazaba batzuk behargin on huts eta apal-apalak eta guztizko baketsuak gura izaten dabezala..., hobeto moztuteko.

Edozein aloger emon, edozenbat ordutan lanean erabili... eta beharginok ixil-ixilik egon daitezala, ez daitezala alkarregaz batu eurena jagoteko, bai zera! Ez degioela ugazaba jaunari atsekaberik eragin, behargin horreek erakutsi dagiela beti esker ona ugazabak alogerak emoten deutsezalako... eta honan.

Sozialistak, behargin okerrak ez dagozan lekuetan, behargin otzanak erabilten dabez batzuetan astoa lez beharrean egunsentitik ilunkera arte, eta alogera emoten deutsee ugazabak gura dauena; eta honez ganera, beharginak euren nekearen ordezt hartuten daben aloger igarra, ugazabaren limosna bat lez euki behar dabe. Ez dozue entzun behin baino sarriago esakune hau: "horrek beharginorrek urte askotan jan dau gure ogia, edo urliaren ogia?".

Eta, behargin gizajo harek jan dauen ogia ondo baino hobeto irabazitako ogia izan da barriz, ondo berea.

Horixe jazoten da, ba, beharginak okerrean eskatu eta ateraten ez badau berea ez jako inoiz emoten, edo behintzat gitxitan emoten jako; eta horregaitik okerrera jo dabe behargin askok, eurena jagotearren.

Behargina okerrera ez joatea gura ez badozue, ugazabok, emon berari okerrari emoten jakona, gitxienez; eta ez haserratu beharginak euren jagotearren alkartuten badira, ba, hori egitea ludian eurrez ikusi eta ikusten dana da, gizonak batzea alkarren ogasuna zaindu eta gehituteko.

Zuek, behargin euskotarrok, sartu zaitezte danok Eusko Langileen Bazkunan; hantxe zeuen idekoakaz batera hobeto zainduko dozuez zeuen alogerak eta zuen lan-orduak, eta ezaldietan alkarri hobeto lagunduko deutzazue.

Batu, batu gizonak, bakarrik dabilanari inork ez deuto lotsarik hartuten²⁰².

1919-VI-29

²⁰² Lotsa hartu: errespetau.

DOIXTAR-ZALEAK²⁰³ DIRALAKO

Irlandako *Sinn Feind*arren buru dan Valera, ointxe Kaliforniako San Frantzisko uri ospetsura joateko da, eta hango irlandarrek jaiak egiteko eta zaratea aterateko gertuten dihardue gizon horren ikerpena dala eta ez dala.

Hona ba, zer jazo dan ikerpen horregaz.

Laterri Batzan egin dabe guda nagusian ibili diran mutil guztiak bazkun edo soziedade bat, *American Legion* deritxana, eta bazkun honetako buru diranak San Frantziskon heldu dira Valeraren harrerea gertetan diharduen irlandar batzordeagana, eta jakitun ipini dabez honeek, ez aterateko Valeraren ikerpenean *Sinn Feinen* ikurrinik kalera.

Gudari izandako hareek esan dabe *Sinn Feind*arrak doixtarren aldekoak izan dirala gudan, eta beraz, amerikar gudarien arerioak, eta ez dagozala eurak arerioei ikurrinak ateraten ixteko gogotan.

Ez dakigu zer erantzun eben irlandarrok, guk izpar hau irakurri dogun ingiak ez dino eta. Baina dana dala erantzun hori, *Sinn Feind*arroi San Frantziskon agertu jake aurkari gogorra; eta San Frantziskon lez, agertuko jakez hurrean Laterri Batzako beste uri handietan.

²⁰³ [Germanofiloak].

Aurkari honeek kalte handia egingo deutsee, aurkari honeekaz barregarri behar dabe, oker handia izango dabe Amerikan.

Hondino urtebete ez dala egon zan San Frantziskon Valera, eta orduan harrera handi bat egin eutsien eta irlandar ikurrinak alde guztietan ikusi izan ziran uri hartan. Orduan bai eta orain ez, hori zergaitik?

Hori da, ointsu Sims itsasoko gudalnagusi edo general ospetsuak, agirian salatu ebazalako *Sinn Feindarrak*, esanik gudaldian doixtarren alde ibili ziralako; eta geroago, Erkalerri²⁰⁴ haretako hainbat izparringitan agertu ziralako idazkiak, gudariak eginak, eta sendotzen Sims gudalnagusiak esandakoa.

Ordura arte, antza danez, hango herriak ez ekian *Sinn Feindarren* doixtarkeria, eta orain jakitun dago, eta ez deutse begiratu irlandar abertzale horreei lehengo begikotasunaz.

Jakiten badogu zer jazoten dan San Frantziskon Valera doanean, eta zer erantzun deutseen *Sinn Feindarrak American Legiondarrai* hementxe argitalduko dogu.

1919-XI-21

²⁰⁴ [República].

GAUZAK BERE LEKUAN

Lehengo egun baten, hil honen 3an, argitaldu genduan leku honetan idazki bat, Laterri Batzako *Hampton Road*stik gure idazkide *Aizarrotak* bialdua.

Honek esaten eban han, Amerikan be badagozala ardanetxeak eta akeitetxeak, eurretan jenteak gogoz edan eta lehorreko lebatzak polito harrapaturik. Eta ganeratuten eban han be, leku askotan lez, lege ederrak egin eta argitaldu arren, jenteak ez dauzala beteten; batzuk uste daben eta esaten daben baizen onak ez dirala, bertan baino emakume lotsagaldukoagorik inon ez dagoala, eta gizonezkoak, batez be, *Aizarrotaren* zereginezkoak, badaezpadakoak dirala.

Aizarrotaren idazki hori sortu zan *T. de U. E.*k hemen izparringi honetan argitalduriko beste idazki batetik, bertan esaten zala Laterri Batzan ez dala ezagutzen akeitetxerik ez ardanetxerik, han mundu guztiak ez daukala beste asmorik lan sendoro egiteko baino euren aberria aurreratzearren, eta honetara, beste gorlpen asko.

T. de U. E. etorri jaku haserre *Aizarrotaren* idazkia argitaldu dogulako; berak dino han Laterri Batzan ezagutu dauzala emakumeak, inori ezer zor ez deutsienak garbitasunean eta ontasunean, baita gizonezkoak be, edozein lekutakoak baizen zintzoak diranak; *Aizarrotaren* idazkiaz gure izparringiak Laterri Batzari iraina egin deutsal.

Geldi, geldi! Alkar aitu daigun, gauzak bere lekuan ipini daiguzan.

Aizarrotaren idazkian esaten dana ez da Laterri Batzako emakume eta gizonetzko guztientzat; ez dago irainik ha Laterri guztiarentzat; guk ikusi bagendu irainik ez genduan argitalduko.

Adibide bat. Guk, edo nahinok, esango bagendu ez dagoala Bizkaia guztian Bilbon baino emakume lotsagaldukoagorik nori bururatuko litxakio hori esanaz Bilbo iraindu dogula, Billboko emakume guztien ganera lohia bota dogula?

Ez, edonok daki, Bilbon emakume lotsagaldukoena bizi arren, emakume garbi eta on asko eta asko bizi dirala, ontasun eta zintzotasunean edozein lekutako onenak diranen ondoan ipini leitekezanak.

Bardin, ba. *Aizarrotak* esan dauenagaz ez jake irainik egiten Laterri Batzako gizon-emakume guztiei, bai zera! *Aizarrotak* badaki, eta geuk be badakigu, Laterri Batzan badirala emakume eta gizonak edozein lekutakoak baizen on eta garbiak. "Lekuan-lekuan ardiak, baltzen artean zuriak" esaten eben gure asabak. Eta Laterri Batzan be, alde guztietan lez, hementxe geure aberrian bertan lez, guztitarikoak dagoz, gogoz sendoak eta zindoak, gogoz argalak eta harjoak, azkenengotarikoak gehiago zoritxarrez.

Aizarrotaren guraria (halan uste dogu) eta geure guraria ez da izan, ba, Laterri Batzari irainik egitea.

1920-I-9

ZELAN BIZI GARA?

Aspaldian, ia urteak dira, ez da besterik entzuten tamala eta negarra baino: bizigaiak geroago eta gorago doazala, orioa hainbeste, txarrikia barriz..., ene! Merkatura joanda eskukadatxu bat ortuari erosteko dirutza bat behar dozu; hau zer da, zer ikusi behar ete dogu..., eta honakoxe esakuneak.

Lehenengoetan estututa ibiltzen nintzan holakoak entzunda, gogoa ilundu egiten jatan, gosete ikaragarriren bat ganera etorri behar jakulakoan.

Baina urteak joan urteak etorri, gosete hori ez da agertzen izan, eta zerbait barrua nasaitzen hasi jatan; eta Gabon jai honeetan jakin dodana, eta neuk neurez zeozer ikusi be bai, nahikoa izan da nire bildur guztiak aienatzeko²⁰⁵. Bai, zereko gosea!

Hara, joan diran jaietan aina turroi, gozozko suge, eta ostan-tzeko gozo-gauza, ez da saldu inoiz Bilbon eta Bizkaiko herrietan.

Joan diran Bakaldun edo Erregeen egunerako aina jolaski umeentzako be ez da inoiz saldu hemen.

Ganera, hemengo denda guztiak, eder-gauzak edo lujozkoak saltzen dabezan dendak, itzela saltzen dabe.

Gabon aurreko egunetan eta Gabon zaharrez, txitxiparrea²⁰⁶ saltzen dan dendak agertzen ziran jentea hartu ezinik goizetik

²⁰⁵ Aienatu: alden du, desagertu.

²⁰⁶ Txitxiparra: gosarian edaten dan edari bizi.

gauera arte, emakume eta neskato-mutikoak botilakaz edari gogorrak erosten.

Hemen, sartzeko dirua ordaindu behar dan jolastoki guztiak (antzoki edo teatro, pelotaleku, eta abar) beti daukazuz beterik.

Hemen, ardanetxe, akeitetxe, eta horreen antzeko tokiak, gonburuz²⁰⁷ beterik daukazuz.

Eta, azkenengo ikusi dodana da argigarriena. Harainegun, estankoetan zigarroak saltzen ipini ebezala-ta zelako erreskadak egin ziran euretan tabakorria erosteko txandearen begira!

Ogiagaitik izan balitz..., tira; baina tabakorria hartzeagaitik hori egin? Neure artean esan neban: "gose handirik ez jagok".

Beraz, hemen jentea ondo bizi da, argi dago hori, behar-beharrekoak ez diran gauzetan diru handiak eralgiten dira eta.

Txarto bizi balira, goserik balego, ez leuskio jenteari ardura-rik emongo, ez gozoak, ez apaingiak, ez jolastokiak, ez edariak, ez tabakorriak..., edo horrenbeste ardura ez behintzat.

Ardurea, ogia jateak emongo leuskio, eta nahikoa ardura beste gauza guztiak alde batera ixteko.

Zeresan asko bada, baina jentea ondo bizi da.

1920-I-12

²⁰⁷ Gonburu: bete-beteta, ganezka.

OPORKETA

Burdinbide-otseinak, edo burdin-bidariak, edo... *ferrobiario-ak*, oporrean²⁰⁸ jarri dira Baltzu²⁰⁹ handietan, Norte, Madrid-Zaragoza-Alicante eta abar.

Hemengo Baltzu txikiagoetan, Bilbotik Durango-Donostiara-koa, Bilbotik Santanderrekoa eta abar, ez dago ezer, hondino behintzat.

Atzo arratsaldean ez ziran urten trenak Madrilerantz.

Ba, horreek burdinbide-lerro handiok gelditu badaitez egun batzuetan, kalte ikaragarriak etorri behar dabe. Gaur egunean ezin leiteke bizi herririk burdinbideak geldi egonda.

Baina guk uste dogu laster atonduko dala, ba esan leiteke Espainiako Gobernuak gertu dagoala burdinbide Baltzuei honek eskatuta daukien laguntasuna emoteko.

Eta honetan dago untze guztia.

Baltzu horreek eskatuta daukie, trenez eroan-sariak gehitu ahal izatea erdi bat gehiago, hau da, gaur ogerleko bat kobretan dauena ogerleko eta erdi kobrau ahal izatea.

Eskakizun honi txarto erexten deutesie askok, esanik, hori egin ezkeru, bizigaiak be halantxe igoko dabela euren salneurrietan, eta ea zelan izango dan bizi ahal izatea.

²⁰⁸ Opor: greba.

²⁰⁹ [Compañía].

Hagaitik, aurkari edo kontrario asko dagoala ikusirik, Gobernu be atzeraka lez ibili da eskakizun horri baietza emoteko. Orduan agertu dira burdinbide-otseinak, euren Baltzu edo Konpainiei eskatzen gehitu degieezala euren alogerak. Eta berehala, Baltzu horreek esan deutsie Gobernuari eroan-sariak gehituten ixten ez badeutse, ezin deutseela emon otsein horreei eurek gura dabena, eta hortik sortuko dala oporketa gogorra. Eta oporketa hori etorri da.

Beraz, askok dinoenetik, oingo oporketa hau Baltzuen gogokoa da, oporketa honegaz Gobernu bildurtu eta beroni emonara-zoteko eskatuta dagoan eroan-sari gehitze hori.

Orain oporketa hau aldenduko dabe sari-gehitze hori emonaz; baina gero izango dira kontuak, bizigaiak karutu daitezanean gaur baino gehiago.

Orduan ikusiko dira matxinada garratzak alde guztietan...! Arraiea! Egin-eginean be, ba, gaur egunean jenteak ez dau asko behar kalera zarataka urteteko. Ludi guztian jentea urduri-urduri aurkitzen da. Aldia da, antza danez. Notinen gaixo bat lez.

Baina, jakina, herrien gaixo honek herri makaletan gehien joten dau, adimen gitxidun herrietan; eta Espainia laterrian inon diranak jazo leitekez usterik gitxien danean.

Atzo, Madrileko Lagitetxe-Behekoan²¹⁰ eskertarrok erabili dabez garrasi handiak, izan ziran zemakun edo amenazu galantak... Beteko ete dabe esan eben guztia, edo zeozer? Esakerea da txakur ahausilaria ez dala haginkaria. Hori jazoko ete jake horreei be? Ez leiteke eta baleiteke.

Itxaron eta ikusi, eta gertau, horixe da guk egin behar doguna.

1920-III-24

²¹⁰ [Congreso].

AMAIA

Egunotan Bilboko antzoki handiena dan Coliseo Alban agertu da erestantzezi edo opera ederra, *Amaia* izena dauena, gure ereslari ospetsu eta jakintsu Guridi gazteak egina.

Erestantzezi hori Bilboko herriak poz-pozik entzun dau lehenengotik; antzokia bigarren gauean be gonburuz bete-beterik aurkitzen zan, eta entzule guztiak txaloka luzaroan egonik erakutsi eutsien Guridi handiari euren poza eta atsegina.

Geuk be leku honetatik geure txalorik beroena bialtzen deusagu berari, eta opa deusagu osasuna eta orain arte lako euskotasun ederra urte askotan, bariro be horrelako lanak eginaz bere buruari eta bere aberriari ospea edo entzutea emon degeon.

Ederto, Guridi! Aintza zeuri, eta jo aurrera holantxe!

Eresi-arazoetan aituten daben guztiak esaten dabenez, *Amaia* lako erestantzeztirik ez da agertu inoiz, ez Euskadiko ez Espainiako ereslarien artean; ez dago berau lako mutilik hemengo eta Ebroz handiko ereslarien artean. Halan dinoe, eta guk sinistu. Gora Guridi!

Ereslari gazte hauxe beti izan jat niri begi-begiko. Badakizue zergaitik? Hara. Mutil honek daukan entzuteaz, beste bat izan balitz, oraingo hegaz egin izango eban horra edo hara. Madrilera edo, ospe eta diruaren bila; eta inoiz jakin dogu eskini zirikorrak euki dauzala (Lisboako eres-antzoki nagusirako artezkaritzea, adibidez), eta behin be ez dau gura izan hemendik urten, bere aberri hau itxita ezin dalako inora joan, berak bere ama aberriaz

bizi gura dau, hementxe geure artean, eusko-ereskuntzak adiraldu eta idazten. Oso da geutarra. Horregaitik, neuk begiz baino ezagutzen ez dodan arren beti izan deusat begikotasun handia.

Amaia erestantzezi hau euskeraz dago idatzita; beraz, euskeraz abestuten dabe dana. Aba Arrue frantzeskatarra da antzezi hau euskeraz ipini dauena, eta ederto ei dago; joakoz, ba, berari be gure zorion-agurak.

Guridik eta Arruek euren lan eder honegaz gure aberri Euskadi asko goraldtu dabe. Geuk be eurok goraldtu daiguzan.

1920-V-27

HARRIKATZ GARDENA GURE INJINERUENTZAT

Lehengo egun baten *The Times* ingeles-izparringian irakurri neban, ibaietako uren jaustetik sortzen dan indarrari Harrikatz Zuria²¹¹ deitzen jakon lez, laster deituko jakola Harrikatz Urdina²¹² itsasoaren betiko eraginetik sortuko dan indarrari. Beraz, orain arte hiru harrikatz doguz: Baltza, Zuria eta Urdina.

Baina neuk uste dot laugarrena be generatu leitekela: haizearen ibilte edo bultz egitetik sortu leiteken indarra, eta beroni deitu leio Harrikatz Gardena²¹³.

Gure injineru euskaldunei dei egin gura deutset, arazo hau, haizetik atera leiteken indar hau, adiraldu²¹⁴ dagiela.

Indar-iturri ikaragarria da haizea.

Gaur, haizerrota arin-arinak eta merkeak dagoz, haize apurtxo batek eragiten deutesnak. Horreetariko erreskada bat ipiniko balitz mendi luze baten ganean, esaterako, Artxanda mendian Deustuko Berriztik hasi eta Galdakao aldeko Gangureneraino, alde guztietako haizeak eragingo leuskie, nahiz iparrekoak, nahiz mendebalak, nahiz gailegoak, nahiz hegoak, nahiz nafarrakoak; eta danen artean zenbat tximist-indar sortuko leukie! Itzela!

²¹¹ [Hulla blanca].

²¹² [Hulla azul].

²¹³ [Hulla transparente].

²¹⁴ [Estudiau].

Orain, haizerrota bakotxak sortzen dauen indarra zelan hartu, zelan gondu²¹⁵?

Haizerrota bakotxa hartu leiteke mendiko erreka bat lez. Zer egiten da mendi handi bateko errekaak, guztien indarra batu gura danean? Euren ur guztiak andapara baten batu, eta danak batera hementxe gondu.

Haizerrotetan sortzen diran indarrak zelan batu? Eta batez be zelan euki edo iraunarazo? Zelan gertau eurentzako andaparea?

Horixe da nik ez dakidana, baina uste dot ez dala gauza gaxta izango.

Gauza bat otuten jat: egin leitekez indarrokaz bete tximist-bilgo, erderaz *acumuladores eléctricos* deitzen jakenak? Hori egin ahal balitz, eurretan gau eta egun indar pila handia batzauko²¹⁶ litzateke, eta bertatik eroan lantegietara edo behar dan beste edozein tokitara.

Garrantzi handia dau arazo honek, eta adiraldu eizue, injinero euskaldunok.

Niri gogora bajatort hor Frantzia, Doitxe²¹⁷, Ingalaterra, Laterri Batza, Belgika, eta beste herrietan egonik hainbeste eta hainbeste gizon zoli eta jakintsu, haize-indar hau gondutea otu izango jakela oraingo, eta zaratarik ez danean, ezineko gauzaren bat ete dan.

Baina, egia esateko, gaur honelako arazoetan, indarrak nahinon hartu, eta batu, eta eroan, eta gonduteko arazoetan nik uste dot ezinik ez dagoala.

Horregaitik asko ikaratzen nau, atzerri jakintsu horreetako izparringietan ez irakurtea, aitatu be ez, harrikatz gardenaz, eta oster, harrikatz zuri eta urdinaz bai.

²¹⁵ [Aprobetxau].

²¹⁶ Batzau: batu.

²¹⁷ Doitxe: Alemania.

Haizea lako indar-iturri hain handia aitatu be ez egiteaz neu harrituta nago, eta... badaezpadan, gure injineruei gaurko deia egitea otu jat.

1920-VI-9

ZER ETE DA?

Larunbat iluntzean hemendik Donostiara tarrantaz²¹⁸ joandako eta igande gauean burdi berberean Donostiatik hona etorriko gure adiskide batek atzo esan euskun, harantzakoan, Bolueta-Zubibarra-Bidebietan hainbat eta hainbat txapeloker ohartu ebezala. Ikaratuta, euren kolkorako itanduten ebela: “zer jazoten ete da?”.

Honantzakoan, ia ilunduta, Bidebietan zaldizko txapeloker batzuk jarri jakozan tarrantari bidearen erdian eta gelditzeko dea-darra jauarti eutseen gure adiskide eta lagunei. Esan euskun, nekez gelditu ahal izan ebela tarranta zaldiak jo barik, hain ustez uste barik agertu jakezala txapelokerrok bitxabal erdian. Honeek itandu eben:

—Nondik dator tarranta hau? —, eta erantzun jakenean:

—Donostiatik —, begiratu eben barrura, eta gero esan eutseen:

—Zoaze aurrera.

Baetozan honantza, alkarri esaten zer jazoten ete zan holako gelditzeak eta ikusteak egiteko, eta... Urtokira²¹⁹ heldu ziranean, barriro beste txapeloker bi urtetan jakez bidera, eta gelditzeko agindu; lehengoak lez itanduten dabe:

²¹⁸ [Automobilez].

²¹⁹ [Miraflores].

—Nondik zatoze? —eta:

—Donostiatik —erantzueran, begiratuten dabe tarranta barrura, eta gero dinotsee:

—Zoaze aurrera —. Orduan gure adiskide honek esaten dau:

—Baina, zer da jazoten dana? Ni izparringina naz, eta ondo izango litxakit zer jazoten dan jakitea —, eta orduan txapeloker batek badinotso:

—Ez da ezer. Madriletik Bilbora tarrantean dirua dakarre eta haxe zaintzen gagoz.

Gure lagun honek dinoanez, Bidebietatik Bilboraino bide guttia txapelokerrez josita egoan, ikaratzeko lez, hainbeste ikusita.

Horrez ganera, beste gure adiskide batek esan euskun igandean Arakaldon egon zala, eta Bidebietatik haruntza dagoan bitxabalean be txapeloker asko egoala bidea zaintzen.

Hori nork aituten dau? Madriletik Bilbora dirua tarrantean ekarri, orain arte beti, eta zentzunak halan dino, bultziz²²⁰ ekarri bada?

Eta dirua dakarren tarranta bat zaintzen dagozala-ta, bidetik datozanak gelditu eragiten ibili?

Gauza bakana da! Batek badaki zer dan!

Komediaren bat ete da?

1920-VI-22

²²⁰ [Trenean].

GURE DIRUDUNEI

Lehengo baten argitaldu genduan hemen idazkai bat: "Geure injineruei" eritxana, bertan eurei adierazorik zein garrantzi handiduna dan geuk *Harrikatz Gardena* deituten geuntsan indar-iturria.

Inork ez dau jaramonik egin, eta badakigu ez dauela egingo be; baina hori gorabehera, Jaungoikoari eskerrak, ez doguz umore ona, jateko gogo ona eta gauerako logura ederra galduko.

Horregaitik, ba, hementxe erakustearren guri jaramon ez egi-teak ez deuskula bape ardurarik, gaur idazkai bat zuzendu gura deutsegu geure dirudunei, eta hori jakinik honeek be ez deuskuela jaramonik egingo. Hara, Bilbotik Baionara eta osterako hegazkin ibilgundea, bidaztiak eta ingiak eroateko irasi dala-ta, otu jaku ibilgunde hori asmau eta ipini dabenok ez dabela irabazte handirik izango, ez dogulako uste bidazti askorik hemendik Frantziako uri haretara joango danik berrogei ogerleko ordainduta.

Bilbotik uri haretara kirolez²²¹ joan leitekez, baina ez beharrirenez. Eta diruari irabaztea aterateko, beharrezko gauzetan ipini eizu, ez gurarizkoetan. Beharrezkoan, gura eta ez joango da; gurarizkoetan ostera, gura badau bai, eta gura ez badau ez. Hau-xe, filosofokeria ondo argia dala-ta nago.

²²¹ [*Sportez*].

Ba, Baionara hemendik joan beharra dabenak gitxi dira, eta horregaitik uste dogu Hegazkin-bazkun honeek ez dabela asko irabaziko.

Beste bide bat dago hegazkin-ibilgundeaz hartu leitekena, eta hemengo dirudunak, ondo adiraldu eta ipini behar dabena, belarrimotzak aurreak hartuko deutseezan baino lehenago.

Bide hori da Bilbotik Madrilera eta osterea. Badakizue zenbat eta zenbat bizkaitar egunero joaten eta etorten dan Madrilera, ez arean euren jolasez, beharrianak eraginda baino? Ez badakizue, joan zaitezte egunero *Norteko* geltokira eta ikusiko dozuez bultzi edo trenak bete-beterik, eta hori beti, uda eta negu. Bilbotar eta bizkaitar askok joan beharra izaten dau Madrilera euren arazoak zuzentzen, han daukagu, ba, hemen agintzen dauen Gobernu.

Ba, hemendik hara eta osterera ipiniko balitz hegazkin-ibilgunde eder bat, dirua ederto aterako litzateke.

Eta ipini leitekena, gauza jakina da; horra hor Londres²²² eta Paris bitartean ipinita dagoana, honezkero zazpirehun-zortzirehun ibilgun egin dauz, eta hondino ez da izan ezbehar txiki bat be.

Hantxe dabilzan lez ipini ezkerro (eta zergaitik ez leiteke?), egunero egongo litzateke bidaztia ugari, Bilbotik Madrilerantz eta handik honantz. Uri bien bitartea egingo leukie hegazkin on-txuak, hiru ordutik laura. Urten ahal izango leukie, bat hemendik eta bat handik, bidean kurutzatu.

Ete dakigu zer hobari dan lau orduan Madrilen egotea hemendik urtenda? Ez da gero erraz jakiten.

Bai ba, hegazkinak eukiteko, eta hegaz hasi eta goitik behera jasteko, leku handiak behar dira han eta hemen, eta Bilbo barruan eta Madril barruan ezin leitekez zuzendu; baina uri bietatik urrin barik idoro leitekez lekuok, eta euretatik uri bietara tarranta edo automobilean behingo baten ekarri eta eroan leitekez bidaztiak. Halantxe egiten dabe Londres eta Parisen.

²²² *J.t.* London.

Guk hemen dirudunei dirautseguna inoiz egingo da, eta beharbada, belarrimotzak egingo dabe, eta horregaitik gure dirudunei deadar handi bat egiten deutsegu²²³, irabazpide hau adiraldu dagiela, ederto emongo leukielako. Inork ez deuskula jaramonik egiten? Tira ba, behintzat deadarra hor doa.

1920-VI-30

²²³ *J.t.* dagitsegu.

NORTZUK KANPOTARRAK?

Harainegun goizean Bilboko *Carnicería* kalean dendetako atearak arrapalada baten ixten ebilzanean, behargin oporlari belarrimotz batek esan eutsan emakume dendari bati:

—Zergaitik zabilze holan, geuk ez badeutsegu ezer egiten dendai?

Tira, hori bere elez, erderaz, esan eban. Eta emakumeak erantzun eutsan:

—Zetan zabilze, ba, zeuek aldran eta arineketa batetik bestera eskuetan makilak darabilzuezala?

—Kanpotarrak etorri dira lan egitera eta hareexek harrapetan gabilz.

Belarrimotz harentzako kanpotarrak ziran Arratiatik eta Bizkaiko beste leku askotatik egunero hemengo ibaira lan egiteko etorri ohi diran bizkaitar euskaldunak. Zer deritxazue? “Esos de fuera” esaten eban.

Emakume harek (abertzalea da) orduan itandu eutsan belarrimotzari:

—*Esos en su tierra están, y usted de dónde es*²²⁴?

Hau entzun ebanean, igarri eban belarrimotzak gauza zorrotzen bat jaurtingo eutsala emakumeak, eta bere burua bakarrik

²²⁴ [Horreek euren aberrian dagoz, eta zeu nondarra zara?].

ikusirik, bere lagunak, ba, ordurako alde eginda egozan, ixil-ixilik joan zan ezer erantzun barik.

Eurek daukie esakune polit bat: "de fuera vendrá quien de casa te echará"²²⁵.

Lotsabakoak dira, gero.

1920-VII-25

²²⁵ [Kanpotik etorriko da etxetik botako zaituana].

EUSKALDUNA-KO LANGILE BATZUEI

Atzo gure *Eusko elez* atalean argitu zan Lezamako *Mizk-lekoaren* idazki polit bat, eta bertan esaten euskun gauza harrigarri bat, eta da: *Euskalduna* lantegietan, jenteak *Dikeak* deituten deutesnetan, badirala esaten dabenak hemengo ibaira lanera etorten diran baserritarrak ez leukiela etorri behar; eurek baino behinago dirala hemen Bilbon bizi diranak; eta hori esateko emoten daben arrazoia dala, baserritarrak badaukiela etxean zer jan, eta barriz, honeek Bilbon bizi diran belarrimotzok ez daukiela.

Ez da egia hori. Hona lanera datozen baserritarrak ez daukie euren etxetan zer jan, diruaz edo lanaz erosi ezik; baserritar horreek, lan egingo ez balebe, ezin izango leukie jan euren base-txetan. Beraz, jateko lan egin behar dauenari ezin leio esan bere etxean daukala zer jan. Edozeinek esango leuke, horreek dinoena sinistu ezkerro, gure baserritarrei berez sortuten jakela euren etxetan janaria.

Belarrimotzak eta euren aldez dagozan euskotar traidoreak, badakigu zer esan gurako daben. Hauxe: hona ibaira datozen baserritarren etxeoak, guraso, edo emazte, seme-alabak, han baserrian lan egiten dabela; eta gura leukie semeak, edo senarrak, edo aitak, haren lanetik jan dagiela.

Hori ez dago zuzen. Basetxean dagozan gurasoak edo emazte, seme-alabak, eurentzat lan egiten dabe, eta hona datorren gizon edo mutilak berarentzat lan egiten dau.

Hemendik Bilbotik egunero joaten dira trenak beterik lanera Barakaldora, Sestaora, eta ibaiertzetako beste herrietara, han egon lanean egun guztian eta gauerako etxera etorten dira; eta horrelan joan-etorri dabilzanen gurasoak eta emazte, seme-alabak hemen Bilbon, edo ahal dabean lekuan, bakotzak bere aldetik lan egiten dabe, baserritarren etxeakoak lez. Ba, horreekaitik be bardin esan leiteke, euren etxeetan daukiela zer jan eta ez leukiela joan behar Bilbotik inora lan egitera.

Baserritik hona datorren behargina, eta Bilbotik beste herrietara egunero zabaltzen diran beharginak bardin dira, danak beharginak; eta bizi dira bakotzak ahal dauen edo ondoen jator-kon lekuan; aske edo libre da bakotxa bere ostatua topetako hemen, edo hor, edo han.

Baserritarren etxeakoak soloan lan egiten dabela, eta handik irabazten dabela? Bai Bilbotik Barakaldora eta, joaten diran langileen alabak, josten edo zetan-hatan; semeak, euren lantegietan; edo gurasoak, bakotxa bere lanean, batzuetan dendatxuren bategaz edo; emazteak (gure alkate Laisekarenak be ez eban ointsura arte lan egiten etxeetan behiak uraz garbitzen?), eta ostantzeko etxeako guztiek be, lan egiten dabe, bakotzak ahal dauen lekuan!

Bitzuen sendi edo familiek lan egiten dabe, batzuk soloan, besteak kalean; eta bitzuek bizi dira euren beharraz.

Beraz, belarrimotzai atzeak miazkatzen zabilzen euskotar langile satsok, ez daukazue errazoirik. Baserritarrek, nahiz edozeinek, eskubidea dauka nahinon lan egiteko; eta inor behinago izatekotan, hemen Euskadin, eta Bizkaian, zuen belarrimotz maitoorrek baino behinago dira bertoko semeak.

1920-VIII-12

AMERIKARA... ZETAKO?

Baserri txiki bateko mutil gazte batek dinost Amerikara doala ganeko egunen baten.

—Amerikara zergaitik zoaz, ba?

—Han urte batzuk eginda diru zati polit bategaz etortearren.

—Ekarriko ete dozu, gero...

—Beste batzuk ekarri dabe behintzat.

—Askok ez. Zenbat dira, hamabost urte honeetan, herritik Amerikara joan diranak? Berrogei inguru bai, ezta? Eta zenbat etorri dira, ba, diruagaz?

—Hor daukazu Urlia, eta hor daukazu Berendia, eta hor daukazu Sandia, eta hor daukazu...

—Bai, badakit, laugarrena zein dan. Guztira lau atzera etorri dira. Eta zenbat diru ekarri dau gehien ekarri dauenak?

—Berrogei mila erreal ekarri dituana be bada, ba.

—Horrexek gehien, Amerikan zazpi urte eginda.

—Eta gitxi deritxazu ala? Hemen zazpi urtean nork horrenbeste diru aurreztu? Ezta...!

—Aurreztu ez? Bai aurreztu!

—Horixe ez deustazu argi ipiniko.

—Hara, Amerikatik bi mila ogerlekogaz etorri dana zazpi urtean bertan egonda, neuk baizen ondo dakizu zeuk be zelako bizimodua egin dauen han, berak kontau dau, ba, sarritan eta. Ez

ardaurik edan, ez zigarrorik erre dau, ez akeitarik²²⁶ hartu dau, ez gasturik egin dau bizi izateko behar-beharrekoa baino; horren gogoa ez da besterik izan, dirua aurreratzea baino. Ba, hori hemen egin ezkeru, neuk dinotsut Amerikan beste diru batuko leukela. Egin-eginean be, horra non doan Izardoiko Pepianton... *Eup! Ea hona pixka baten, mesedez...* Ointxe ikusiko dozu...

—Pepianton, zenbat aloger irabazten dozu Billboko nasa edo muelleetan?

—Berrogeta bost erreal.

—Adi egon, ba. Neuk uste dot, gure herriko Urlia Amerikan lez bizi izango balitz Pepianton, aurreztuko leukela egunean ogerleko bat baino gehiago. Baina zeure aldera gehiago egitearren, uste izan daigun ogerleko egin-egineko bat bakarrik aurreztuten dauela egunero. Atera daiguzan kontuak. Urteak daukaz hirurehun eta hirurogeta bost egun; urtean, ba, beste horrenbeste ogerleko aurreztu. Hor ez dago ezbairik; argiago ezin, ezta?

—Bai, halantxe da, ezin ukatu leiteke.

—Zazpi urtean, ba, zazpi bider hirurehun eta hirurogeta bost, edo... bi mila bostehun eta berrogeta hamabost ogerleko!

—Ene, eta halantxe da.

—Beraz, Amerikara joan beharrik ez dago diruak egiteko; hemen be egin leikez han letxe, gogoa horretara ipini ezkeru, diruak egiteko asmoaz alperreko gastu guztiak kendu ezkeru. Hortxe daukazu nasan edo muellean lan egiten dauen Pepianton mardoonek ondo begiratuten badeutso irabazten dauenari hemen-dik zazpi urtera zelako dirutzea eukiko dauen.

Amerikara ez joan, ba, euskaldunak. Etorri hona, Bilbo aldera, eta aurreztu dirua, eta urte batzuen barruan zeuen etxetik urrin barik diru-moltso politaren jabe izango zarie.

Amerikara asko doaz, eta han dabilz barregarri gehienak, han be badago, ba, non gastau hementxe lez, gastetako bideak ugari

226 [Kaferik].

dira han be; asko dira etorri gura leukienak atzera euren etxe aldera, eta ezin. Asko dira tunante batzuk eginda, ezetarako ez dirala dabilzanak. Asko dira euren aberri, euren guraso, euren anai-arreba, euren etxalde eta dana, ahaztu dabenak.

Amerikan be lan egin behar bizi izateko eta dirua aurreztuteko, eta hemen be bai. Amerikan egiten dana hemen be bardin egin leiteke. Han beste irabazte-leku hemen be bai.

Beraz, Amerikara zetako?

1920-X-17

IRLANDAR GOGORRAK!

Gelgarria²²⁷ da benetan irlandarrak darabilen gudea, aspal-ditxuon, gaur ezagutzen diran laterri indartsuenetariko bategaz, Ingalaterragaz.

Eurek ezin dira urten zabalera gudaroste edo ejerzitoakaz; baina euren erara, ixilik eta ustez uste barik, txakada galantak egiten deutseez ingelesei; eta honeek dabilz zoratu beharrez, ezin igarririk nondik nora dabilen euren arerioa, beti bildurrez usterik gitxien dan lekutik urtengo ete jaken. Ingelandar gudari eta nagusiak urduri ipini dabez.

Eta orain, horreetariko txakadak egiten hasi dira Ingalaterran bertan, eta ingelesan urduritasuna izugarriro zorroztu da. Honeek, esan leiteke euren hoztasuna galtzen hasi dirala, eta itsuitsuan hasi dira jotzen begiratu barik nor jotzen daben. Eta horregaz *Sinn Feindarren* aldekoak gehitzen dabez, eta amorratuago ipini.

Beste aldetik, burrukeak bitzuak berotzen dauz asko, eta ingelesak be asko hasi dira itxuraz gogortzen, lehen irlandarren gauzak adiskidetasunez begiratzan izan dabezanak eurak be, hasi dira hareei arerio lez begiratzan. Eta gogorrean jarten badira, hor-dago jotera, hor ikusiko diranak ikaragarriak izango dira; ingele-sa, ba, setatsua eta ekina da; ludian inor bada.

²²⁷ [Miragarria].

2

Burruka horrek azken txarra euki behar dau; baina dana dala, guk eta gure antzera ludian beste laterri batzuen azpian dagozan herri guztiak gaur irlandarra asko zor deutsee, ba eurok egiten dabenagaz zarata handia ateraten dabe, eta zarata horretara nagi askok begiak zuzentzen dauz, eta oldozten hasten da sekula inoiz oldoztu ez dauena.

Batek baino gehiagok esan dau: "Zergaitik herri bat, abenda-herri bat, euki behar dau azpiratuta beste batek?", eta gero berez-berez gogoa joan jako bere herrian bertan jazoten danera, eta orduantxe begiak argira zabaldu dauz.

Hareek dabilz zabalkundea²²⁸ egiten ludi guztirako euren odolaz. Lagundu beie Jaunak.

1920-XII-1

²²⁸ [Propaganda].

BIHOTZA ETA BIHOTZA

Joan dan urtean, frantsesak eroan eben Parisera ez dakit nondik (orain bertan ez naz gogoratzen, baina bardin da) Gambettaren bihotza.

Parisko eta Londresko idantzekidun ingietan²²⁹ ikusi neban argazki edo fotografiak, erakusten ebenak zelako ospasunaz eroan eben "bihotz" hori Parisko kaleetatik zehar orain dagoan etxera (uste dot *Panteon* deitzen dabean etxe haundi batera dala).

Ha zan ha, prozesinoa! Gambettaren bihotza eroan eben ontzi apain-apain aberats baten, eta beronen atzean ikusgarritzko jentetzea, eta hondino ikusgarriagoa alboetan begira egoana, danak lotsa handiz txapel-kapelak erantzita. Bide guztian soldaduzko hesi bi egozan ipinita, kaleak prozesinoarentzat zabal egon eitezan. Prozesinoan joiazan Frantziako gobernu eta enparau agintari eta handikeria guztia.

Gambetta hori gizon bat izan zan, hizlari errimea, politikan gorria, erlijinoaren arerio zitala. Gizontxu bat; beste gehienen neurritik pixkat urten baeban, horretantxe, hitz egiten jakieran bakarrik izan zala; ostantzeko egitadetan ez eban pilotik urten, erlijinoari bere amorrua erakusten izan ezik.

Ba, gizontxu horrexen bihotzari Parisko kaleetan gur egin deutsie, adarau egin dabe, eta inork ez dau erakutsi ezetariko

²²⁹ [Ilustrazioetan].

haserrerik, inork ez dau txartzat hartu, behintzat; danok ixilik egon gara.

Baina, orain gogoratu jake hemengo gizon batzuei, Bilbon, kalean, edo eleizatik at, Jesusen Bihotzaren irudi handi eta eder bat ipintea... eta asko eta asko, lehen Gambettarena ontzat emon dabenak, haserre dira, ea eleizea nahikoa ez ete dan horretarako, ea kalean horrelako irudiak ipini...

Honeek, haserre diranok, Parisen egon balira gizontxu baten bihotzari halako adorazino bidebakoa egin eutsiengan, seguru gagoz prozesinoa ikusten joango zirala eta lotsa handiaz burutsik jarriko zirala, eta gero etorriko zirala esaten: "O, Gambetta, o! Zelako urna aberatsa! Zelako prozesino ederra! Gustua da hola-ko gauzak ikustea! Hak gizonak dana merezidu dau izan be!".

Gizontxuok, ba Gambettaren bihotzak hori merezidu badau zer ez dau merezidu goi eta behe, zeru eta lurreko dan-danaren egilea, eta jabea, eta nagusia, eta ugazaba, eta jauna danaren BIHOTZAK?

Zuek zer uste dozue, Gambetta eta bera lako ezin esan ahala miloi batuta ezer dirala Jesukristoren ondoan? Zer uste dozue, bapeza eta dana, alkarren ondoan ipini leitekezala?

Munduan jaio diran eta jaioko diran gizonen bihotz guztiakaz bat eginda be, ezebez, bapez, BIHOTZAREN ondoan.

Beraz, Gambettaren bihotzari egindako gurpena ontzat hartu zenduenok, edo behintzat, haserratu eragin ez zinduezanok, mese-dez ixilik egon zaiteze lelokeriarik esan barik Bilbon Jesusen Bihotzari egin gura jakon irudiagaitik.

Eta zeuek be lagundu zeozer emonaz horretarako.

1921-II-1

EDARIKOIA

Gaur *Larrekok*²³⁰ dinosku mozkorrik harrapau ez arren be, ardaua edateko ekanduak kalte ikaragarriak dakarzala eta edoze-lan ekandu hori kentzen ez badogu Euskadin, gure abendearen azkena berehalaxe datorrela.

Ardaua edateko ekandu hori kentzen ez bada zuztarrez, agur euskotarren osasuna, agur euskotarren zintzotasuna, agur eusko-tarren langiletasuna, agur euskotarren umeak, agur euskotarren abendea...!

Guri, egia esateko, jermikeriak iruditu jakuz horreek bil-durrok. Guk eskatzen dogu argitu deiguela ea zergaitik dan hemen ipinten dogun hauxe. Geure txikitatik hona ezagutu doguz, gaztetan geure mutil-lagunak osasuntsuak, indartsuak, adimen argidunak, giza-eredu ederra, eta asko, euren gurasoak eta eurak be bai, janordu guztietan ardaua edaten ebenak; harrezkero, bardin, hainbat eta hainbat jente osasuntsu, eta sendoak, eta argiak, eta onak ezagutu doguz, euren bizitza guz-tian ardaua janorduetan edaten izan dabenak; eta gaur, ezin esan ahala jente ezagutzen doguz, berrogeta hamar urtetik hirurogeta hamar urtera bitartekoak, beti ardaua edan dabe-

²³⁰ *Larreko*. Pablo Fermin Irigaray Goizueta idazlearen gatxizena (1869-1949). Nafarroan jaioa, Auritzen. Madrilen egin zituan medikuntzako ikasketak. Euskerazko lan aitagarrienak *Gure Herria* eta *Euskal Esnalea* aldizkarietan emon ebazan argitara.

nak, eta hori arren, osasun ederrean aurkitzen diranak, eta seme-alaba ederrak daukiezanak, eta askok iloba sendokote mardoak.

Ardaua edateko ekanduak ekarriko baleuz *Larrekok* dinozan lako triskantzak, hori zelan izan leiteke?

Hor daukaguz, ba, gauza bi alkarregaz erara ondo ez datozenak: *Larrekok* dinoana, eta geuk (eta zeuek be bai, irakurleak) geure bizitza guztian geure ezagun zenbatu ezin leitekezan ardau-edaleen artean ikusi izan dogun osasun bete-betekoa.

Horixe argituko baleuskue, eskerrak.

1921-II-4

AGINTEDUNAK

Edo autoridadeak. Lotsea zor jake, bai horixe; baina aspaldion eurek darabilezan okerreriakaz, ez dabe lotsa handirik eura-kanatuko.

Hementxe edestu edo kontauko deusuet hondino ointsu, hila-bete harēnbaten, jazoriko gauza bat; eta gogoratu honeetarikoak asko jazo dirala.

Hara, badakizue lehengo udan, hemengo lantegi askotan, jabe piperpoteak esan eutseela gure beharginei, lan egin gura baeben edo sozialisten edo sindikalisten bazkun edo soziedadeetan sartu behar ebela.

Honan, ba, mutil bat, bilbotarra berau, euskotarra, eta aber-tzalea uste dot, bere lanlekua ez galtzarren, sindikalisten bazkun sartu zan, eta horixe eginaz jarraitu ahal izan eban bere lan-tegian.

Geroago, badakizue Gomez tiroka erail ebela, eta orduan agintedunak hasi ziran sindikalisten aurka gogor-gogor, zarratu eutseezan euren batzokiak, eta euren ingi edo paper guztiak harrapau eutseezan.

Horretaraxe harrapauriko ingi edo paperen artean, sindikalisten izen erreskada baten agertu zan guk aitatu dogun mutil honen izena be, eta beste barik, hartu eta espetxeratu eben²³¹, eta txapelokerren artean bialdu eben beste sindikalista pilo bategaz, biderik bide, batek badaki norako.

²³¹ [Kartzelaratu eben].

Mutil honen aita, estaturik, heldu jakon geure adiskidea dan abertzale ezagun bati, hemengo agintedun nagusiaz ahala daukani, eta esan eutsan, ba, zer jazoten zan bere semeagaz, eta eskatu eutsan, inondik ahal baeban, ekarriarazoteko mutila atzera; mutilaren azterrenak²³² lantegian bertan emongo eutsiezala gura baeban, hantxe jakingo ebela zelan zan mutil behargina, ixila, ezetan sartzen ez dana, eta abar.

Gure adiskideau joan zan berehala agintedun nagusiagana, eta eskatu eutsan, ba, haxe mutila. Agintedun horrek, gure adiskidearen esanera, itandu eutsen bere menpekoei ea hareek egun hareetan txapeloker artean Bilbotik urtendakoak non ete ziran; erantzun eutsien Durangoko espetxean aurkitzen zirala; eta emon eban agindua urlia mutila aske ixteko eta Bilbora bialtzeko.

Biharamonean, mutila eta bere aita, gure adiskide horregaz batera, joan ziran agintedun nagusi horregana, eskerrak erakustera berak egin eutsen onagaitik.

Mutila berehala hartu eben barriro bere lantegian, langile ona dalako.

Geure adiskide hari esan geuntsan:

—Eta gizajo horrek zu euki ez bazinduz bere alde hitz egiteko, orduan zer? Zenbat joan izan ete dira horixe lez, errubako huts-hutsak, gizonik euren alde euki ez dabenak, horko bideetatik zehar, batek badaki nora, euri, lei, haize, eta hotz guztiak, ibilteko nekeaz ganera, hartu beharrean; eta zenbatek, horretara, bidean gaixotuta bizia galdu izan ete dau, eta zenbatek ikusirik holan bere burua ezer egin barik gogoko osasuna galdu ete dau, eta lehen gizon on bat izan dana gaur izango da otso bat amorruez beterik dagoana!

Gure adiskideak erantzun euskun:

—Gaur galduta dago agintedunakaz adiskiderik ez daukan gizona.

1921-III-12

²³² Azterren: errastu.

BILDURRA

Jentea urduri dagoala esan leiteke, arin bildurtzen da.

Atzo iluntzean, Bariku Deuneko ibildeun edo prozesinoa Kurutze kaletik igaro eta berehala, idiren batek bere eroaleari iges egin eta arinetetan hasi zalako edo, hasi zan mundu guztia arinetetan, ez bakarrik kale haretan, baita inguruetako kale guztietan be.

Gu, hementxe gengoan geure etxean, gauerako lana aurreratuteko ustean, eta entzun genduzan, halako baten, gure kale honetan, Euskadi kale honetan, astrapala eta txilio handiak.

“Ene Jaungoikoa, ointxe munduaren azkena ez badator, behintzat deabrukeria haundia jatorik” esanda, urten genduan balkoira. Ha zan ha, arineketea! Jentea zoratuta lez sartzen zan etxeetara arrapaladan alkarren ganera. Soldadu jantziriko mutil asko be ikusi genduzan orpoakaz eperdiak joteko moduko arinetetan, etxeetara buruzkanka²³³ lez sartzen. Guk ezin barreari eutsi. Begira gengoan, ba, adi-adi ea zer etorren; baina ezebez. Danak ebilzan arinetetan, zergaitia ez ekiela. Beste batzuk arinetetan ikusi, eta eurek be arinetetan.

Hori jazo zan hiru edo lau bider. Horretan ikusten da jentea bildur dala, edozer zaratatxuk arinetetan eragiten deutso.

²³³ Buruzkanka: txirinbuelata.

Geroago emakume bati entzun geuntsan hor, Sombrereria kalean eta, habea lakoxe gizonak arinetan igoten zirala etxeetan azkenengo oinetaraino²³⁴ hegoak balebez letxe, emakume guztiak atzean itxita. Hango arnasotsa, seguru be!

Baina egun honeetan, eguen eta bariku, bildur handia nork erakutsi dauen badakizue? Gure Dregueralek. Arraiea! Eguen goizean hemengo eleiza Deun Jagoban egon nintzan, eta eleiza guztia josita ikusi neban polizia ixilezko; berehalaxe igarten jaken zeintzuk ziran. Hara, gure Jauna monumentura eroan eta berehala Berari ereserkia abestuten jakonean danok gengozan, ba, jakina, belauniko, eta orduantxe agiri ziran eleizan hor-hemen gizon batzuk zutunik, makilea besapean ebela, eta alde guztietara begira... hareexek ziran ixilezko jagoleak²³⁵!

Baina zenbat? Hogetakak bai. Esan genduan geure artean: "Hola, ondo zainduta dabil gizon hau".

Guk Dregueralen adiskideak bagina esango geunskio: "Esaiezu zeure jagole horreei, ixilezkoak izan gura badabe, dagozan lekuan egin dagiela beste guztiak egiten dabena; hori gitxienez; eta eleizan gure Jauna agirian dagoanean belaunikatu daitezala apal-apalik. Gure Jaunak jagoten ez bazaitu, horreek jagole giza-jook zer egingo deutsue, ba?"

Egun bietako ibildeunetan be jente guztiak igarten izan dauz Dregueralen inguruan jagole agirizko eta ixilezko pilo handiak joiazala, alde guztietara zur-zur begira.

Jentea bildur eta Dregueral be bildur.

1921-III-26

²³⁴ [Pisuctaraino].

²³⁵ [Poliziak].

ASELE POLIT BAT

Irakurle, erderazko *legende*, *leyenda* guk euskeraz adierazoteko *asele* darabilgu aspaldiko urteetan.

Zer da *asele* edo erdeldunen *legende*, *leyenda* hori? Antxina-antxinatik, geure asabakandik, mailarik maila edo ahorik aho, hitzez eta ez idatziz, gureganaino heldu jakun edestipuina, hau da, erdi edesti²³⁶ eta erdi ipuina.

Honeetarikoak zaharrai entzuten deutseguz, eta guk gazteei esan, eta hareek geroago euren hurrengokoei, eta halantxe joaten dira honeetariko asele edo *legende*, *leyenda* honeek, gizaldietan zehar. Gehienetan jazokun batetik sortzen dira, eta geroago irudimenak sorturiko gauza askogaz (hauxe ipuina) nahastuten dira, eta azkenerako ez da ez edestia ez ipuina, bien bitarteko gauza bat baino; eta gehienetan, gogoari atsegin emoten deutsana.

Honeetariko asele bat, oso polita, argitaltzen dau *Gure Herria* aldizkingiak, hil honetako zenbakiak, eta Bizkaiko euskeraz hemen jarten dogu, uste izanik gure irakurleek pozik hartuko deuskuela.

Asele honetan aitatuten dan eleizea, Salvatore eleizea, mendian dago, Nafarroa Behekoan, Mendibe uritik mendira doan bidezidor bati jarraiturik, Irati oihan ospetsurantz, goian aurkitzen dan ordoki edo goi-zabal baten dagoan eleizea, bertakoak Elizagarai deitzen deutsiena, baita Salvatore be.

²³⁶ [Edo historia].

Eleiza hau aurkitzen da, beraz, mendi-goian (829 neurkin itsasganean), eta han inguruko biztanleak eraspen edo debozino handia deutsie.

Gure Herriak erderaz dakarz eleiza honen zertzeladak ederto eta zehatz, Colas Baionako Lycéeko irakaslariak eta Barbier Jon abade euskaldunak idatzita, eta honen hurrengo dakarz asele bi, lehenengoa osorik, eta bigarrenaren zati bat, hurrengo zenbakian jarraitzeko.

Hona hemen orain lehenengoko asele hori:

MEZA MISTERIOZKOA

Goizaldera, gau baten, goratxuago dagoan oihanetik²³⁷, artzain batzuk ohartu eben Salbatore eleizan argi bat egoala.

Hurrengo gauean, eta ordu berberean, haxe argia ohartu eben barriri artzainak, eta holantxe gero aste oso baten. Ikara handiak hartu zituan, eta aitatu eben euren ardiakaz beste leku batera joatea be.

Baina, ardientzat hain janari ederra egoan tokia itxi beharrak be asko minduten zituan, eta hasi ziran alkarri esaten, ikusi egin behar ebela haxe argia zer ete zan.

Txabolan beti arduraz eukiten eben ur bedeinkatuaz ondo zeinaturik, eskuan errosarioak baina bai makila eder bat be badaezpandan, abiau ziran, ba, guztiak batera goizalde baten.

Argia laster ikusi eben beti lez, eta euren txakur artzainorak atzera egin eben, ahausi eta ahausika.

Bildur gitxiago ez ebela, artzainak hurreratu ziran horraitino, alkarri eskuak emonda, danak bat egiteko.

Bidean inor aurkitu barik, ikara-ikaraz, heltzen dira eleizara, eta itxita dagoala, beti lez, ikusten dabe.

Polito-polito, euretarik bata azartuten da giltz-zulotik begiratzen, eta mututurik gelditzen da. Bere lagunak begiratzen dabe

²³⁷ [Basotik].

harek lez, eta harrituta gelditzen dira eurek be. Altarako argiak biztuta, meza emoteko jantziak soinean dauzala, abade bat egoan han zutik, altarearen oinean.

Artzainek zarata zerbait egin dabe atean, eta orduan abadeak atzera begiratu dau, eta gero, berehala, arnasestuka lez, hasten dau bere mezea: *Introibo ad altare Dei*. Eta artzainetarik batek, ia jakin barik zer esaten dauen, kanpotik erantzuten deutso, ahal dauenik ondoen.

Eta gero, artzainek: *et cum spiritu tuo* edo *amen* erantzuten utsiela beti, abadeak jarraitu eta amaitu eban bere mezea, eta ez artzainek gura eben baino arinago.

Noizbait mezea amaitu zanean, abadea bihurtu zan aterantza begira, eta begitarte eta begiak argi-argi ebazala, deadar baten esan eban:

—Oi, mila esker arima onak, zarienak zariela! Hainbeste urtetan begira nengoan, meza hau emon beharrez zeruan sartze-ko! Inor ez zan hemen sekula, niri erantzuteko! Mila esker barri-ro be, ez zaituet zeruan ahaztuko!

Eta hauxe esanda aienatu zan abadea.

Sekulako bildotsak izan ebezan, urte haretan, gure artzainok. Baina ez leku haretan, ba biharamonean bertan lekuz aldatu ziran.

1921-VI-25

LOUVAINGO LIBURUTEGI BARRIA

Badakizue Louvain Belgikako uri ospetsu bat dala, bere Irakastetxe Nagusi edo Unibersidadeak ospe handi hori emon deusala.

Baita badakizue, Irakastetxe Nagusi honek liburutegi eder bat eukala, ludi guztian entzute handiduna, eta doixtarrak²³⁸ Guda Handiaren hasieran erre eta hauts bihurtu ebela liburutegi hori.

Doixtarrak 1914ko dagonilaren 19an sartu ziran Louvainen, eta hilabete haren 25ean uriari su emon eutsien.

Biztanleatarik 200 hil ziran, eta 1.500 etxe baino gehiago erre ziran, euren artean Irakastetxe Nagusiko Liburutegia, Gotzain-Eleizea²³⁹, Antzokia²⁴⁰, Auzitegia, eta Erti-Irakastetxea²⁴¹.

Liburutegi eder haretan egozan 600 eskutidatz, 1.000 liburu en lehen-ijeki²⁴², eta 450.000 liburutik gora, eta dana erre eta galdu zan, liburu garaun edo ale bat bera be gaizkatu ez zala, eta euretatik ehundakak ziran ordezkorik ez eukienak.

Laterri Batzako²⁴³ herriak, bihotz-zabalez, asmoa hartu dau

²³⁸ [Alemanak].

²³⁹ [Katedrala].

²⁴⁰ [Teatro].

²⁴¹ [L'école des Beaux arts].

²⁴² Ijeki, iheki: ale, kopia.

²⁴³ [United States].

Louvaingo Liburutegia barriztuteko, edo hobeto, liburutegi barri bat egiteko; eta honetarako bildu dauz 3.750.000 laurleko.

Lehengoa hileko²⁴⁴ 28an ipini dabe liburutegi-etxe barri honen lehenengo harria, *Place du Peuple* deritxan enparantzan, uriaren gorengo lekuan.

Etxe barri honen asmoa egin dau Whitney Warren amerikar eregikari²⁴⁵ aurrenengo batek, erretan lagundu deusala Wetmoretar Karla izena dauen beste eregikari ezagun batek.

Etxe barri honen egitamua da XVII. gizaldian flandestarrak²⁴⁶ etxegintzan erabili ohi eben erakoa.

Bere luzerea izango da, aurrealdean, 70 neurkin²⁴⁷, eta bere goiarea bertan 45 neurkin.

2.000.000 liburu euki ahal izateko handierea izango dau etxe honek.

Sarrera nagusiaren ateko goialdean ipiniko da Ama Nesku-tsaren irudia, eta Belgikako eta Laterri Batzako armarrak.

Teilatu-hegala harrizko hesi ertikoi bat izango da, bere hesitaketak hizki²⁴⁸ antzekoak izanik eta danen artean idazkun hau eginik: *Furore Teutonico diruta, Dono Americano restituta*²⁴⁹.

Liburutegi barrirako orain arte 40.000 liburutik gora dagoz eskinita Laterri Batzan, Ingalaterran eta Frantzian.

1921-VIII-4

²⁴⁴ [Garila].

²⁴⁵ [Arkitekto].

²⁴⁶ *J.t.* flamandarrak.

²⁴⁷ [Metro].

²⁴⁸ [Letra].

²⁴⁹ [Doixtar astakeriaz birrinduta, amerikar emoz barriztua].

TXARRI-BELARRIA

Orain arte jateko baino ez dira izan txarri-belarriak. Aurre-rantzean beste gauza baterako izan leitekez. Hara, Massachusetts erkian²⁵⁰, Laterri Batzan, Cambridge deritxan urian, kimikajakintsu batzuk adiraldu²⁵¹ eben seda-haria egiten dauen harrak bere buruko gingiltxu batzuetatik ateraten dauzala ur bi edo lobel bi, bata pizka antzekoa, arin gogortzen dana, eta ur edo lobel biok alkartuta, seda-hari mehe-mehea sortuten dala.

Horreek kimika-jakintsuok idoro edo topau gura eben non-bait holakoxe ura edo lobela, eta ibili eta ibili, txarrien belarriak horren antz handiko lobela daukiela, eta ugari, jakin eben.

Txarri-belarri bati atera deusie, ba, lobel hori, eta behar diran garbikuntzak eraginda, lortu dabe sedea lakoxe hari mehe-mehe bat, eta berau ehundu eta lortu dabe zapitxo bat, leun-leuna eta biguna, sedea lakoxea, eta beragaz emakumeak eskuan erabilten daben zisku²⁵² txikitxu bat egin dabe.

Eta hona hemen, txarri-belarri bat sedazko poltsatxua zelan bihurtu dan. Sorginkeria dirudi, ezta?

Halako baten asto-pekorotzakaz²⁵³ urrezko erloju-katea egin dabela entzungo dogu.

1921-VIII-21

²⁵⁰ Erki: eskualde, probintzia.

²⁵¹ [Estudiau].

²⁵² [Poltsa].

²⁵³ *J.t.* pekotzakaz.

BERRIOTXOAREN HERIOTZA

Gaur dira hirurogei urte Tung-King deritxan aldean hil ebela Elorrioko seme ospetsu Berriotxoatar Balendin.

Deuntzat dagoan gure bizkaitar honen bizitzearen barri bada-kie irakurlerik gehienak guk baino hobeto. Baina hori gorabehe-
ra, batzuei gogoratu arazoteko, zertzelada handienetariko bat edo bi hemen ipiniko doguz.

Elorrion jaio zan 1827garren urtean zezeilaren²⁵⁴14an; txiki-
txikitatik beti izan zan guztiz mutil ona, eleizarakoa, eta guraso-
en eta nagusiagokoen esanekoa. Abadetzako ikasteak egin zituan
Logroñon, eta bertan abade egin zan. Han be, ontzar handi bat
beti; eta bere maisuek, eta bere lagunek, eta herriko jentee be
santutzat eukiten eben.

Abade eginda otu jakon bere betiko guraria betetea. Deun
Domekaren²⁵⁵ fraile izatea; eta joan zan, ba, Ocañara, hango
komentuan Domekar jantzia harturik.

Handik Filipinetara bialdu eben. Manilara heldu zanean,
jakinik Tung-King herrialdean kistarrak txarto erabilezala, jazar-
pen²⁵⁶ gogorra egiten eutseela, eskatu eutsen bere nagusiei
herrialde hatara joatea, eta joan zan 1857an.

²⁵⁴ [Otsaila].

²⁵⁵ [Santo Domingo].

²⁵⁶ [Persekuzino].

Lau urtean bizi izan zan bertako kistarrak laguntzen eta erakusten; bere ontasunagaitik eta bere adimen argiagaitik Gotzain²⁵⁷, Centuriako Gotzain, izentau eben.

Lau urte horreetako bere bizitzea oso latza izan zan; beti ezkutuka, beti gaez eta basorik baso ibili behar, erdi jantzita, erdi goserik.

Euki eban era ona handik igesi egiteko, hango itsasertzera gudontziak²⁵⁸ bialdu ebezan, ba, Frantziak eta Espainiak europar beldukari edo misioneruak batu eta ekarteko; baina Berriotxoak ezetara be ez eban gura izan hango kistar gizajoak bertan behera laga eta berak igesi egiterik; bera zala hareen artzaina, eta ea berak alde zelan egingo eban ardiak otsoen artean itxita. Bai zera, ezetara be ez!

Azkenean tunkindarrak harrapau eben 1861garren urteko urriaren 15ean. Esan eutsien Kristo itxi eta euren erlijinora sartzen bazan, ez ebela hilgo eta ganera euren artean ondo izango zala, baina bai... leku onera! Jesukristo ukatu Berriotxoak? Ezta...!

Horregaitik heriotzea emon eutsien, burua ebagiaz, gaurko egunez. Hogeta hamalau urte eukazan orduan.

Hango kistar batek, tunkindar nagusitxuei dirua sendo emonda, Berriotxoaren gorpua erosi eutsen, eta gaez lurraldu²⁵⁹ eban *Jeu-Dat* deritxan leku batean, eta horregaitik hango kistarrak beti jakin eben non egozan euren Gotzain izandako zinopa edo martir zintzoaren gorpuzkinak.

Handik geroago, urte asko igarota, gorpuzkin horreek ekarri ziran handik Elorrioko eleizara, Balendin Zorunduna ugutzau²⁶⁰ zan eleiza berera²⁶¹.

²⁵⁷ [Obispo].

²⁵⁸ [Gerrako barkuak].

²⁵⁹ [Enterrau].

²⁶⁰ [Bateau].

²⁶¹ *J.t.* eleiz bertara.

Hartu daigun bitarteko Jaunari egiten deusaguzan eskarrietan, gogoan eukirik Jaunak bere zinopa zintzoa eredutzat danoi ipintearren eta bere donokian daukala erakustearren samurrago egongo dala gure eskariai ondo erantzuteko.

Hartu daigun eredutzat Berriotxoatar Balendin zorunduna, eta berak lez behin be ez daigun ukatu Jesukristo Gure Jauna eze-gaitik be, datorrena datorrela.

Harek hori eginaz bere bizia galdu eban, eta guk hori eginaz bizia ez bada ludiko gauza asko galdu daikeguz, baina... gero? Gerokorik ez dago ala? Ez dau balio *gerokoari* barre egin eta ahaztu gura izatea, bai zera, *gerokoa* geuk uste gitxien dogunean etorriko jaku, eta orduan zer?

Orduan, nor izan eitekean Berriotxoatar Balendin lakoa!

1921-XI-1

FRANTZESKA XABIER²⁶² DEUNA

Gaur gure Ama Doibatzak²⁶³ ospatzen dau nafar deun handi honen eguna.

Berau, Nafarroan, Jabier deritxan herrian jaio zan 1506ko jorrailaren²⁶⁴ 7an. Aberats etxekoa zan, eta horregaitik, bere urtetara heldu zanean, Parisera bialdu eben gurasoek, han egiteko bere ikaskuntzak. Eta egin zituan, ondo egin be, buru argia ebalako.

Deun Iñaki be Parisera heldu zan, eta han alkar ezagutu eben; biak alkarregaz ederto atonduten ziran, lagun handi eginik.

Eta Deun Iñakik bere Josulaguntza irasi²⁶⁵ ebanean, Xabiertar Frantzeska be josulagun egin zan, eta Indietara joateko 1540ko epailaren²⁶⁶ 5ean ontziratu zan.

Indietan eta Japonian iragarri eban Jesukristoren Goizparra, horretarako hemen beheko indarrik bape eroan ez ebalu, ez dirurik, ez iskilurik²⁶⁷, ez ikurrinik, ez gudaririk... bere burua bakar-bakarrik.

²⁶² *J.I. Pantzeska Txaber*

Pantzeska Txaber: Xabierko San Frantzisko

²⁶³ [Eleizeak].

²⁶⁴ Jorrail: apiril.

²⁶⁵ Irasi: sortu.

²⁶⁶ Epail: marti.

²⁶⁷ [Arma].

Zer egin behar eban, ba, halako gizontxu batek han, inork laguntasunik emon barik? Deun Frantzeska ez joian hara, ez Frantziaren ez Espainiaren ez beste edozein Laterriren alde; hak ez eukan zerikusirik ludiko Laterriakaz, haren zeregina zan hango jenteari irakatsi Kristoren Goizparra; eta lan hau ondo beteteko Kristo Gure Jaunaren laguntasuna eroian.

Halantxe, berak bakar-bakarrik (ludiko laguntasuna barik esan gura dogu) 1.200.000 notin baino gehiago kistartu zituan, bere bizitza garbi-garbiaz eta bere esan apal-apalaz.

Horra zelako eredia, Goizparra²⁶⁸ irakasten ibiltzen diran askorentzat!

1552ko lotazilaren²⁶⁹ 2an hil zan. Eta irakurten dogu gauza pozgarria gu euskaldunentzat: Deun Frantzeska hil orduan, bere ingurukoak ulertzen ez eben ele edo hizketa ezezagun batez Jaungoikoari zeozer esaten eutsala; eta uste da, ele edo hizketa ezezagun hori (ezezaguna han egozanentzat) euskerea zala, Deun Frantzeska euskalduna zalako.

Doibatz edo Eleizeak 1622ko epailaren 12an Deuna dala iragarri eban. Bere gorpua Indiako Goa deritxan uri handian ei dago; eta bere beso bata Erroman Josulagunak daukien etxean.

Nafarra²⁷⁰ eta euskalduna zalako, Deun Frantzeska Xabier etxekoa dogu euskotar euskaldun guztiok, eta horregaitik, gaurko eguna ospatu behar dogu Deunaren aintzaz, egintza on bat edo bategaz, bide batez berari eskaturik izan daitela gure bitarteko Jaunaren aurrean geure beharrizanetan... ez dira, ba, beharrizanak egin-eginean, ba, txiki-txikiak eta!

Xabiertar Deun Frantzeska: arren, batu eizuz hor Donokian euskaldun Deun guztiok eta zeuen buru Deun Mikel Gongotzona²⁷¹ harturik, esaiozue Jaunari gure herri honen erruki izan dai-

²⁶⁸ [Ebanjelioa].

²⁶⁹ Lotazil: abendu.

²⁷⁰ *J.t.* napartarra.

²⁷¹ Gongotzon: goiangeru, arkanjelu.

tela, argitu deiguzala geure buru ilunok, berotu deiguzala geure bihotz hotzok, lagundu deigula geure harrokeria putzok kendu eta apal-apalak izaten, alkarregaz noiz edo noiz batutekoak izan gaitetzan...

Deunok: ea horixe lortzen dozuen, hortik Goitik etorri dakigula geure laguntasuna, bestelan euskotarren herri pitin hau haize deungeak eroan behar dau uzingera lohira eta bertan ustel-ustel egingo da.

1921-XII-3

IRLANDA ETA INGALATERRA

Erindarren²⁷² Batzordea eta Ingalaterrako Gobernuua noiz edo noiz alkar aitu dira, eta erabagi dabe zeintzuk arauen azpian herri biak alkarren lagun eta adiskide izan leitekezan.

Orain horreek hartu daben erabagia ontzat emon behar dabe alde bietako Batzar Nagusiek.

Ingalaterran uste da baietz esango dauela euren Batzar Nagusiak, Ingalaterrako izparringi gehien-gehienetatik igarten dalako, ingelesak poz-pozik jakin dabela alkar aitute hori; bake-egarri izan dirala esan leiteke; eta beraz, herririk gehienaren eretxia dan lez horixe, Batzar Nagusiak eskier ontzat emongo dau.

Erinen²⁷³ be uste izan leiteke holantxe izango dala, De Valera, Griffith eta horreek, abertzaletasunean ondo neurtuta dagozan horreek alkar aitute horretara jo dabenean jakingo eben euren aldeko gehienak be uste horretan dagozala.

Ganeko egunen baten, ba, esango deuskue *Dail Eireann* edo Eringo Batzar Nagusiak ontzat emon dauela bere ordezko Batzak Ingalaterrako Gobernuaz erabagi dauen alkar aitutea.

Batzar Nagusi horrek hori erabagi badagi, Erin edo Irlandak berberak erabagiko dau, eta erindar guztiek behartuta egongo

²⁷² [Irlandarren].

²⁷³ [Irlandan].

dira haren esana egiteko, behintzat abertzale onak badira, Erin euren aberria maite dabela egia bada.

Izango dira alkar aitute hori begi txarrakaz ikusiko dabenak, alkar aitu baino gurago leukienak Ingalaterrari gudea iragarri eta egitea, eta inork esango baleutse “zuek gura dozuena ezin izan leiteke eta zuen bidetik Erin gure aberri maitea hondatutea izango da”, hori inork esango baleutse be, Erin aberriaren ardura barik, nahiz eta Erin aberria zati-zati eginik geratu, eurena baino besterik entzungo ez leukienak.

Eta horrez ganera, jagi gurako dabenak *Dail Eireannen* aurka eta kaltez, erindarren artean anaia-guda madarikatua ipinirik.

Izango dira baten batzuk, horreetariko gogo gaiztoak beti eta alde guztietan sortzen dira eta; baina ez deutsee itxiko Erin alperrik hondatzen eta erindarrrik gehienak ez dira apur batzuen menpean jarriko, euren Batzar Nagusiak alkar aitute hori ontzat emon badagi, guk itxaropena dogun lez.

1921-XII-10

LAN HANDIA

Halantxe erindarrak eta ingelesak euren egiunea²⁷⁴ izenpetu edo firmau eben egunean egin ebena, hil honen 6an.

Arratsaldeko 3retan hasi ziran. Batzartu ziran batzorde biak, *Sinn Fein* aldekoa eta Ingalaterrako Gobernuarena. Gaueko 7ak arte ibili ziran egiune hori idazteko. Hamaika joan-etorri, atzera-aurrera erabili eben bai batzuk eta bai besteok; hamaika bider batzartu ziran alde bakotxekoak eurek euretara, ondo eta zehatz aztertuteko egiunean idazten zana.

Noiz edo noiz idatzi eben, ba, eta orduan *Sinn Fein*darrak hartu idatzi hori, eta batzartu ziran azkenengo azterkuna egiteko.

Ingelesak, hamar eta erdietarako gertu egozan, eta *Sinn Fein*-darrak agiri ez ziran lez, urduri eta estu aurkitzen ziran. Halako baten agertu ziran, ba, *Sinn Fein*ok, eta esan eben egiune haretan zeozer aurkitzen ebela euren gogoa beteten ez ebana eta beraz, ezer egingo bazan, han esakune batzuk aldatu egin beharko zirala.

Hasi ziran eztabaidan 11etan, eta gogor ekin eutsien goizaldeko ordu biak arte. Orduan *Lloyd George*k esan eutsen gertu egoala, ba, esakune hareek aldatzeko. Aldatu ebezan, eta egin zanean, *Sinn Fein*darrak esan eben euren izen-abizenak egiunearen barrenean ezarriko ebezala.

²⁷⁴ Egiune: hitzarmen.

Eta, halantxe, batzorde bietakoak izenpetu eben egiune ospetsua izango zana, herri bien bakea ekarriko dauena.

Erin edo Irlandaren aldetik izen-abizenak ipini ebezanak: Griffith, Collins, Barton, Duggan eta Duffy. Honeek, euren elez, Eringo elez, idatzi ebezan euren izen-abizenak.

Ingalaterraren aldetik izenpetu ebenak: Lloyd George, Chamberlain, Birkenhead, Worthington-Evans eta Greenwood.

Berehalaxe alkarri eskuak estutu eutsiezan irribarreka, adiskideak lez, eta alde egin eben lotarako.

Lana sendo egin eben.

1921-XII-10

SAN TOMAS ATZO

Jakina zan, atzo leku honetan esan genduan lez, Bilboko kaleetan Euskal Herria ebilen atzo, batez be Zazpi Kaleetan eta inguruetan, Plaza Zaharrean eta Plaza Barrian.

Alde guztietatik euskera ederra entzuten zan, eta ikusten ziran gure baserritarak euren zindotasunaz. Eurok ikusita geure aberria ikusten dogu; eurok dira hondino euskeraz euren gogapen guztiak darabilezanak, euskeraz bakarrik egiten dabe euren bizitza guztia, euskotar hutsak dira barrutik eta azaletik; eurok dira gure aberri Euskadiren ume garbienak.

Agur zuei, baserritar zintzooi!!

Ibilaldi bat egin genduan goizean merkatutik, eta han ikusi genduzan urte guztietako negu-madari ederrak eta hegazti gizen-duak.

Baina uste dogu beste urteetan baino karuago egoala gauzea. Hara, Plaza Barrian, Sombreteria kaletik sartu eta lastertxu ezkerretara, mahai handi bitan edo, madari asko eukan salgai baserritar batek, eta apur bat atzeratxu eukazan onenakaitik eskatzen eban... hamabi ogerleko dozenea! Ogerleko bat madari bat!

Biratxu bat egin, eta barrero hurreratu ginan hara, eta orduan jakin genduan lehengo madari berberakaitik eskatzen ebala... hamasei ogerleko! "Arraiea, gorantza joak gauzori" esanda alde egin genduan handik. Beste aldean, hegazti-gizenai edo kapoiei begira gengozala bat ikusi genduan itzela lodieran, hanken ganean be ezin zan egon, eta lodien lodiaz arnasa be nekez hartzen

eban, pikua zabalik arnasestuka egoan. “Zenbat hori?” itanduten eban, eta ... “hogeï ogerleko” erantzuten eban baserritar andreak.

Alde egin neban Plazatik, eta Begoñatik bira egin eta gero Zabalbidetik San Anton ondora jatsi nintzanean, hantxe aurkitu nebazan Abadiñoko hiru baserritar ezagunak, eta eurakaz barriketetan hasita, esaten deuste eurek ikusi dabela Plaza Barrian madari dozeneagaitik hamazortzi ogerleko eskatzen! Itandu neutsen zein lekutan eta baita neuk ikusiriko lekuan bertan. Orduan esan neban: “horretara badoa salneurriori igo eta igo arratsalderako mila pezeta eskatzeko bidean doa”. Oin, eskatzea libre da, baina ez erostea be bai.

Horregaitik, merkatuetan, “zenbat eskatu dabe?” baino hobe da “zenbat pagau dabe?” jakitea.

Baserritarrai esan neutsen:

—Zelako arpegia ipini deustue ugazabak? —, eta erantzun eusten irribarreka:

—Dirua emoten etorri eta zelakoa ipiniko euskun, ba?

—Zuek esan bazeuntsie, etxeak kanpo-horma baten arrakala handi bat daukala eta teilatuko kaperioren batzuk be zerenak janda laster jausteko moduan dagozala, eta beraz horma barria eta kaperio barriak ipini beharko dirala, orduantxe bere poz guztiak mingostuko zenduezan.

—Orduan kapaz etxetik kanpora botateko be.

—Ez horrenbeste be, horraitino. Hori be zelakoa dan ugazaba. Badira batzuk zekenak, errentak hartu bai baina lauziri ez gastau etxean ezetara be. Behar dana errenteruak egin dagiala, gura badau, eta gura ez badau doala, ez da faltako nor sartu etxean, haizea batetik bestera igaroten bajako be.

—Bai, gaur egunean nor atrebidu ezer esaten ugazaba askori?

—Horraitino, zuek hemen ugazaba daukazuenok hobeto zagoze ugazaba herrian bertan, batez be etxe ondoan, daukienak baino.

—Hori bai, ugazaba ondoan euki ezkeru, ha beti dago zain, ea zer hartzen dozun, ea zer zelan saltzen dozun, ea zer diru etxera-

tzen dozun, ea zer modutan jan eta edan egiten dozun eta zelan janzten zaran zeu eta zeure familia... ez daukazu inspektore hobarik ugazaba baino. Eta ikusten badeutsu ondotxu zagozanen antzik, berehala daukazu errentea altzauta. Ugazaba ondoan daukana josita dago. Honeek besteok, Bilbon eta urrintetan bizi diranok, batez be, herrietan administradorerik ez daukienok, geueurakaz bitarteko barik aituten garanok, honeek gehiengan onak izaten jatzuz.

—Eta administradorerik badaukie?

—Arraiea, orduan, haxe da txarrena, ugazaba ondoan eukitea baino be bai.

—Bai, hor Durango aldean egon behar dabe administradoreren batzuk zorria bera baino be txarragoak.

Honakoxe hizketakaz denporea emon genduan polito.

Atzo eguerdian Zazpi Kaleetako jatetxeetan izango zan usubiloa. Jan eta edan eta barriketan, han izango zan erlea. Horregaitik hor hamabiak inguruan, Plaza Zaharretik aldrak-aldrak urteten ziran, eta astiro-astiro sartzen ziran Somera, Artekale, Tendaria, Belostikale, eta abar kaleetan, jatetxeetako mahaietara. Lebatzak, besiguak, angulak, okela gisauak, eta abar jausiko ziran atzo, eta edan be sendo Errioxako eta Nafarroako mama gozoa.

Arraiea, zelako mutikoak helduko ziran atzo euren herrietara, kokote ertzok eta matrailok ondo gorri ebezala!

1921-XII-22

JAI GUZTIZ EDERRA

Harainegun gure *Euzkadi* honetan, Donostiako izparretan irakurri genduan pozez beterik, Oiartzunen Mendiburu Aba josulagunaren oroiz egin dan jaiaren izparra.

Bertako semea izandako Aba Mendibururen irudi bat, Irungo Etxeandia erripaileak egina, eta Oiartzungo seme argi Pikabeatar Errapel jaunak agindu eta ordaindua, larunbatean agertu eben.

Egikune honetarako joan zan Eibartik Larrañagatar Polikarpa abade bizkorra ehun eta hogeitasekuro mutikogaz guztiz polito jantzita euskotar eraz, eta Eibarko eresbatza lagun ebela.

Eurok, eta herriko nagusiak eta haretarako egozan notin guztiak, Udaletxetik urten ziran Aba Mendibururen irudia dagoan lekura, Pikabeatar Errapel enparantzara.

Irudiaren estalkia jaso eban Pikabeatar Karmele neska txikiak, Errapel jaunaren alabatxuak, eta era batera herriko neskatok guztiak uso pilo bati agindu²⁷⁵ eutsien hegaz, eta irudiari lorak jaurti eutsiezan.

Berehala, Larrañaga abadeak eta Aba josulagun batek hitz egin eben euskeraz, Aba Mendiburu ipinirik eredutzat gaurko eta biharko euskaldunentzat. Horren hurrengo hitz egin eban Mujikatar Gregoriok, honek be euskeraz, adierazorik, eusko lanen bat egin gura izan dabən askok eta askok Pikabearen atera joan beha-

²⁷⁵ Agindu: askatu, soltau.

rra izan dabela, eta behin be ez dirala atzera etorri esku hutsean, bihotz haundiko jaun hori beti aurkitzen dala gertu eusko lanai laguntzeko, eta zelan edo halan esker ona erakutsi behar jakola, eta orduko jaia zala era ona horretarako, eta hantxe guztien aurrean eta guztien izenean esker on hori aurkeztuten deutsalara, eta bera lako asko balegoz euskotasunak aurreratasun gehiago eukiko leukela.

Irudia onestu eban Zaraguetatar Jon abade jaunak.

Oiartzungo alkateak opaldu eutsan Pikabea jaunari metalezko orri bat bertan idatzita dagoala, euskeraz, zelan hango Udalak erabagi dauen Pikabea jauna ezagutzea Oiartzun herriaren seme maiteentzat.

Azkenez Pikabea jaunak, euskeraz honek be, eskini eutsan Oiartzun herriari Aba Mendibururen irudia.

Eta jaia amaitu zan Eibarko umeak abesturik euskeraz Deun Jon Ereserkia, euren eresbatzak lagunduta.

Jai ederra eta begi-begikoa euskaltzaleentzat. Dana egin zan euskeraz, Aba Mendiburu lako euskal jakintsu bati jagokon lez.

Geure zorion-agurra Oiartzun herriari, bertako agintariei, Pikabeatar Errapel jaunari, Larrañaga, eta beragaz batera hitz egin eban josulagunari, Mujikatar Gregoriori, Zaragueta jaunari, Eibarko ume koskorrai, eta han egon ziran danai.

Apur bat berandutxo emoten dogu²⁷⁶ izpar hau, baina berau emon barik ez dogu geratu gura izan.

1922-VIII-8

²⁷⁶ J.t. damogu.

EGUN BAT ATZERAGO

Harainegun larehun urte, 1522ko irailaren 6an, Elkano eta bere hamazazpi lagun gizajock Sanlucar de Barramedan agertu ziranean, gauza harrigarri bat ohartu eben: eurentzat irailaren 5garren eguna zana irailaren 6garrena zala hemen, Europan.

Eztabaida handia erabili behar izan eben; itsastarrok, irailaren 5a zala, eta enparau guztiek, ostera, irailaren 6a zala.

Itsastarrok esaten eben eurek ederto eta zehatz erabili ebela aldiaren neurria, eta eskier²⁷⁷ egozala euren ustcan. Besteak barrez erantzuten eben, alde guztietako notin, eta bazkun, eta herriek, baita Doibatz edo Eleizeak berberak be, aldiaren neurria itsastarrak baizen zehatz erabili ebela, eta ez egoala ezbairik, irailaren 6a zala.

Sorginkeria ete zan, ba? Bai, zereko sorginkeria!

Nik ez dakit orduan bertan, ala geroago, noiz gizonak atzald²⁷⁸ eben jazokun polit hau: Sartalderuntz (Elkanok eta lez) ludiari bira osoa egiten deutsanak egun bat galtzen dau, egun bat atzeratzen da, geldi egon diranen aldean; eta ostera, Eguzkialderuntz ludiari bira osoa emoten deutsanak egun bat irabazten dau, egun bat aurreratzen da geldi egon diranen aldean.

²⁷⁷ [Seguru].

²⁷⁸ Atzald^u: azald^u.

Horra horren zergaitia: badoa gizona sartalderuntz, heltzen da 15⁰ luzera²⁷⁹ daukan tokira, eta bertan eguerdia da ordubete geroago; bera urten dan lekuan eguerdiko hamabiak diranean, han eguerdi aurreko hamaikak dira; horra hor ordu baten aldea.

Hori erraz aituko dozuela uste dot, ba eguzkia gure buruen gane-ganean egoten danean, hondino ez da heldu haruntzago sartalderuntzago dagozanen buruen gane-ganera, eguzkia haren alderuntz joan doa eta.

Badoa aurrera gizona sartalderuntz, eta beste 15⁰ maila luzeran egin dauzaneko, beste ordubete atzeratu da bere eguerdia. Bera urten dan lekuan eguerdia danean, han goizeko hamarrak dira; ordu bi atzerago.

Badoa, beti-beti sartalderuntz, eta 15⁰ luzera bakoitxeko ordubete atzeratuten da, eta halan, 180⁰ luzerara heltzen danean, bera urtendako lekuan eguerdiko hamabiak diranean, han gauerdiko hamabiak dira, aurreko gauerdiko hamabiak.

Eta badoa beti sartalderuntz, eta bira osoa emon dagianean, berak urtendako lekutik 360 luzerara heldu daitenean, hogeta lau ordu atzeratuta dago; berak urtendako lekuan eguerdiko hamaikiak diranean, han be eguerdiko hamabiak baina egunbete atzeragokoak.

Horixe jazoten da eguzkiaren aldera, edo eguzkiaz bide baten joan ezkerero.

Bestetara ibili ezkerero, eguzkiaren aurka, eguzkia urteten dan alderuntz joan ezkerero, atzeratu beharrean aurreratu, orduak irabazi egiten dira.

Adibidez, orain *Eguneko* hau irakurten zagozanean zuentzako goiza da, eguerdia zuentzat ez da heldu, baina arabiarrentzat²⁸⁰ arratsaldea da, eta arratsalde berandua Indian, eta iluntzea Filipinak aldean.

²⁷⁹ [Longitud].

²⁸⁰ [Adenen eta]. Aden Yemengo hiri bat.

Beraz, Elkano eta lagunak sartalderuntz joan ziran lez, eguzkialderuntz joan balira, Sanlucar de Barramedara irailaren 7an heldu izango ziran, egun bat aurrerago.

Ez dakit ulertu ete deustazuen. Batzuk baietz uste dot; beste batzuk izango dira behin be ulertuko ez dabenak, honako gauzai ikaste gogorik ipinten ez deutseelako.

Gomutan daukagu hondino gure gaztetan ezagutu genduan gizon bat, *Txakolin* ezizena eban bat. Bere aurrean behin gazte batzuk hizketa gerabilen ludiaz, eta gutariko batek esan ebalako ludia biribila dala, *Txakolinek* barre-zantzo ikaragrri bat jaurtinda, esan euskun:

—Eta, holako gauzak be sinistu egiten dozuez, lelotzarrok. Horretarako zabilze estudietan eta zeuen gurasoak dirua gaste-tan?

Eta barriro be barre-zantzo batzuk egin euskuzan. Erruki handia euskun *Txakolinek*.

Geuk be barre algara batzuk eginda, atera geuntsazan, ba, arrazoiak edo zergaitiak ludia biribila dala argi ipinten dabenak; baina bai, hari arrazoiak emon eta ilargiari harria jaurti, haren-baten. Gomutan daukagu esan geuntsala *Txakolini* Elkanok-eta egin ebena, sartalderuntz urten eta beti ekin, eta urtendako lekura atzera etorri; ea hori ez bazan guk esaten geuntsanaren zergaiti bat, eta lehengoak baino barre-zantzo ikaragarriagoa egin eta esan euskun ohera joiala tontokeria gehiago entzun baino lehengo; eta bera gure gurasoa balitz, gure estudioak laster berak ebagiko leukezala. “Onak jauzak zuen estudiook” esanda oheratu jakun *Txakolin*.

Ha lakoak izan ezkerro alper-alperrik da ezer esatea be ludiz-tiaz (ludiarri jagokon hizti edo jakintza). Baina uste dogu ez dirala *Txakolin* lakoak gure irakurle gehienak, eta honetara, edozein hiztitzazko zeozer noiz edo behin argitaltzea, maite hartuko deuskuela.

1922-IX-8

ASTOAK HEGAZ

Ene irakurleak, sarri entzun baita, esan izango dozuez honeetarikoa: “Hori jazoko dan baino lehenago astoek hegaz egingo dabe”, “astoak hegaz ikusi daidazanean sinistuko deusut hori”, eta abar.

Ezin-ezinezko gauzatat euki dogu beti astoek hegaz egitea.

Ba, oingoxetik aurrera esakune guztiok ezerezean geratzen dira, asto batek hegaz egin dauelako.

Mister Headbrown hegazkaria bere hegaz-tramankulu ikaragarriagaz urten zan lehengo egun baten *United Statesen Illinoisko Springfield* uritik Missouriiko Jefferson urirantz, tramankuluan astakume polit bat eroiala.

Jefferson uriaren ganera heldu zanean, berak eta bere hegazlagunak, haretarako gertu eukien astotxuori bota eben tramankulutik behera.

—Asto koitaua —baten batek esango dau—, bota ebenak astoagoak.

Geldi-geldi, bota eben, baina ez edozelan, *paracaídas* bategaz baino; eta astotxua lurrera heldu zan bape mimik hartu barik.

Hondino be izango da temosoren bat esango dauena:

—Ez nau harritzen horrek, ba nik ikusi dodaz asto galantak trenean eta automobilean ibilten, dotore jantzita, diputau, konzejal, alkate, idazle, katedradun, ministro, eta abar; eta neuk ez dodaz ikusi, baina badakit horreetarikoak bape ardura barik joango litzatekezana hegaz-tramankuluan eta jatsiko litzatekezana jaustetokian tramankulutik lurrera.

Baina temoso horrerri esan behar deutsagu berak aitatu dauzanak hanka biko astoak dirala, eta guk hemen aitatu doguna lau hankako asto benetakoa dala.

Beraz, astoak hegazti egin jakuz. Ez esan, ba, "astoek hegaz egin dagienean zor hau ordainduko deusat", berbatik heldu ez deizuen.

1922-X-29

DURANGOKO ASTAKERIA

Txirgesaiztiak esan eban hemen lehengo egun baten, Durangoko bandeak txarto joten dauela. Bere eretxi bat da.

Hau irakurri, eta zer egin dau bandako artezkari eta Andra Mariko organista dan Gabiolatar Gurutzek?

Joan jako zezena lez Ertzilatar Gregorio mutil gazteari, *Txirgesaiztiagaz* zerikusirik bape ez daukanari, eta hasi jako jo gurarik eta paparrean alkondarea urratu deutso.

Eta hori, mutilak esan eutsala Gabiolari, berak ez dauela ezer idatzi bandeaz (edo bandeagaitik).

Eta ez bakarrik orduan. Handik gerotxuago, alkondarea aldaututa, mutila barriro agertu zanean, barriro Gabiola joan jakon urrinetik amorratuta lez jotera, eta mutilak zer egingo eban, ba? Gertu parau eta pautsetako²⁸¹ batzuk berak emon eutsazan Gabiolari.

Horra hor jazo zana. Horretara, itsuan, bandeaz zeinek idatzi dauen jakin barik, hurren ikusten dauenaz joten eta burrukan hastea astakeria da. Gabiola lako gizonari ondo ez jatorkona.

Mutilak esan baleutso, berbetan hasita, irainen bat gizona sututekoa, tira, aituko zan hain amorratu jartzea; baina ondo dakigu ez eutsala erantzun besterik bera ez zala baino.

²⁸¹ Pauts: papu.

Gabiolak daukazan urteetarako (50 hurrago 40 baino), eta Gabiolak Durangon daukan gizalekurako, zio edo motibo barik herria alborotetan ibiltea burrukan eta astakerietan, inork be ezin lei ontzat emon.

Hotz-hotzean Gabiolak berberak oldoztu edo pentsau dagiala, eta berak be igarriko deutso.

Gabiolari berari esan gura deutsagu, inoiz ikusten badau gure izparringi honetan berarentzako irainik, idatzi beigu esanaz: "hauxe eta hauxe ipini dozue eta hori iraina da", eta geuk atzeratuko dogu esan jakona, eta emongo jakoz behar diran atzalpenak eta ordepenak, eta burrukan eta astakerietan ibili barik, ederto konponduko gara, gizon legepeko edo zibilizauak alkarregaz konpondu behar daben lez.

Horraitino, inork esan badagi Durangoko bandea txarra dala eta eresi-atal²⁸² egoki ez diranak joten dituala, hori ez da iraina; eskubidea dauka hori esateko halan baderitxo, Gabiolak, Aureliok, Mateok, beterinarioak, *Boldrok* eta abar eskubidea daukien lez esateko guk hemen *Euzkadín* txarto idazten dogula eta gure izparringi hau txarra dala, behin baino gehiagotan esan daben lez, ez da egia ala?

Dreguerali ez deutsagu txitean-pitean esaten txarto egiten dauzala bere gobernadore-gauzak? *Norteko* Burdinbide-bazkumari be ez jako sarri esaten txarto darabilzala bere trenok? Eta honan, asko eta askori esaten jako hori, eta ez dira ibiltzen inor jotzen eta astakeriak egiten.

Hor Durangon jazorikoak halako poz barru-barruko bat geuk gura ez dogula be egin deusku (zelakoak garan gizonak!). Hara, igarri dogu hor Durangon irakurten dala hemen euskeraz argitaltzen dana, ez bakarrik abertzaleen artean, ez diranen artean be bai, bestelan ez eben jakingo *Txirgesaiztiak* idatzia.

Eta horrexek euskerea irakurten dabela geure arerioek be jakiteak poztu egin gaitu.

1922-XI-29

²⁸² [Pieza].

BEGIAK LEHOR

Bilboko Areatzan aspaldietan dagoan erki zabal ederra...

—Eup...! Geldi hor!

—Zer jazotean da? Boltxebikeak ala?

—Zer da *erki*?

—*Erki* euskeraz da erderazko *tilo*.

—Oin jarraitu eizu gura badozu.

—Zeure baimenaz. Ba, erki zabal eder hori botaten doaz, zelako tamala! Antxinatiko gauzea, danok txiki-txikitatik ezagutu doguna, eta gure gurasoak eta gure gurasoen gurasoak be ezagutu ebena. Ai, ze tamala! Ez geunke laketu behar holakorik, ez deritxazu?

—Bai, tamala da holako zugatz ederra erastea; baina eratsi beharra izango dau Uriak.

—Esan leiteke ez deutsula ardura, zugatz hori erasteak ez dakartsula minik bape zure begiak lehor agiri dirala...

—Halantxe da, nire begiak lehor aurkitzen dira zugatz bat erastea gorabehera, zugatzak baino zuztar handiagoa daben gauza asko lurra jota ikusten dodazalako eta aspaldian horregaitik egin dodazan negarrak nire begiak lehortu dituelako.

—Baina...

—Ez dot bainarik hartzen. Zu eta zu lako beste askok, zer dakarstazue zugatz bat erasten dabelako horrenbeste negar eta zizpurugaz, bape ardura barik euskerea galtzen itxi badozue? Zeu euskalduna zara, eta ez dozu hitz egiten euskeraz, ez dozu irakur-

ten euskeraz, zeure idazki txikerrenik be ez dozu idazten euskeraz, eta horregaitik aurkitzen zara euskeraz hitz egiteko neke handiaz, ordu erdi bat bera be ezin dozula jarraitu euskeraz. Eta zeure seme-alabak ez dabe euskeraren tautik aituten, Soriakoak balira lez bardin-bardin.

Euskerea, eusko-abendaren ele zaharra, ele ederra, zuztar-tsua, Areatzako zugatz hori bere ondoan ezebe ez dana, galdu dozu, eratsi dozu, bape beharrizan barik. Euskal Herriaren agerkunik urtenena ostikopetu dozu...

Eta orain horrenbeste negarregaz zatortaz zugatz baten erastea dala-ta?

Euskerea, bape beharrizan barik erasten ikusi daben begiak eta negarrez urtu diran begiak, ezin leitekez barriro negarraz busti, uriari behar dauen zabalerea emotearren zugatz bat erasten dabelako.

Gauza handiagaitik negarrik egin ez (hondino norberak lagundu botaten), eta gauza txikiagaitik izugarritzko arrantzak egin, erara ez datozen gauzak dira.

1922-XII-17

HIZKETA POLIT BAT

Atzo eguerdi aldera, jente pilo handi bat egoan ahoa zabalik begira-begira, gure izparringi honek loteriako zenbaki saridunakaz kaleko horman ipini eban kartelera.

Itxoiten egozan, ba, ea sari handidun zenbakiren bat eurek jokaturikoa ete zan. *Subtearen* begira gizajoak.

Sari nagusia eta beste handiak agertu ziranean, begiratzaile batek, arpegi haserreaz honakoxe bat esan eban:

—Joan beitez *haraxe bertara* loteria eta berau asmau ebana be!

Bere ondoko batek orduan esan eutsan:

—Beraz, ez jatzu ezer jausi.

—Bai zereko jausi! Loterian neu baino zori txarragoko gizonik ez dot uste beste bat dagoanik.

—Sarri jokatzen dozu?

—Loteria guztietan hamarren edo dezimo bat, eta behin be ez jat ezer jausten. Eta hori urteetan, gero...

—Neuri be lehenago horixe jazoten jatan, loteria guztietan jokatu arren, inoiz-inoiz hil azkeneko sari txikiren bat, sei ogerleko, jausten jatan. Baina gero, atondu naz zoritxar hori birrinduteko, eta orain urteokaz beti saria jausten jat.

—Zeure beharra pagauko jatzu eta horixe esan behar deustazu zelan egiten dozun.

—Ezer pagau edo ordaindu barik be pozik esango deustut. Hara, urte guztiko loterietan jokatu ezkeru hamarren bat bako-txean, zeure sakeletik atera behar dozuz 300 laurleko inguru.

—Halantxe da. Zelako diru-piloa, ezta?

—Ba, nik behin honantxe oldoztu neban: jokatuaz behin be ez dot saririk hartzen, jokatuko ez banen 300 laurleko inguruko saria urtero hartuko neuke ziur-ziur, saria hartzea edo ez hartzea neure eskuan dot, eta hartu daidan beti lelo egon barik. Ordutik hona ez dot jokutzen, eta jokatuko neukena aurreztu egiten dot, eta haxe da loteria guztietan jausten jatan saria. Handia ez dala? Ez, baina bai ziurra.

—Neuk be horixe egin beharko dot.

—Egizu, eta loteriagaz baino burukomin gitxiagogaz eta diru gehiagogaz biziko zara.

—Eskerrik asko eta agur.

—Agur, zoaz ondo.

Hizketa hau irakurrita, baten batek esango dau loterian ez jokatzetik ez jatorkola dirurik, eta jokatu ezker, etorri lekiola. Baina oker dago, ez jokatzetik dirua zelanbait bajatorko; ba, jokatu ezkerreko galduko leuken dirua, eskuetan gelditzen jako eta hori, etorri balitxakio lez bardin-bardin da; kontu egin dagiala jokatu dauela diru hori, eta atzera etorri jakola.

Tira, laga daiguzan karaketo honeek, gero be, salto batean aberastuteko ames gozoak egiten dabezanak, loterian jokatu dabe, argi-argi ipini arren tontokeria handi bat egiten dabela.

1922-XII-23

KAPEROTXIPI²⁸³ BILBON

Zarauztar margolari gazte Kaperotxipik Bilbora bere ertilanak ekarri ditu, hemengo jenteari erakusteko.

Eta hil honen 15etik hasita, hemengo *Eusko-Ertikarien Bazkunaren* etxean daukaz erakusgai.

Ordutik hona, Kaperotxipiren ertilanak ikusten notintza handia sartzen da egunero. Eta horretan da ezagun atsegin dirala ertilanok; bestelan, laster amaituko ziran ikusleok.

Eta ez da ikaratzeko atsegin izatea margolari gazte honen lanak, euskotasuna alde guztietatik ganezka daukielako eurok.

Zazpi margozki edo pintura agertu ditu, eta beste zazpi marrazki edo dibujo, eta danak dira gizon, emakume eta mutiko euskotar huts-hutsak, eusko-lurra eta eusko-itsasoa inguruan dabela jarriak.

Horrez ganera, ederto eta zehatz ertzak ondo garbi daukiezala marraztuta dagoz danak, eta margozkiak margoa erara eta ego-ki ezarrita.

²⁸³ Mauricio Flores Kaperotxipi (Zarautz 1901-1997). Goizetan familiak eukan negozioan lan egin ostean, margotzeari ekiten eutsan. Frantzia, Italia, Holanda eta Espainiako hainbat uritatik ibilia zan eta leku bakotxean teknikak, estiloak eta gainontzekoak ikasi zituan. Erakusketa ugari antolatzeaz gain, liburu bi argitaratu zituan Argentinan egoala: *Pintores vascos y no vascos* (1947) eta *Arte Vasco* (1954) eta beste hirugarren bat Euskal Herrian bertan: *Vida, obra y anécdotas del pintor Pablo Uranga* (1963).

Marrazki bata da *Aurrekulari* izena dauena, aguretxo alai-alai bat irribarreka eta begi bizi-biziakaz.

Margozkietan *Arrantzalearen agurra* oso da ederra, gizon bat bere emazte eta honek altzoan daukan umetxuari agur egi-ten dago, lantxara sartu baino lehen, agiri dira argi emakumearen atsekabea eta gizonaren samurtasuna bere bihotzeko zatia dan umetxuari begiratzean; han osteratxo dago lantxea, ganean gizon bat arraunaz sakatzen dabilena; han urrinago lantxak doaz itsasorantz bata bestearen atzean erreskan, euren belak zabalik.

Beste baten, *Arrantzutik etxera* deritxanaren gizonaren eta batez be mutil gaztetxuaren arpegiak guztiz ederto eginda.

Beste bat *Eskolara bidean*, mutiltxu bat basabide baten, guztizko egokia.

Eta honantxe danak izentau beharko geunkez, danak dira, ba, bata baino bestea hobeak.

Erakusketa hau izan da Kaperotxipiren barri askok hemen jakin dagian. Askok, batez be, *Euzkadi* izparringi honetako euskal idazkiak irakurten izan doguzanontzat Kaperotxipi ezaguna zan, bere herri Zarautzik *Mendi-Laurak* eta beste batzuk sarri aitatuten euskuelako; baina beste askok ez ekien bere barri, eta ointxe jakin dabe Euskadin beste margolari bat daukagula, edonon gaur bertan, bere hasieran, agertu daitekena eta leku onean geratu.

Hogeituroko mutil gaztea da Kaperotxipi, ointxe dabil Margo Ertian sartzen eta bere antzetik ziur egon geintekoz helduko dala goietara, eta denporaz diru asko irabaziaz batera, zabalduko dabela Euskadiren ospea ludiko alde guztietan, beste euskotar margolari askok lez.

Aurrera Kaperotxipi! Ekin lanean gogotik, gorantzako bideak zabal daukazuz eta!

1923-I-25

TXORIAK

Atzo goizean irakurten egon ginan ingeles izparringi irudidun bat, eta bertan hauxe jakin genduan: aurtengo jorrailaren azkene-tan agertu zala, Ingalaterrako²⁸⁴ Kent erkian euli-plaga bat, igali-zugatzetan²⁸⁵ batetik bestera inon diran hariak ipini zituanak, amaraunen antzera.

Eta itxuraz, hariez ganera, euren arrautza txiki edo hazia be itxi eben; ba, handik laster agertu zan zugatz ganetan izugarrizko har-plagea, egin-eginean igali-zugatzak lorán egozanean.

Luginak, hau ikusirik, hasi ziran har-batzen arin-arin, euren kaltea guztiz ez bazan be zelanbait behintzat gitxituteko ustez.

Eta aitatu dogun izparringi irudidunak argazkiak dakarz, euretan ikusten dirala zugatz ganetan hainbat gizon harrak batzen.

Euliak zugatzik zugatz hedaturiko harietatik, ei ebilzan harrak, zubiak izan balira lez, eta berehala zabaltzen ziran alde guztietara.

Kent erkialdeko luginok zeregin estua euki dabe harrak batzen. Eta zeregin horretan gogotik ibili ziran arren, aurtengo hartze edo kosetxea asko jatsi jake. Horregaitik, Kent aldeko luginok eurrez ei dinoe:

²⁸⁴ *J.t.* England.

²⁸⁵ [Fruta].

—Gure baratzak hondamendi bat dira. Txoriak hiltea eragozti egin behar da. Txori gehiago behar doguz, txori gehiagok, ba, koko gitxiago esan gura dau.

Horixe irakurri genduanean gogoratu jakun hementxe Bilboko egurastoki barrian edo parkean oingoxe egunetako goizetan ikusten doguna.

Badakizue egurastoki horrek zati bat daukala, ia larrosa hutsa baino ez daukana.

Ba, hantxe, larrosea baino besterik ez dagoan lekuan, goizetan agiri izaten dira txori pilo handiak, euretarik gehienak kurloi edo teilatu-txoriak; ondo ohartu ezkeror zetan dabilzan, argiro igarten da, loretara joaten diran eltxoak eta landaretan lora ondolan ibili ohi diran harrak jaten diharduela.

Oldoztu baino ez dago, halako txori piloak egunero iruntsiko dabezan mamu eta harrak zenbateraino izango diran.

Eta horrenbeste har eta mamu kenduaz zenbat mesede egiten daben.

Horrez ganera, lehengo baten be hemen esan genduan lez, txori horreek ikusi leitekez Bilboko egurastoki horretan, behin udabarria ezkeror, bedar hutsa baino ez dagoan landetan, pikuka atsedeen barik, aldi haretan lurrean sortzen diran harrak jaten.

Txori bakotzak harretan eta mamutan egunero jaten dauena jakin ahal bagendu, uste dogu harrituta geratuko gintzatekezala; txoriak, ba, gure etxeetako oiloen antzera, beti jan eta jan dihardue.

Ondo jatorku, ba, luginai eta enparau guztiei txoria ugari izatea, eta guztiok ahalegindu behar gara txorientzako maitetasuna zabaltzen; irakatsi umeei ez dagiela habiarik hartu, ez dagiela harrikadarik jaurti, ez dagiela gorrotorik izan, maite dagiezala eurek egiten deuskuezan mesedeakaitik, baita eurek diran alai eta politakaitik be.

BILBOKO JELTZALE GAZTEDIARENA

Harainegun goizeko eguzki-galdatan Zabalbide gora igon ginan pelotalekura, halako errezelo txarraz zelako partiduak ikusi behar ete genduzan, ba iragarrita egozan pelotarrietatik bata gaixorik egoala eta bestea makalik egoala irakurri genduan gure izparringi honetan.

Heldu eta geure lekuan bagengozan zabal jesarrita, adi-adi ea ezer igarten genduan, eta hor hamarrak eta laurenak inguruan urten ziran partidu bat jokatzten lau *sobaquillo*. Hau ikusita esan geuntsan geure buruari: "txapelketea hamar eta erdietan hasteko dok, honek ordu honetan urten diran ezkerro, gauzeak itxura txarra jaukak".

Baina ez. Agertu zan arin-arin Landeatar Kamil jauna hase-rreka pelotalekuko mutilari *sobaquillo* hareei ordu haretan jokatzten itxi eutselako; ekarri ebezan mahai eta jarlekuak epaika-rientzat, pitxer bete sangria jokalarientzat, eta agertu ziran Bar-turen eta Zabarte, Barakaldoko Eusko Gaztediakoak, eta Ortuellako Kantolla eta Estefaniaren ordez mutil sendokote bat.

Auska²⁸⁶ gogorra erabili eben laurak, bardintsu joanik tanteoan hamabira arte; handik aurea hartu eben Ortuellakoak eta irabazi eben, Barakaldokoak 15ean gelditurik.

²⁸⁶ [Pelea].

Partidu bizi-bizia eta eragina izan zan, ikusleak atseginez begira euki ginduzana. Laurak egon ziran ondo, Kantolla ezaguna da, bizkorra eta besatsua, eta batez be, gogotsua; bere laguna, ez dakigu bere izena, mutil sendo gogorra, ez eban hak izerdiz alkondarea busti, egoan beroaz eta erabilen zereginaz; ederto lagundu eutsan Kantollari. Barturen da aurrelari guztiz ederra, zelako joko polita daukan! Eta bizkorrean barriz sagua lakoxea da, eta guri pelotarietan gehien atsegin izaten jakuna: gogotsua, irabazteko nahi handia erakutsi eta ahalegin handian ibilten dana. Bere lagun Zabartek, pelotari fina, ederto bete eban bere lekua. Geuk uste dogu, Zabartek eta Barturenek harainegun ez ebela egin ahal izan eurek ahal daben jokoak. Ortuellakoak irabazi eutseen baina... barriro ikusi gura geunkez.

Curi, Barturen eta Zabartek atsegin haundi bat emon euskuen, alkarri euskeraz eginaz partidu guztian. Eskerrik asko zeuei, izan genduan atseginagaitik, eta hor dozue txalo bana.

Ikaratuta geratu ginan bigarren partidurako urten ziranean Txindurri eta Agirregomezkorta Ermuakoak, hemengo Zinkunegi eta Maizegaz jokatzeko.

“Hau zelan da?”, itandu genduan, eta erantzun euskuen harainegun goizean bertan urrutidatz²⁸⁷ bat bialdu eutseela ea etorri leitekezan bigarren partiduraino, eta ermuar zintzook baietz erantzun, eta hamarrak eta erdietako trenean heldu zirala. Hori xe da gizon portatzea!

Ez dakigu egia dan; batek esan euskun, Txindurri basora perretxiko bila joan zala harainegun goizean, eta bere bila joan behar izan ebela hona etorteko.

Bigarren partidua sekulakoa izan zan. Biko biek gogor ekin eutsien alkarri. Jokoa gehienez atzera egiten eben, eta atzean ezin alkarri tanturik sartu, ba atzelari biek Txindurri eta Maiz pelotari zaharrak dira eta dana ekarten eben, begi ona euki eta

²⁸⁷ [Telegrama].

behin be arrapaladan ibili ez, beti euren lekuan. Aurelari biek, Zinkunegi eta Agirre, besatsuak dira, gogor pelotea joten dabe, eta alkarri aurrealdean tantuak sartzen eutsiezan, besagain, horma-bi, bazter-zulo, eta eskumara zehar pelotea oso gogor jaurtinda. Joko handia, eta luzaro, erabili eben. Batzuk edo bestetzuk irabazi behar eben, eta ermuarrak azken aldera zori txar apur bat eukirik, Zinkunegi-Maiz bikoak partidua irabazi eban tantu gitxi-gaz.

Lehenengo partidua esan doguna dinogu honezaz be, Zinkunegi-Maizek irabazi eben baina... barrero ikusi gura geunkez.

Ikusleak poz-pezik egon ginan partidu bietan, txalo-hotsak bietan sarri eta handiak izaten zirala, eta pelotari guztientzat.

Jente handia batu zan harainegun; baina honako partiduen durundea zabaldu daitenean, hondino be gehituko da.

Eta txapelketa honen ardurea dauen batzordeari be txalo bat zor jako, eta berariazko bat euren arteko Landeatar Kamil jaunari.

Hartu beiez, ba, geure txaloak.

1923-VII-24

ELEIZALDE TAR KOLDOBIKA²⁸⁸ GORPUA EROATEA

Atzo eguerdiko hamabietarako, Iralabarriko Gaintzuri inguruak jentez ondo baltzitu ziran.

Hara heltzen ziran abertzaleak, Eleizalde maite izan ebenak eta bere heriotzeak minduta, azkenengo erruki egintza egin gura eutsienak. Baita eurez ganera, ostantzeko gizon asko, Eleizalde maite ebenak, ez abertzalea izateagaitik, gizon ona eta jakintsua izateagaitik baino.

Horregaitik, hil-etxera hurreratzen ziran, abade eta zaldun asko eta asko. Gaintzuriko atarte-aurrean ikusten zan zerraldoa; eta heltzen ziran guztiak, bere ondora joanik, "Geure Aita" bat otoiztuten eben Eleizalderen gogoaren alde.

Gorpu-eroatea eraldu zan honetara: ehundaka notinak, alde bietako erreskada luzeetan, kandela handi zuriakaz joiazan aurretik (tira, honeek baino lehenago joiazan Erruki-etxeko mutiko

²⁸⁸ Koldobika Eleizalde Breñosa (Bergara 1878-Bilbao 1923). Gizon jakituna arlo askotan: hizkuntza, politika, literatura, hezkuntza... Madrilen goi mailako ikasketak egin ostean 1899an eskuratu eban Zientzietako lizentziatura. Gaztaroan karlista amorratua, baina gero Sabino Aranaren jarraitzaile bilhurtu zan. Lan mordo bat gaztelaniaz idatzi eban arren, euskeraganako zaletasuna barrubarruan sentitzen eban eta hagaitik euskera berbizteko hamaika ahalegin egin ebazan. Eusko Ikaskuntza alkartea sortzeko orduan izugarri lagundu eban. Gauza bera esan geinke Euskaltzaindia eratzerakoan be. Egunkari eta aldizkari bazuetan idatzi eban: *Hermes*, *Euzkadi*, *La Baskonia*, *Bizkaitarra*...

aldra handi batzuk); hurrengo, kandela handi gorriakaz erreskada luze bi, lebita-mazkiluz jantzitako zaldunak; gero, hil-burdia, ederra, baina ganean zerraldoa bakar-bakarrrik eroiana, lorazko uztai barik, hildakoak berberak agindu ei eban, ba, holako puxi-kakeriarik ez ipinteko bere zerraldoaren ganean; gero, buru egiten ebela Eleizalderen seme eta ezkon-anaiak eta etxeko adiskide kutunak; eta honeen ostean, jentetza handia.

Gorpu-eroate honek Bilbo erditik joan behar eban, ea: Iralabarritik Autonomia kalea, Hurtado Ametzaga kalea, Geltoki kalea, Areatza, Euskadi kalea, Banco de España kalea, Zamudioko Atari kalea, Artekale, Plaza Zaharra eta Atxuri.

Bide luze honetan, jente guztia gelditzen zan begira, ikaraturik, eta batzuk itanduten eben:

—Aberatsen bat hil al da? —, eta erantzuten geuntsen:

—Bai, aberats handi bat hil da, baina ez diruz aberatsa, ontasunez, jakintzaz, aberri-maitasunez aberatsa baino, eta horregaitik hainbeste notin dator berari laguntzen.

Atxuri ondoan abadeak *erresponentsua* bota eben, eta sakabanutu zan jentetza handia.

Gorpua, bilbel berariazko baten ipini eta eroan eben Bermeora; eta bere atzean joan ziran lau edo bost bilbeletan, hildakoaren etxeko eta adiskide kutunak, Bermeoko hiltegiraino, lurra gorpuari emoten ikusi arteraino.

Nortzuk joan ziran hobiralgunde honetan ipini gura izatea zorakeria bat litzateke; nork gogoratu guztien izenak? Bakar-bakarrrik esango dogu ikusi genduzala Mungia, Bermeo, Gernika, Eibar, Muxika, Tolosatik, Gasteiztik etorririko abertzaleak.

Gure Enbeitatar Kepa²⁸⁹ maitea be etorri zan zintzo. Hor ipinten dogu bere olerkitxo bat, bidean etorrela atzo goizean egi-

²⁸⁹ Kepa Enbeita *Urretxindorra* (1878-1942). Muxikarra. Bizkaiko bertso-laritzari ondo mereziduko duintasuna emon cutsan. Gizon abertzalea, Sabino Aranaren jarraitzailea. Arabere gehiago, sabindarrek mitinetara eta Aberri egunetara eroaten eben hizlari moduan. Bertsoetan be abertzaletasuna, euskera, aberria, baserria, fedea eta antzeko gaiak jorratzen zituan sarritan.

na; bertan "gero arte" danok esan behar deutsagu, guk hemen egin behar dogun denporea txirikilan doa ba-ta.

Ahaleginean bete jako, ba, Eleizaldetar Koldobika maiteari, azkenengo erruki-egintza. Ederto egina, euskotarrak. Ez ahaztu behin be Eleizalde, eta bere bide aberkoitik jarraitu.

Otoitz daigun bere gogoaren aldez, eta geure tamal-agurra dagiegu bere alargun, seme-alaba, ama, anai-arreba eta ezkon anai-arrebai.

Goian bego.

1923-VII-26

GIZON HANDIAK GORALDU GOTZAIN BATEN OROIZ

Lorrenako uri ospetsu Metzen, bertako katedralean, eta lorrenatar guztien artean harpidez baturiko diruaz eginda, oroigai edo monumentu eder bat eregi da, bertan aldi atsekabetuan Gotzain izandako Dupont des Loges jaunari.

Berau zan hango Gotzain, 1871garren urtean, doixtarrak gudaz hara sarturik euren legeen azpian ipini ebenean.

Gaur doixtarrak zeresanik asko daukie Ruhren hau, eta hori, eta bestea egiten deutseela-ta; baina eurek, aldi haretan, Alsazia eta Lorrena harrapau ebezanean, ez eutseen lorik egiten ixten be, hango biztanle abertzaleei.

Eta orduantxe, Dupont des Loges, Metz uriko Gotzaina izan zan bertan, Belgikan geroago Mercier Kardenala izan dan antzera, bere azpikoen eta bai ostantzeko guztien aita eta aldeztaillea²⁹⁰, gizajoen aldez arpegia emonik gogorkerien aurka, ezeren bildur bagarik, eta Gotzain bati jagokon era onez.

Lorrenatarrak ahaldun edo diputadu be hautu eben Reichstag Doitxerriko Lege-batzarrerako, eta han Gobernuari eta ahaldun doixtar guztiei gogor egiten eutseen, gaitzetsirik Alsazian eta Lorrenan bertako biztanleentzako erabilezan okerreriakaitik. Ez

²⁹⁰ Aldeztaille: aldeko, defendatzaile.

zan ezegaitik ixiltzen, argi eta garbi hitz egiten eban. Gertu egoan egiaren aldez espetxerako nahiz edozertarako.

Horregaitik, Gotzain handi hori bera zan Lorrenako biztanle gizajoen adiskidea eta aita, beragana joten eben aldezkuntzea behar eben danak, baita kristinauak ez ziranak be. Guztien aita zan, katolikoena eta enparauena.

Doitxerriko politikoak, Bismark izango zan ausaz, gizon hau zelanbait biguntzeko, asmau eben berari emotea kurtze bat, Prusiako Burestunarena; eta bera eskintzen joan jakozanean, Dupont jaunak erantzun eutsan, bere sotana ubelaren azpian eukan zinta bat, Frantziako *Legion d'honneur*ena, erakutsirik eta esanik: "Hau daukat, eta hau dagoan lekuan ezin egon leiteke beste hori".

Honako gauzakaitik ospe handia hartu eban jaun honek, eta Lorrena guztian danak maite eben, benetako gizon bihoztua zalako.

Eta orain, euren aberria barrero Doitxerriatik aske ikusi dabe-nean, lorrenatarrak asmau dabe, eta egin be bai, gizon hain azkarrari oroigai bat jasotea Metzeko katedralean.

Ondo dago, holantxe goraldtu behar dira gizon handiak, batez be bihotzez handiak diranak, maitasunaren suak eraginda txikien aldez, ostikopetuen aldez, indartsuari aurrera urteten jakozanak ezeren bildur barik.

1923-VIII-19

PELOTA TXAPELKETA BILBOKO JELTZALE GAZTEDIARENA

Notintza handia batu zan harainegun Zabalbideko pelotalekuan. Gure kirol ederrerrako zaletasuna ez da gitxitzen euskotarren artean. Eta hor ez dago *trabesik*, kirol hutsagaitik doa jentea. Eta izan be..., badago, gero, berau baino kirol hobarik? Ez, gu euskotarrentzako behintzat!

Harainegungo lehenengo partidua, Kantolla-Estefania alde batetik, eta Otxandiano-Clemente bestetik, sekulako gogorra eta tematua hasi zan.

Lehenengo tantu hareek ez eukien amairik, Otxandianori ez eutsien sartzen ixten gehienetan bere aurkariak, batzuetan bere lagunak; eta holan, Kantolla-Estefaniak jokoa Clementeri botaten eutsien.

Honek, gogorra da eta, ederto erantzuten eban; baina gogorra izan arren, Kantolla-Estefania lako biri aurre emotea gauza larria da; eta, hagaitik, Clemente laster ahuldu, eta gero partidua arin urtu zan, ortuellarrak 22ra heldu ziranean *Ciclistakoak* 11n egozala.

Kantolla eta Estefania beti lez egon ziran; pelotari honeexek dira beti bardin, eta ondo jokutzen ikusten doguzanak. Erne-erne dagoz beti, eta begia ez eze hankak be oso bizkorrak daukiez.

Harainegun Kantollak pelota bi harrapau ebazan, sinistu ezinekoak, bata horma bietarakoa eta bestea eskumara itxi bat. Ikusle guztiak, baita jokalaria aurkariak be, tantutzat emon gen-

duzan pelota bi hareek ikusi orduko; baina Kantollak, guztion harrigarri, biak harrapau, eta gogor harrapau be.

Estefania, ostera, gauza seguruagorik ez leiteke ikusi; berak ez dauka beso handirik, baina beso handia daukienai aurre-emo-ten deutse eta erabili egiten ditu, pelotari gogotsua eta burutsua dalako. Hamar kilo gehiago baleukaz, ikustekoa izango litzateke horixe mutilori, ointxe be bada eta. Geure txaloak ortuellarrai!

Clementek oker egiten eban, pelota handi eta bizienaz jokatu gura izateaz. Otxandianok ez eban gura ha pelotea, eta zuzen ego-an.

Ba, ha pelotea gorabehera ortuellarrak ondo jokatzen eben, eta joko guztia Clementeri berari botaten eutsien, Otxandiano kendurik; eta hori eurentzako ondo etorren.

Otxandianok gura eban lez, pelota hiltxuagoaz atera balebe eurei jagokenean, jokoan sartuko zan, eta partidua tematuagoa izango zan.

Pelotan egiteko besoa, eta hankak, eta begia beste da burua; gogor jotea bakarrik ez da nahikoa.

Bigarren partidurako iragarrita egozan Txindurri-Agirrego-mezhorta eta Ledesma-Irigoien.

Baina Ledesmak ekarri eban lagun, ez Irigoien, beste mutil kankailu bat baino. Berau nor zan itandu genduan partidua azkenean, eta esan euskuen Bilbo abizendun bat dala, Gallartakoa edo alde horretakoa.

Mutil kankailu hau lehenengo tantutik hasi zan joko ederra egiten. Pelotari ona da: jote bizia eta indartsua dauka, atera luzea eta txarra (aurkariarentzat), ezker ona, eta bizkortasuna. Hau lako lagunik ez dau Ledesmak euki, ez hurrik emoteko be, ez igaz eta ez aurtan.

Mutil honek atereaz hainbat tantu egin ebazan, eta honegaz eta berak egindako sarrera itzelagaz, Txindurri eta Agirre zeozer ikaratu ziran; eta danok uste genduan txirikila baten joiala parti-dua. Baina ez, Txindurrik eta Agirrek polito jokatzen eben behin atereari erantzun ezker; behin pelotaka hasi ezker, ez egoan

hainbeste alde. Batez be azkenengo tantuak, Txindurri aurrelari jarri zanean, oso politak izan ziran.

Hogeta birako hamaseian gelditu ziran Txindurri eta Agirregomezkorta. Ahalegina ederto egin eben biek. Aterez ebagi ebezan. Hurrengoan topaizue hor nonbaiten ateralari gogor-gogor bat, eta haxe ekarri zeuen batzokikoa izan ez arren, beste batzuk be horixe egiten joek eta.

Ledesmari ipini deutsien lagun horregaz, txapelketa honek azken barria edo uste ez zana euki lei. Orain arte, uste genduan danok txapela egoala Kantolla-Estefania eta Zinkunegi-Maizen artean: baina honeek ukabilak gogortu beharko ditue Ledesma-Bilbori irabazteko.

Hemendik aurrera ikusgura handia sortuko da, eta orain artean jente asko joaten izan bada Zabalbideko pelotalekura, hemendik aurrera betekada galantak izango dira.

Eta zorioneko egongo dira Jeltzale Gaztediak izentauta daukazan batzordekoak, batez be Landeatar Kamil jauna.

1923-IX-4

LURRIKAREA, SUA ETA URA

Japonian lehengo larunbat arratsaldean, lurrak ikara handiak egin zituan, birritan, eta bakoitzean luzaro.

Lehenengo izparrak dinoe Yokohama deritxan uri handia (400.000 biztanle baino gehiago) dana triminduta geratu dala; baita Tokio, Japoniako uri nagusian be etxe-apurtze hondagarriak izan dirala.

Laterriko beste urietako izparrik ez egoan atzo, baina izparringi hau urten orduko izan leiteke jakitea hareetan be izan izango dala zeozer.

Uri bi hareetan, etxe-apurtzearen hurrengo sua sortu da alde askotatik eta zabaldu da arin; eta sutan heriotzea aurkitu dabe lurrikaratik bizirik urten ziran askok.

Eta hau gitxi dala, portu aldeko txanela eta ostantzeko ontzi txikietara izugarrizko jentea batzartu zan lurrikaratik igesi egiteko.

Baina itxuraz, itsaso zabalean be, lurrak euki behar izan zituan gorabehera handiak, eta sortu ziran bertan olatu handi izugarriak, eta eurak itsasertzera heldu ziranean, ontzi txiki guztiok eroan zituan lurrerantza eta jo, eta apurtu, eta uraz batera itzulkatu eta nahastean erabili zituan.

Eta halan, lurrikaratik eta sutatik igesi ahal izan eben askok eta askok be, urian sartu zan uriolan heriotzea aurkitu eben. Nora igesi egin? Ez eukien beste biderik, ahal izan ezkeru, hegaz alde egitea baino.

Honelako triminketak²⁹¹ sarritxu izaten dira Japonia alde haretan, ha lurra sumenditsua dalako.

Ugarateak, handiak eta txikiak, Japonia eralduten dabe; eta ugarte horreetan gehienetan sumendiak dagoz, batzuk ixeturik eta besteak itzalita. Baina jakina da, hilda lez dagozan sumendiak be batzuetan ustez uste barik ixetu eta sua botaten hasten dirala. Jakina da sumendiak dagozan lurraldeetan beti ugari izaten dirala lurrikarak.

Japonian, horregaitik, etxeak apalak eta egurrezkoak egiten ditue lurrikareak bota ez daizan, harrizkoak eta adreiluzkoak eta goiera handikoak bota ohi dauzan baizen erraz.

Baina halan eta guzti be, oingo lurrikarea itzela izan dalako ez deustie balio izan etxe apalak eta arinak eukitea.

Beste aldetik, egurrezko etxeok, sua sortu ezkerok, txirilorak eta lastoa lez erreten dira behingo baten.

Japoniatik Amerika alderantz itsaspean dagozan urrutidatz-sokak hausi egin dira, eta ez dau izparbiderik Japoniatik Amerikara.

Lehenengo izparrak itzelak dira, baina uste dogu dana argiro jakiten danean, ikaragarria izango dala.

1923-IX-4

²⁹¹ Triminketa: triskantza, hondatze.

DEUN IÑAKIREN MIRARI BATZUK

Azpeitiko mutiko bat gaixorik egoan urte askotan, ohetik jagi ezin zala; ganera, mutua eta gorra zan, eta elbarritua. Bere ama, guztiz atsekabetua, Deun Iñakiren Etxe Deunera heldu zan eta altara nagusiaren aurrean argi bat ipini eban, Deunari eskaturik, bere semea osatzen bazan, bere semeagaz batera bederatziiurren bat egiten etorriko jakola. Hauxe eginda etxeratu zanean, semea osatuta aurkitu eban: lehen mutua zana mihin askatua ebala, gorra zana entzumenagaz, elbarritua bizkorturik.

Amak agindu ebana bete eban; bederatziiurren osoan ibili ziran ama-semeak Deun Iñaki egunaren ostean. Mirari hau 1714garren urtean jazo zan.

Orain hemen esango dogun miraria hurrengo urtean izan zan.

Domingo Iriondo, hogeta hamaika urtekoa, Azkoitiko semea, 1715garren urtean (miraria egin zanean) Mutrikun bizi zana, ohetik jagi ezinda gaixorik aurkitzen zan, umoreak²⁹² deitzen jaken gatzak jota. Aita Deun Iñakiri eskini eutsan oinez joango zala bere Etxe Deunera, osatzen baeban. Ordu haretan bertan bere izter indarbakoak sendotu jakozan; eta ortozik, agindu eta eskini eban lez, joan zan Mutrikutik Loiolara mendiz mendi, eta autortu eta jaunartu ondoren, zinez edo juramentuz agertu eban jazo jakona.

²⁹² Umore: erreuma.

Azpeitian bizi zan mutil bat, Nikolas Prandain deitzen zana, eta belaun bietako hazurrak lokatu eta euren tokietatik urtenda eukazana. Loiolako Etxera igoten zanean, eskilarako alboari eskuakaz oratu behar izaten eutsan.

Eleizmutil batek esan eutsan behin, Etxe Deuneko lanparako orioagaz igurtziteko belaunak, Deun Iñakiri eskaria eginaz batera.

Etxera orioa eroan eta sarri igurtziten ebazan belaunak. Gau baten min handi batzuk iratzartu eben gaztea, eta bat-batera osatu jakozan bernak. Eskerrak emoteko, bederatziurren bi egin eutsazan Deun Iñakiri gazte honek.

Tolosako zaldun baten etxeko morroi batek, osagile askogaz alperrik ibili eta gero, hanka bata eukan ahuldua eta makala, beragaz pausu batzuk egiten be asko nekatzen zala.

Loiolara joateko eskintza bat egin eban, eta ugazabari agertu eutsan. Honek zaldi bat emon gura izan eutsan, oinez ezin ibili izango zala uste ebalako.

Baina morroiak geldi-geldi eta nekez hasi eban Loiolarako bidaldia. Tolosatik zenbat urrinago eta Loiolatik zenbat hurrago, hainbat indar gehiagogaz aurreratzen zan. Mendi tontor batetik Loiolako Etxea ikusi ebanean, belaunikaturik gogoz eskatu eutsan osasuna, behar baeban; eta ordutik aurrera beste edozein baizen bizkor eta zoli heldu ahal izan zan Loiolara.

Mirari honeek beste edozein jazokunek aina sinisgarri daukie euren alde. Ikusi ebezanak bizi zirala ipini ebezan idatzita liburuan, eta handik laster Erromara berehala bialdu ebezan.

1926-VII-31

TXOLEN

Deun Iñaki egunean Urkiolako aldatsean izan dan bilbelen arineketarako gertukizunak egiten ibiltzen ziran aurreragoko egunetan hainbat bilbel, hor arratsalde berandutxuan.

Mañariko jente asko, batez be mutikoak, bidertzetan batzuk, eta goiuneetan beste batzuk, egoten izan dira begira arineketaiei.

Honako arratsalde baten, bilbel gorri-gorri batek, *taparrapi-purpar* zarratua egin ondoren, *pun!* tiro handi bat bota, eta hasi zan tximistea lez aldatsa gora Urkiolaruntz, eta orduan mutil gaztetxu batek esan eban:

—Horra hor *Txolen txiki*, horixe da *Txolen txiki*.

Hau entzun ebenak barre algaraka hasi ziran. Itandu neban zer zan *Txolen* hori, eta esan eusten *deabrua* zala. Nik neure bizitza guztian ez dot besterik gomuta *deabrua*, *demoninoa*, *dengainoa*, *alde txarrekoa*, *beste mutikoa*, *Txerren* baino, eta esan neutsen hori hitz edo gauza barriren bat izango zala, eta erantzun eusten ezetz, *Txolen* hitza antxinakoa zala herrian.

Beti ikasten.

Beraz, Mañarian antxinatik esaten izan dabe, nik ez dot jakin baina, edo ahaztuta euki dot *Txolen* gogo hutsa gaiztoa izentetako.

Hitz hau opaltzen deusat Azkuetar Berbiz Mirena²⁹³ jaupari jaunari Euskaltzaindiaren hiztegi barrirako.

1926-VIII-5

²⁹³ Azkuetar Berbiz Mirena: Resurrección María de Azkue.

“HOR KONPON” BERREHUN DUKAT

Izan leiteke gure irakurleren batzuk ez jakitea zer dan *dukat*. Hitz hori erderatikoa da, erderazko *ducadotik*, gure baserritarren ezpanetan *dukat* egin dana. Hamaika erreali emoten jako izen hori. Hamaika errealeko diru bat balego lez, dukatetan zenbatzen dira gaur be ezkonsariak²⁹⁴, eta lehenago etxeen eta lurren salneurriak²⁹⁵. Mila dukat hamaika mila erreal. Berrehun dukat, bi mila eta berrehun erreal dira, edo ehun eta hamar ogerleko.

Behin, ba, Elorrion bertako semea dan adiskide maite bategaz barriketan niharduala, ez dakit orain zeri zala, urten jatan *hor konpon* esakune hain ezaguna. Eta nire adiskideak barreka esan eustan:

—*Hor konpon* dinozu? *Hor konponek*, gero, karu urten lekio.

—Bai, ezta?

—Hemen, Elorrion, *Pitxarri* behintzat karu urten eutsan *hor konpon* esatea.

—Zelan izan zan hori?

Orduan, nire adiskideak elestu²⁹⁶ eustan, karlisten azkenengo gudatean Elorrion *Pitxar* ezizena eban gizon bat bizi zala; egun baten heldu zala baltzen aldeko tropea, eta ofizial batek *Pitxarri*

²⁹⁴ [Doteak].

²⁹⁵ [Prezioak].

²⁹⁶ [Kontau].

itandu batzuk egin eutsazala, eta sorbaldak jaso eta ezer ez ekiala erantzun eutsanean, *hor konpon* esan ebala irribarretxu bategaz.

Ofizialeak *hor konpon* horixe guztiz txartzat hartu eutsan, haserratu zan, eta Pitxar espe²⁹⁷ eroan eban bere nagusiagana, eta honek, berrehun dukat multa ezarri eutsan erantzun haregaitik, eta behingoan ordaintzeko agindu garratzagaz. Eta ordaindu egin behar Pitxarrek, edo bere katanarrutik, edo besteren bati eskatu eta zorpean geratuta.

Eta ordutik hona dala zabal Elorrion esakune hau:

—*Hor konponek* karu urten lekio, gero, aldi bateko Pitxarri lez.

1926-IX-19

²⁹⁷ [Preso].

ELEIZEAK ZER EGITEN DAU?

Herri txiki baten hogeta bi urteko emakume bat alargun gelditu zan ume samur bategaz, mutila bera. Emakumea txiroa zan, behartsua, erropa-garbitzen bere bizimodua ateraten ebana.

Bere mutikoa herriko eskolara hasi zanean, maisua harrituta itxi eban bere buru argiaz. Jakiteko egarri handia erakusten eban²⁹⁸, eta berba-erdi bategaz behingoan ulertzen esan gura jakona. Horregaitik, arin ikasi ebazan maisuak emon eikiozan irakaspenak.

Hain buruargia ikusita, maisuak emakume alargunari esan eutsan inondik ahal baeban mutil hareri karreraren bat emon behar eutsala, denporaz gizon handia izateko modukoa etorrelata. Ganeratu eban maisuak, abadeak eta berak alkarregaz hitz egin ebela arazo harezaz, baekiela txiroak zirala ama-semeak, eta horregaitik gertu egozala egunean pezeta bana emoteko hain adimentsua zan haxe mutila aurrera aterateko.

Alargunak, hori entzunda, esan eban gabez be lan eginda aterako ebala pezeta bien ganetik behar zana bere seme laztanari laguntzeko. Eta halantxe, emakume gaixoa, egun osoan eta gau zati handi baten lana sendo eginaz, eta behar-beharrekoa baka-rrik jan eta jantziaz bizi izanik, eta urte askotan holantxe bajoian semea bere ikaskuntzetan aurrera, beti aurrenengo zala bere lagun-
nen artean.

²⁹⁸ *J.I.* erakusan.

Amaitu eban karrera ospe handiaz, eta gerotxuago, zeinek gchiago jakin ekitaldiz, leku goi-gorengo bat irabazi eban. Entzute handidun gizona egin zan. Alde guztietan bera aitatu ezkeru, bere goralpena baino besterik ez zan entzuten.

Ez dago oldoztu baino zelako poza eukiko eban bere amak. Heldu zan berarentzako zabal bizi izateko aldia, seme kutunagaz batera.

Ezkondu zan berau handiki arteko neska harroputz bategaz, eta ordutik aurrerantza ama ez zan izan ondo ikusia etxe haretan. Berbetan eta konprimentuetan txiroa izanekoa zala erakusten ebanaren atxakiaz, alde eragin eutsien jentea hartzeko geletatik lehenengo, eta gero jantokiko mahaitik, sukaldean otseinakaz jaten eta bizi izaten ipinita. Otseinak be, ugazaba-etxeakoandreari ikasita, ia atsotuta egoan alargun koitauari ezikusi asko egiten eutsiezan. Etxean inork ez eban aintzat hartzen.

Behin, ugazabaren adiskide batek ohartu eban zelan eukien etxe haretan ama zaharra eta semeari agiraka garratza egin eutsan. Ordutik aurrera ama askoz txarrago hartzen eben; ordura arte, behintzat, ezikusi handiak egin arren ez eben haserreka erabiltzen, baina ordutik aurrera danak erremuskadea²⁹⁹.

Egun baten, ba, koitaua, bihotza mingostuta, urten zan kale-
ra etxe haretatik sekulako, eta joan zan agureak eta atsoak zain-
tzen dituen monjakana, Txiroen Arrebatxuak izena dabenakana; han hartu eben maitero, eta han emon zituan bere azkenengo urteak.

Behin joan zan idazle ospetsu bat Txiroen Arrebatxoen agure-
atso etxea ikusten, eta etxea erakusten ebilkion monjeak esan eu-
tsan idazleari:

—Ikusten dau berorrek han leiho ondoan kristaletik kalera
begira jesarrita dagoan atsotxo garbia? Urlia jaunaren ama da.

²⁹⁹ *J.t.* arramuskada.

Erremuskada: burrufada, urruma.

Idazle ospetsua harrituta gelditu zan hori entzunik; ezin eban sinistu Urlia jauna lako gizon ondo eukitsuaren eta, batez be, haren on-entzutea eukanaren ama Txiro-etxe baten egon eitekcanik, eta horregaitik atsoagana artez-artez joan eta beragaz berbeltaldi luzea euki eban, bere zoritxarraren zertzelada guztiak zehatz jakin zituala.

Jazokun hau Pildain kanonigo jaunak esan eban ointsu Bilboko Deun Jagoba eleizan egindako hitzaldi baten. Jazorikoa dala; eta generatu eban horren antzeko asko eta asko ikusten dala. Guraso koitauak hainbeste neke, lan, ardura eta buruhauste hartzen dabela seme-alabak hazten eta eurai irakatsiak emon eta bizibidean ipinteko, eta zahartzaroan gurasook makalik aurkitzen diranean, seme-alabak ezin ditue ikusi, ez dabez maite; eta orduan, agure eta atsoak inoren laguntasun barik dagozanean, Eleiza Ama Deunak hartzen ditu, ba Txiroen Arrebatxuak eta euren antzera beste monja onegile guztiak, Eleizeak ipiniak dira, Eleizearen barruan eta berak indarra emonda sortu diralako monja horreen Batzak.

Eta hortik ateraten eban Pildain jaunak erantzuna Eleizearen aurka itandu hau egiten dabenai:

—Eleizeak zer egiten dau, ba?

—Eleizeak —esaten eban— aterpea, jana, ohea, garbitasuna, emoten deutzaz inork ikusi gura ez dauen agure nahiz atsoari, euren seme-alabak bertan behera ixten dituenai.

Aita zaharra, edo ama zaharra, Txiro-etxean daukanaren batek baino gehiagok, hor gorago edestu dogun jazokuneko Urlia jaunak beharbada, itanduko dabe: “Eleizeak zer egiten dau, ba?”.

Eta ez dakie, inoiz aurkituko diran ala ez non sartu ez daukiela, inork ikusi gura ez dituala, eta eurak orain aurka egiten deutsien Eleiza horrek berberak hartuko dituan bere Txiro-etxe baten, bertan emonik aterpea, jana eta ohea gorputzarentzat eta Jainko-maitasuna arimarentzat.

HAINBESTE SAGU?

Ingalaterrako izparringi ben batetik hartzen dogu izpar hau.

Kalifornian, Kern County herrialdean zelai handi apal bat dago, 120 aneurkin laukitu³⁰⁰ inguru zabaleran dituana. Bertan lehenago udoi edo aintzira bat zan; baina gaur dana dago beteta sasiz, bedarrez eta... saguz.

Ikaragarriro ugaritu ei da sagua zelai haretan, nork zenbatu han dagozan miloiak eta miloiak? Oin zuridun baso-saguak dira, arratoiaren erdi inguruko handierakoak, eta arratoia bera baino be jatunagoak.

Ba, zergaitik zan inork ez dakiala orain bi hilabete inguru, zelai haretako saguteria guztia joaten hasi zan handik, danak batu-batu eginda, lurgana estalduten ebela.

Ibili ebilzan artean agiri zan guztia jaten eben, basetxerik aurkitzen ebenean sartu eta dana jan: gari, lasto, jantzi, zaku, ugel, soka...

Luginek lubagi³⁰¹ luze handiak egiten cutseezan, eta bertan benenoa³⁰² ipini. Honetara milaka sagu galtzen ziran; baina atzean etozan gehiago, gehiago eta gehiago, ezin zenbatu ahala, eta hareek lubagietatik aurrera egiten eben.

³⁰⁰ [Kilómetro cuadrado].

³⁰¹ [Zanga].

³⁰² *J.L.* bereno.

Miruak, arranoak, gabiloiak, mozoloak, eta honeetariko hegazti harrapariak, aldra handiak ebilzan hegaz saguteriaren ganean zenbat gura sagu hiltzen; alperrik, eurek egiten ebezan hutsuneak bertatixik beteten ziran atzetik amai barik etozanakaz. Zer zan ha!

Urietan batu ebezan katu asko, eurakaz joteko batailoia³⁰³ eginaz, eta bota eutseezan saguai aurrera; baina, han etorren saguzko uriolea ikusita, katuak, bildurtuta, buztanak erakutsi eutseezan, igesi egin eben purrustada baten lepoko uleak be astinduta.

Azkenean, hango lugin gizajoak Agintariai laguntza eskatu deutsee, eta honeek bialdu dabe Mr. S. E. Piper deritxan gizon aitu bat piztiak eta kokoak hiltzen eta berau, bere menpeko hainbat lagunegaz, hasi da saguai guda egiten benenoakaz, eta agindu dau hilabetea saguen izurri hori garbituko dauela.

Goseak eragingo deutse saguoi holan hil nahiz bizi itsu-itsuan joateko, ez dago, ba, gosea baino akulu hobarik.

Edozelan be, sagu gehiegi badirudi. Amerika eta Europa bitarteko itsasoa, betaurrekoetako leiar tilistantzekoa (erdian lodi, ertzetan mehe) dirudi, berean zehar³⁰⁴ gauzak diran baino handiago ikusten dirala.

1927-II-2

³⁰³ [Batallón de choque].

³⁰⁴ *J.l.* beraren zehar.

EZ EI DAGO ZERGAITIK BILDURTU

Datorren bagilaren 26an Pons-Winnecke deritxan buztan-izarra hurreratuko jako gure ludiari, inoiz buztan-izarrik hurreratu jakon baino gehiago.

Holantxe iragarri dau, behintzat, Britaniar Izarlari Bazkuna-ko Buztan-izar Atalaren Artekari Crommelin jaunak (*mister Crommelin, the Director of the Comet Section of the British Astronomical Association*).

Izpargin batek hitz egin dau Crommelin jaunagaz buztan-izar horren etorrereaz, eta honek esan deutso idazki askotxo hartu dauzala itanduten ea arriskurik ete dagoan ludiko biztanleentzat buztan-izarra auzoratzetik; idazki batzuk oso esturadunak, kirio³⁰⁵ bizi-bizidun atso eta agureren batzuk bialduta.

Baina Crommelinek dino ez dagoala arriskurik. Berak dino, buztan-izar hau ointsuengo etorri zanean bildur handia zabaldu zala, norbaitek esan ebalako izarrek bere buztanean eukan laspel³⁰⁶ benenodunak ludiari ikutzen baecutsan, hemengo bizimena oso-osorik kenduko ebala.

1861garren urtean eta 1910garrenean be ludia igaro zan horrelako izarren buztanean zehar, eta inork igarri be ez; eta orduan lez jazoko da orain be.

³⁰⁵ [Nerbio].

³⁰⁶ [Gas].

—Buztan horretan badago egon laspel bat, ikatz-monoxido deritxana, benenoa; baina guztiz gitxi dago, eta ez da zetan bildurtu —esan dau Crommelinek.

Urrutikuskin edo teleskopioagaz ikusiko ei da Pons-Winnecke buztan-izar hau maiatzetik gehiago, eta bagilaren 26 eta 27an begi hutsez ikusiko ei da.

Honeetariko buztan-izarrak, eguzki-ingurua arin, aldi laburrean, igaroten dabenak, ez dabe buztan luzerik eukiten; batzuetan bapez.

Zeruan buztan-izarra agertu ezkeru, esaten da gudak, eta izurriak, eta goseteak, eta guztitariko gatzak datozala berehala. Zergaitia itandu eizue, eta inork ez daki zergaitirik. Halantxe jazoten dala eta... kitu! Tira ba.

Lehengo egun baten, *Artibaik* Gasteizko oilarraren kukurru-kua esan euskunean, hemen Bilbon bizi dan zamudioztar bategaz gengozala, beronek esan eban bere herrian, oilarrak ezorduan abestu ezkeru, auzoan baten bat hilgo dala iragarten dauela sinisten dabela.

Guk ezin genduan igarri lehenengoan zer hartu-emon egon leiteken oilarraren ezorduko kukurrukuaren eta auzoko norbaiten heriotzearen artean.

Baina gero igarri genduan argiro, zamudioztar³⁰⁷ adiskideak esan ebanean: “Gau lehenean edo oilarrak abestuten badau, ikarra txarra eragiten dau, eta biharamonean oilar hori kentzen dabe”.

Bai ba, hil eta kazuelara. Iragarten dau, bai, oilarrak bere ezorduko kukurrukuagaz auzoan baten batek azkenak egin behar dauzala!

1927-III-18

³⁰⁷ *J.t.* zamudioar.

ERKIZIATAR DOMINGO AGURGARRIA

Gure irakurle askotxok itanduko deusku:

—Nor da? —eta guk, apalik, erantzungo deutsegu:

—Geuk be oraintsu arte ez genkian, eta jakin dogu, ointxe bere herritarrak iragarri dabelako. Horra ba, guk dakiguna.

Erkiziatar Domingo, Errezilen, Gipuzkoan jaio zan 1589garren urtean, orain 338 urte. Donostian, hamabost urte zituala, hartu eban domekatar lekaideen jantzia, Berriotxoatar Balendin Zoriondunak geroago hartuko ebana.

Geroago Manilara joan zan, eta bertan Jakintza³⁰⁸ irakaslaria izan zan. Honetan, eta hitzaldiak egiten, ospe handia irabazi eban, adimen bizi-bizi eta argia ebalako.

Baina adimen argiagaz batera bihotza eban sutsua, eta bere gogo guztia zan sinisbakoen artera joatea hareei Jesukristoren barri emoteko, eta eskatuaren eskatuaz jadetsi eban baimena Japoniara joateko, eta poz-pezik joan be bai, 1623garren urtean, 34 ebazala.

Hamar urtean bizi izan zan Japonian, unetxo baten be gelditu barik lancan Jesukristoren bide-bidetik hango biztanleei gorako bideak erakusten. Bera izan zan hango domekatarren buru, eta ostantzeko misiolari guztien Aita; bera zan eraginena, eta horre-

³⁰⁸ [Filosofía].

gaitik Jesukristoren hango arerio amorratuak bera harrapau gura eben, eta luzaroan bila ibili jakozan.

Noiz edo noiz, eskua ezarri eutsien, eta hain balio handiko gizona zalako, eurakanatu gura izan eben, eta Jesukristo ixtearren eskini eutsien diru pilo handia eta Japoniako bakaldunaren adiskidetasuna.

Erkiziatar Domingok ezetz, ez daukala berak Jesukristo ixteko. Orduan, amorruez, oinazea edo min ikaragarriak agindu eutsiezan, eta Erkiziatar Domingok erakutsi ez bildurrik horregaitik be.

Erail eben honetara: lurrean zulo bat egin, gizonen gorputza-ren handiera, eta hantxe sartu eben buruz behera garriraino³⁰⁹, eta gero zuloa lurraz estaldu. Hantxe ito zan, heriotza ikaragarria hartuta. Hori jazo zan 1633ko dagonilaren 19an. Gero, zinoparen³¹⁰ gorpua erre eta kiskaldu eben, eta hauts guztiak batu eta itsasora bota ebezan.

Gizaguren³¹¹ bikaina Erkiziatar Domingo, Errezilgo semea!

1927-VII-8

³⁰⁹ *J.t.* gerriraino

³¹⁰ [Martiri].

³¹¹ [Héroé].

GURE ITSASGIZON GURENAK

Kosme Ibarluzea eta Etxebarria Bermeon jaio zan 1885garren urteko irailaren 27an. Bere gurasoak be, Kuireka eta Jasone, bermeotarrak ziran. Kosme zan bosgarren umea.

Hamabi urtegaz hasi zan itsasora, bere aitak patroia lez erabilen potinean. Hemeretzi urte zituanean atunetako txalupa baten patroï ipini eben. Orduantxe, egun baten aurkitzen ziran txalupa batzuk, alkarren lagun zirala, atunetan, portutik 40 mila urrun. Honan, alkarren lagun dabilzan txalupak, guztien artean atrapau daben arraina txalupa bakar baten ipini eta portura bialtzen dabe gauean. Honetan ebilzan, ba, Kosmeren txalupea eta beragaz alkartasunean egozanak, hor gaueko bederatzietan, Benantzio Gametxoren txalupara arraina pasetan, honek portura eroan egien. Zeregin haretan ebilzanean, txalupa batetik jausi zan uretara bederatzi urteko mutiko bat, eta txalupakoak ezin eutsien lagundu, Iparraldetik etorren haize indartsuagaitik. Ibarluzeak hau ikusirik, txikote bategaz amarretako ardurarik be hartu barik, salto egin uretara eta igerian topau eban mutila eta heldu eutsan; baina ezin zan bihurtu bere txalupara haizeak galarazoten eutsalako, eta ziur biak bertan galduko ziran, orduantxe egin-eginean pasau ez balitz handixik Gametxoren txalupea, beronek atezira zitala biak uretatik.

Gaizkakunde³¹² honegaitik emon jakon Kosmeri *Salvamento*

³¹² [Salvamento].

*de Nauífragosko*³¹³ dominea; eta aldi haretan Bermeon errege egon zan, eta Kosmeri mila pezeta emon eutsazan.

Maria Carrasco ontzikoak bizirik barran atera zituanean Lorenzo Ibarrak, beronegaz han zan Kosme Ibarluzea be. Gaizkakunde haretan ibili ziran guztiai *Mérito Navaleko* zidarrezko kurutzea, hilean hamar errealeko pentsinoa daukana.

1922garren urteko abenduaren 20an goizeko lauretan egoan Kosme bere bapor txikiaz badian³¹⁴, itxaroten noiz seineruek aginduko eben urtetea kalataruntz joateko, eta entzun zituan batbatean sirenots handiak; ezagun zan zeozer jazoten zala. Abiau zan porturuntz, ikusirik beste bapor txikiak urteten ebela sirenea joten baina gelditu barik.

Anacleto ontziaren patrioiak esan eutsan igaroeran, *Santa Agueda* ontzia galdu zala barran urteeran, berak eroiazala hiru gizon ontzi hareetakoak, eta enparauak galduak zirala.

Beste patrioiak, arrisku handia egoalako, ez joiazan barrara ha ontzia hondoratu zan lekura. Kosme ezer pentsetan egon barik, zuzen-zuzen joan zan leku hatara. Ilun egoan eta ezin zituan ikusi uretan ebilzanak, euren deadarretatik giatzen zan, baina arrisku handia eban olatutzarrak bere ontzia hatxetara botako ete eutsien.

Kosmek esan eutsen bere gizonai bere esana egiteko gertu baegozan, hondoratu hareen eske joateko asmoa ebala; eta guztitarako egon behar zala-ta, agindu eutsen kentzeko euritarako eta uretarako soineko astunak. Maniobra eder-eder baten bitartez, lortu eban uretatik ateratea lau gizon. Deadar gehiago entzuten ez eban lez, hasi zan itsasoruntz, eta ia azkenetan beste bi topau eta atera zituan.

Hondino falta ziran *Santa Agueda* ontziko gizonen batzuk, eta Kosme Ibarluzeak arakatu zituan inguruak alde guztietaruntz,

³¹³ [Hondoratuen Gaizkakunde].

³¹⁴ *J.t.* baida.

deadar gogor eginik: “Inor badago gehiago?” eta inork erantzuten ez ebala ikusirik, portura joan zan.

Hondoratze haretan hiru arrantzale ito ziran, barran bertan, eta itsaso handirik ez egoala, barria guztiz txarto aurkitzen zalako, arrantzale guztiak alkar aituta Billora joan ziran artez egun hatan euren ontziakaz, eta hara helduta, danak batean zuzendu ziran Gobernadoreagana, han jakin eragiteko Bermeoko portua bertan behera itxita egoala eta horregaitik, barran bertan ontzi bat galdu zala, itsasoa erdi bare egonik, eta ezin izan jakola laguntasunik emon laguntzaileen bizia galtzeko arriskuan ipini barik.

Diputazinora be joan ziran, han be jakin eragiten zelan egozan itsas-gauzok Bermeen.

Kosme Ibarluzea, lehorrez Bilboratu zan, eta batu zan itsasoz helduriko bere lagunakaz, Gobernura eta Diputazinora izanik.

Diputazinoko Lehendakariak³¹⁵ Gobernuari eskatu eutsan sariren bat emoteko Ibarluzeari beronek egindako arrisku handiko gaizkakundeagaitik; baina eskari hain zuzen hau goietan ez eben aintzat hartu eta erantzun barik geratu zan.

Bermeoko Aiuntamentuak, ostera, herriko seme gurenaren aintzaz, erabagi eban kale bati bere izena ipintea. Ordutik hona, *Nuestra Señora de la Guerra* eritxan plazatxuari *Kosme Ibarluzea Plazakua* deitzen jako, halan dau izena.

Ondo irabazita eukan Kosmek adiguri³¹⁶ hau, plaza bati bere izen-abizena ipiniaz, betiko ezagun geratu daiten halako gizon bulartsu eta gurena.

Gizon apalak be goralduek izaten dira, euren eginen handiak irabazten dabenean, Kosme Ibarluzea bermeotar zintzoa lez.

1927-XI-13

³¹⁵ [Presidenteak].

³¹⁶ Adiguri: opari.

GURE ITSASGIZON GURENAK URIBARRITAR BATISTA

Bermeon jaio zan 1881garren urtean; beraz, 46 urte daukaz. Ezkondua da, eta sei ume, lau seme eta alaba biren aita da. Orain, *Mascote* deritxan arrantzuko bapor txikiaren patroia da.

Hor 20 urte ebazanean, *Bizkaitarra* txalupan ebilen, bere patroia zala Timoteo Astorkitza, aldi bateko Markos Ondarru itsas-arazoetan entzute handikoaren semea; baebilzan, ba, atunetan, 24 mila asago lehorretik, eta honako baten heldu zan galer-na gogorra, eta tirabira eragin eutsan Lekeitioko *San José* txalupeari; hau zan alkarren bistan ebilzan hiru txalupetatik bata. *Bizkaitarraren* patroiak hori ikusita joan zan eurei laguntzen; txalupearen kileari helduta egozan larri. Estatxa bat bota jaken, eta eurek atrapau eben, baita amarrau be euren ontziari; baina ez ziran azartuten beste ontzira joaten, bildur ziran, olatu ikaragarriakaitik.

Orduan Uribarrik, garrian txikote bat amarrauta, salto egin eban itsasora eta heldu zan itzulita egoan ontzira; eta amarretan ebilela, beste sokatik joan eitezan ontzikoak *Bizkaitarrara*, estatxa eten zan, eta berari oratuta lau gizon gelditu ziran, eta *Bizkaitarrak* hartu ebazan berè ganera. Uribarri eta beste hiru gizon olatu artean geratu ziran *San Jose*ren kileari oratuta, eta urak eroiazan.

Honan egozala, Uribarrik gogoa galdu barik, deadarka esan eutsen bere lagunai zer egin behar eben: "Aterantz egin, beste

mandatik etorriko zarie neureiñe eta", jakin eraginik horretara urak berak ekarriko ebazala bera egoan lekuraino.

Bizkaitarra txalupea hasi zan, ba, aterantz egiten, haizeari eta itsasoari alborik hara bueltea hartu gurarik, eta honetan ebi-lenean, agertu zan *Joven Lázara* txalupea at aldetik, Florentzio gizon ezaguna patroi zala, eta hurreratu zan itzulita egoan txalu-para, eta ikaratu ziran Uribarri bermeotarra han ikusita. Honek estatxa bat botateko eskatu eutsen, eta hau hartu ebanean, igerian urpean sartu txalupearen azpira eta amarrau eban ondo estatxea *San Joser*en tosta baten. Hau behin eginda arrisku handiaz, eta ikusirik bere lagunak ahulduta aurkitzen zirala, banan-banan estu zituan sokeaz eta *Joven Lázarako*ak tiratuta, danak ontzian hartu zituen. Uribarri bakarrik gelditu zanean, bere garria estu eban sokeaz, eta saltau eban itsasora, eta bera be atera eben *Joven Lázarako*ak.

Gero, hau eta *Bizkaitarra*, txalupa biak, porturantz joiazane-an, handik ordubetera inguru, *Bizkaitarrak* tirabira egin eban, eta bere ganekoak uretatik ateraten inon diranak egin zituan Uri-barrik *Joven Lázara* txalupatik, eta ahalegin eta neke handien ostean atera ahal izan ebezan 13 gizon, tirabira egindako txalu-peak eroiazan 17tik; lau ito ziran, ba, bermeotar bat eta hiru lekeitiar.

Bere lagun guztiak autortu eben gaizkakunde haretan Uribarri izan zala aurrenengoa eta gehien egin ebana, eta Bizkaiko Diputazioak saria dirutan emon eutsan, orduan diputadu zan Arana Goiritar Sabinekin eskatuta, eta Hondoratuen Gaizkakunde Bazkunak emon eutsan Zidarrezko Dominea.

Ordutik hona 26 urte igaro dira, eta gure itsaso honetan gaizkakunde guren asko izan da, baina gaur be bizi-bizi gomutatzen da 20 urteko mutil haren eginen handia, bertan erakutsi ebazala bere gorputzaren sendotasuna, bere bihotz handia, eta bere gogoaren azartasuna; oin be erea agertuko balitz, *Mascoter*en patrioiak iza-tasun horreek erakutsiko leukez barrero.

1927-XII-11

GAUR DATOZ, GAUR!!

Lehengo egunetan Afrikako basoetan zarraparra asko izan da maletak gertetan udabarriko bidaketa urtean urteangorako³¹⁷. Dana zan haserrea, agirakea, berbea eta geldi ezin egona.

—Egutegiaz gomutau zarie? —dino agure batek.

—Bai, hemen doa —erantzuten deutsie³¹⁸ agureari.

—Bai, ze... guk konpromisoa daukagu martiaren 25ean hara heltzeko. Eta guardasolak?

—Guardasolak ostera?

—Bai ba, udabarria zoroa da, eta ointxe dozu eguzkia eta ointxe curia. Ipini jostorratza eta haria be.

—Zetako?

—Hatako! Tarratadaren bat egiten badogu konpontzeko.

—Horra hor, ba, ipinita.

—*Carabaina* botila bat be sartu eizue, zer jazoko be.

—Gehiago?

—*Embrocation* botila bat be bai.

—Zer da gero...?

—Bidean jausita mailaturen bat egiten bajaku, *embrocation* ingeles ur horregaz igurtziak egin eta osatzeko.

—Besterik?

—Solfako liburua.

³¹⁷ Udabarriko urteroko bidaiarako.

³¹⁸ *J.t.* darantzutsoe.

—Solfakoa?

—Bai, solfakoa, buruhandi! *Dorremifasol* ez dakik ala? Gure txikiei, han jaio eta inudeak hazi eta gero, musikaz gure abestia, *si-sol, si-sol, si-sol...* irakasteko.

—Tira ba, hemen doa solfa-liburua be.

—Eta..., bizarra kentzeko labainak ipini ete dozuez?

—Ez ba.

—Arraiea! Zuen buruok ete dira ala kanikak? Ipini, ipini labainak, itxura baten agertu gaitезan³¹⁹ be Bizkaia aldean.

Eta honantxe dihardue urduri maletak gertetan honantza etorten abietako.

—Eta, Kirikiño, nortzuk dira etortekook?

—Kukuak, udabarri-txori maitagarriak. Gaur, Martiko Andra Mariaz, etorri ohi jakuz urtero, eta hemen bizi izaten dira, landarai kalte handiak egiten deutseezan lupu eta harrak jan eta jaten, eta horretan mesede handia eginaz, baita euren abesti *si-sol, si-sol, si-solegaz* gure belarriak gozatuaz.

—Ez dabe esaten zoriona be badakarrela?

—Bai, eta halantxe da izan. Lehenengoz kukua entzuten danean sakela beterik badaukazu, urte guztian beterik eukiko dozu. Beraz, hartu dirua eta basora gaur bertan.

—Eta behinola lez, kukuaren ordez lapur batek urten eta diru guztiak ostuten badeutsez³²⁰?

—Bergia zoli erabili.

—Beraz, gaur datoz.

—Bai, gaur, eta San Pedro egunean joango dira ume barriak kaz batera.

—Ondo etorriak izan daitezala, ba.

—Holantxe!

1928-III-25

³¹⁹ *J.t.* gaitean.

³²⁰ Ikus. Bustintza, Ebaristo (*Kirikiño*): *Abarrak*, "Kukua entzuten" (121. or.), Labayru Ikastegia, Bilbao 2005.

“ITALIA” HAIZEONTZIAREN HONDAMENA

Spitzbergetik urten zan Ipar Luipururako³²¹. Bertara heldu, eta atzera etorreanean edur-ekaitz ikaragarriak hartu eban bere erdian; eta hondino zehatz ez da jakin zergaitia, baina ontziak laspel³²² asko galdu, eta beheko leia jo eban. Zartada haregaz, ontzitik dingiliz egozan karioletatik bata askatu egin zan; honen astuna barik, barrero igon zan haizeontzia beste karioleagaz, eta haizeak eroan eban orbela lez batek badaki nora, hondino bere azterrenik inork ez daki eta.

Lei ganean gelditu zan kaiolan aurkitzen ziran: Nobile, Viglieri, Ceccioni, Biaggi, Ponulla, Zappi, Mariani italiarrak, Behunek txekoslovakiarra, eta Malmgren Suediako³²³ semea.

Haizeontzia eta kariolea leitara jausi ziranean, zartada handia izan zan, eta horregaitik gizon horreetatik bat, Ponulla italiarra bertan hil zan, eta beste bat, Ceccioni, hanka bat hausita gelditu.

Egun asko egon ziran irraz hitz egin ezinik inora; hantxe hozaz eta gosez azkenak egin behar ebezala uste eben. Hau ikusita, eurentarik hiruk, Malmgren, Zappi eta Marianik erabagi eben binez urten handik eta lei ganetik joatea hegoalderantza lehorra-
ren bila.

³²¹ Ipar Luipuru: Ipar Poloa.

³²² [Gas].

³²³ *J.A.* Suezia.

Halan banandu ziran. Nobilegaz gelditu ziranak lortu eben irraz hitz egitea, eta hegazkariak lagun egin eutsien behar ebezan tresna eta jatekoak botata, eta azkenez, hegazkari bat bertan jatsi, eta Nobile ganean hartu eta eroan eban *Spitzbergera*. Badakizue gero, Errusiako itsasontzi *Krassin* deritxanak bilatu zituala aldra biak, oinez alde egin ebenena eta *Italiaren* kaiola ondoan gelditu ziranena.

Baina oinez joan ziranen aldrako bi, Zappi eta Mariani baino ez zituan *Krassinek* aurkitu. Honeek esan eben Malmgren gizajoa leietan hil zala, eta bere gorpua atzerago laga ebela.

Horretara, ba, *Italiaren* kaiolako gizonetarik bi hil dira, Ponulla eta Malmgren; enparauak bizirik atera dabez.

Errusian, Norvegian³²⁴, Suedian eta alde hareetako beste laterrietako izparringi askotan txarto hitz egiten hasi ziran italiarren aurka; salakuntza itzelak egiten eutseezan, batez be Zappi eta Marianiri, zabaldurik honeek biok euren lagun Malmgren jan egin ebela eta aldean eukazanak ostu. Nobilegaitik esaten eben ezebe ez dakian harro bat dala, eta ea ha lako baten eskuetan ipini hainbeste gizon. Ganerutzen eben, italiarrak zital batzuk dirala, eta italiarrak ez ziranak ikusi be ezin ebezala, eta honectariko zantarkeria asko.

Guzti hori da gaurko Mussoliniren Italiari jente askok deutsan gorrototik sortuta. Horregaitik, Nobile eta lagunak Italiara lehen-go egunean heldu ziranean, Italiako herriak harrera handia egin deutse, txaloka eta goraka hartu ditu.

Nobile eta lagunei ezarri deutseezan salakuntza gaizto guztiak guzurtau ditu Behunek txekoslovakiarrak. Honek esan dau, bere eretxiz, ez dagoala gaur Nobilek baino gehiago dakianik Ipar Luitpuruko arazoetan; zoritxarretik inor be ez dagoala aske; ez zala izan ezetariko haserrerik; egin-eginean be Nobilek maitasun handia erakutsi deutsala Malmgren gizajoari, eta berak lez Zappi

³²⁴ J.L. Noruega.

komandanteak be bai; oinez alde egiteko egozanean hirurak, Malmgrenek berak esan eutsala Behuneki: "Ni naz makalena, eta ez dakit gauza izango nazan lehorreraino heltzeko; baina neuri jagotana da, jausten banaz, lagunai esan ni laga eta aurrera joateko, eta horixe eskatuko deutset".

Behuneekek esan dauenaz gauzak gelditu dira argituta, guzur laino guztiak baztertuta.

Malmgren bidean hil zan, Zappi eta Mariani bere ondoan zituala; ez eben laga, berak eskatu arren, bizirik egoan artean.

Zappi egon da geroago Stockholmon Malmgrenen ama ikusten, eta cdesi deutso bere semea zelan hil zan, eta ekarri deutzaz semearen itsasorratz bat, sakelean erabilten eban ingurtitxu bat, erlojua bere kateagaz, eta beste gauzatxuren batzuk.

Gizon horreei asmau deutseczanak itzelak izan dira, eta asko zabaldu izan dira batean-bestean. Danak batu eta kentzen gatx izango da; baina gehienen adimenetan Behuneekek bota dauen argiak, salakuntza gaizto hareek ezereztu ditu.

1928-VIII-3

SUTONDOAN SORTA

1. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Egunekoa*
Aukeraketa eta hitzaurrea: Xabier Perea
Aurkezlan eta moldakuntza: Jesus M^a Agirre
2. Jose Manuel Etxeita: *Josetxo*
Moldakuntza eta sarrera: Adolfo Arejita
3. Estepan Urkiaga *Lauaxeta: Azalpenak*
Aukeraketa eta hitzaurrea: Jon Kortazar
4. G.C. della Croce – Bernardo M^a Carro *Otxolua: Bertolda eta Bertoldin*
Aurkezlan eta moldakuntza: Adolfo Arejita
5. Eusebio Erkiaga: *Jaioko dira*
Sarrera: Lino Akesolo
6. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Edo geuk edo iñok ez. Euskerearen alde*
Sarrera eta hautapena: Xabier Perea
Moldakuntza: Xabier Perea, Adolfo Arejita
7. Mikel Zarate: *Ipuin antzeko alegi mingotsak*
Aurkezlan: Igone Etxebarria
8. Eusebio Erkiaga: *Batetik bestera*
Moldakuntza eta aurkezlan: Iñaki Sarrigarte
9. Txomin Agirre: *Auñemendiko lorea*
Moldakuntza eta sarrera: Rosa Mari Arano
10. Txomin Agirre: *Kresala*
Moldakuntza eta sarrera: Mirari Alberdi eta Jon Arretxe
11. Jose Manuel Etxeita: *Jaioterrí maitia*
Aurkezlan eta moldakuntza: Iñaki Sarrigarte
12. Eusebio Erkiaga: *Txurio Txoria*
Aurkezlan: Igone Etxebarria

13. Txomin Agirre: *Garoa*
Moldakuntza eta sarrera: Bingen Zupiria
14. Resurrección M^a Azkue: *Latsibi*
Moldakuntza eta sarrerak: Mirari Alberdi eta Karmele Olano
Adolfo Arejita eta Luis Villasanteren hitzaurreak
15. Jean Barbier – Bernardo M^a Garro *Otxolua: Ixtorio-Mixterio. Ipuin-
Mipuinak*
Sarrera eta moldakuntza: Igone Etxebarria
16. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Guda Nagusia (1914-1918)*
Testu-aukeraketa eta sarrera: Xabier Perea
17. Jose Antonio Oar-Arteta: *Zaar-Barri*
Sarrera: Segundo Oar-Arteta
18. Xabier Goitia: *Eusko umeak atzerrian*
Eratailea: Jaime Kerexeta
19. Eusebio Erkiaga: *Arranegi*
Sarrera eta moldakuntza: Iñaki Sarriugarte
20. Some Unzueta *Utarsus: Idazlan guztiak*
Testu-aukeraketa: Igone Etxebarria
21. Ipolito Larrakoetxea *Legoaldi: Grimm anaien berrogeita hamar ume
ipuin*
Sarrera, oharrak eta moldaketa: Miren Atutxa
22. Eusebio Erkiaga: *Berbalauaren kulunkan (Prosa lanak) I*
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
23. Eusebio Erkiaga: *Berbalauaren kulunkan (Prosa lanak) II*
Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia
24. José Basterretxea *Oskillaso: Euskaldunak Madrilen*
Sarrera eta edizioa: Adolfo Arejita
25. Karmelo Etxenagusia, *Gotzaina: Euskerea nire bizitzan*
Testuaren ardurua: Igone Etxebarria
26. Jean Hiriart-Urruti: *Ni kazeta-egilea naiz. Artikulu, berri, istorio*
Sarrera eta edizioa: Xabier Altzibar

27. Mikel Zarate: *Haurgintza minetan*
Sarrera: Jesus Etxezarraga
28. Domingo Agirre: *Kresala*
Sarrera: Sebastián García Trujillo
29. Xipri Arbellbide: *Zoriona. 31 eta esku*
30. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Abarrak*
Sarrera eta edizioa: Miren Atutxa
31. Gorgonio Renteria: *Izartu euskaldunak! Elantxobetar baten olerkiak eta artikulua*
Biltzailea: Jule Renteria
Sarrera eta edizioa: Igone Etxebarria
32. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Aberriaren alde. Artikulu politikoak*
Testu-aukeraketa: Javier Perea
Sarrera: Cesar Gallastegi
Edizioa: Igone Etxebarria
33. Estepan Urkiaga *Lauaxeta: Gure aberriaren elea. Kazetari-lanak*
Sarrera eta testu-aukeraketa: Xabier Altzibar
Edizioa: Igone Etxebarria
34. Balentin Berrio-Otxoa Santua: *Neure amatxo maitia. Euskerazko gutunak*
Sarrera: Roman Berriozabal
Hizkera-azterketa: Adolfo Arejita
35. Eusebio Erkiaga: *Goizean eta arratsean. Eskubete neurtitz • 1*
Sarrera: Igone Etxebarria
36. Eusebio Erkiaga: *Goizean eta arratsean. Eskubete neurtitz • 2*
Sarrera: Igone Etxebarria
37. Bitoriano Candiaga: *Hitiz lauz idazten*
Sarrera eta edizioa: Iñaki Sarriugarte Irigoien
38. José Basterretxea *Oskillaso: Kurloiak. Mutiko kaletarrak Bizkaian*
Sarrera eta edizioa: Adolfo Arejita

39. Ebaristo Bustintza *Kirikiño: Bizkaia begietan (1913-1928)*
Testu-aukeraketa: Javier Perea
Sarrera eta edizinoa: Miren Atutxa



SUTONDOAN SORTA

Azkenengo liburuen zerrenda

30. ABARRAK
Ebaristo Bustintza. *Kirikiño*
Sarrera eta edizinoa: Miren Atutxa
31. IZARTU EUSKALDUNAKI
ELANTXOBETAR BATEN OLERKIAK ETA
ARTIKULUAK
Gorgonio Renteria
Biltzailea: Jule Renteria
Sarrera eta edizinoa: Igone
Etxebarria
32. ABERRIAREN ALDE
ARTIKULU POLITIKOAK
Ebaristo Bustintza. *Kirikiño*
Sarrera: Cesar Gallastegi
33. GURE ABERRIAREN ELEA
KAZETARI-LANAK
Estepan Urkiaga. *Lauaxeta*
Sarrera: Xabier Altzibar
34. NEURE AMATXO MAITIA
EUSKERAZKO GUTUNAK
Balentin Berrio-Otxoa Santua
Sarrera: Roman Berriozabal
Hizkera-azterketa: Adolfo Arejita
35. GOIZEAN ETA ARRATSEAN
ESKUBETE NEURTITZ • 1
Eusebio Erkiaga
Sarrera: Igone Etxebarria
36. GOIZEAN ETA ARRATSEAN
ESKUBETE NEURTITZ • 2
Eusebio Erkiaga
Sarrera: Igone Etxebarria
37. HITZ LAUZ IDAZTEN
Bitoriano Gandiaga
Sarrera eta edizinoa: Iñaki
Sariugarte Irigoien
38. KURLOIAK
MUTIKO KALETARRAK BIZKAIAN
Jose Basterretxea. *Oskillaso*
Sarrera eta edizioa: Adolfo Arejita
39. BIZKAI A BEGIETAN (1913-1928)
Ebaristo Bustintza. *Kirikiño*
Testu aukeraketa: Javier Perea
Sarrera eta edizinoa: Miren Atutxa

Ebaristo Bustintza

Kirikiño

BIZKAIA BEGIETAN


(1913-1928)

Testu-aukeraketa:

Javier Perea

Sarrera eta edizinoa:

Miren Atutxa



SUTONDOAN SORTA

LABAYRU IKASTEGIA

BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA